

**EUSKARAREN EKIMEN ESTRATEGIKOAK.
DONOSTIAKO EUSKARAREN PLAN
OROKORRA ETA EUSKARA
BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAREN
UZTARTZE PROZESUA. KOMUNIKAZIO
PLANA.**

1. SARRERA

2. EPO – EBPN – UZTARTZE PROZESUAREN METODOLOGIA

2.1. Sarrera

2.2. Donostiako udalaren, egungo egoeraren diagnostikoa.

2.2.1. Aurrekariak.

2.2.1.1. Onespen fasea

2.2.1.2. Planaren helburu orokorra

2.2.1.3. Eragin eremua eta epea

2.2.1.4. Metodologia

2.2.1.5. Helburuak, ekimenerako jarraibideak eta lehenetsitako ekintzak

2.2.1.6. Planaren garapena

2.2.1.7. EBPNrekin uztartze lana

2.2.2. Oinarrizko datuak

2.2.2.1. Kokapen geografikoa eta biztanleen kopurua (2001)

2.2.2.2. Biztanleriaren egitura, adinaren arabera (2001)

2.2.2.3. Biztanleria, jatorriaren arabera (1996)

2.2.2.4. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera (1981-2001)

2.2.2.5. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera (2001)

2.2.2.6. Hizkuntza-gaitasuna, auzoaren arabera (1996)

2.2.3. Euskara ondorengoetaratzea.

2.2.3.1. Familia bidezko jarraipena.

2.2.3.1.1. Hizkuntza - bilakaeraren tipologia (2001)

2.2.3.1.2. Hizkuntza-bilakaeraren tipologia, adinaren arabera (2001)

2.2.3.1.3. Etxeko hizkuntzaren erabilera (2001)

2.2.3.1.4. Etxeko hizkuntzaren erabileraren tipologia (2001)

2.2.3.1.5. Udalerriko biztanleria, etxeko euskaldunen dentsitatearen arabera (1996)

2.2.3.1.6. Etxeko hizkuntza, euskaldunen dentsitatearen arabera (1996)

2.2.3.1.7. Euskararen Udal Patronatuak garatutako jarduerak

2.2.3.2. Irakaskuntza

2.2.3.2.1. Irakaskuntza ez unibertsitarioaren ikastetxeak; sarea eta ikasleen kopurua, ereduak (2003-04)

- 2.2.3.2.2. Hizkuntza normalkuntzako programak
- 2.2.3.2.3. Irakaskuntza ez unibertsitarioaren bilakaera (1983-84/2003-04)
- 2.2.3.2.4. Haur hezkuntzaren bilakaera (1983-84/2003-04)
- 2.2.3.2.5. Irakaskuntza ez unibertsitarioa 2003-04, irakasmailaren arabera
- 2.2.3.2.6. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak
- 2.2.3.2.7. Beste udal atalen jarduerak
- 2.2.3.3. Euskalduntze-alfabetatzea
 - 2.2.3.3.1. Euskaltegiak: sare-mota, ikasle kopurua (2002-03)
 - 2.2.3.3.2. Euskaltegietako matrikulazioaren eta bermatrikulazioaren bilakaera (1986-87/2002-03)
 - 2.2.3.3.3. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak
- 2.2.4. Euskararen erabilera
 - 2.2.4.1. Administrazioa
 - 2.2.4.1.1. Udalbatzaren osaera: alderdi politikoen ordezkaritza (2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeen ondoren)
 - 2.2.4.1.2. Euskara zerbitzua
 - 2.2.4.1.3. Udalaren erabilera-plana
 - 2.2.4.1.4. Administrazio atal elbebidunen izendapena
 - 2.2.4.1.5. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak
 - 2.2.4.2. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak
 - 2.2.4.2.1. Udalaren eta euskararen Udal Patronatuaren web gune ofizialak
 - 2.2.4.2.2. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak
 - 2.2.4.2.3. Euskararen Udal Patronatuaren dirulaguntza jasotzen duten jarduerak
 - 2.2.4.3. Lan mundua
 - 2.2.4.3.1. Biztanleria, lan sektorearen arabera (2001)
 - 2.2.4.3.2. Establezimenduak, jarduera-adarren arabera (2002)
 - 2.2.4.3.3. Eusko jaurlaritzatik euskara-planengatik dirulaguntza jasotzen duten Donostiako enpresak
 - 2.2.4.3.4. Euskararen udal patronatuaren jarduerak
 - 2.2.4.4. Aisia
 - 2.2.4.4.1. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak

- 2.2.4.4.2. Euskararen Udal Patronatuaren dirulaguntza jasotzen duten jarduerak
- 2.2.4.4.3. Beste udal atalen jarduerak
- 2.2.4.5. Kirola
 - 2.2.4.5.1. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak
 - 2.2.4.5.2. Euskararen Udal Patronatuaren dirulaguntza jasotzen duten jarduerak
 - 2.2.4.5.3. Beste udal atalen jarduerak
- 2.2.4.6. Corpusa
 - 2.2.4.6.1. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak
- 2.2.5. Euskararen elikadura
 - 2.2.5.1. Liburugintza
 - 2.2.5.1.1. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak
 - 2.2.5.2. Publizitatea
 - 2.2.5.2.1. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak
 - 2.2.5.3. Kulturgintza
 - 2.2.5.3.1. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak
 - 2.2.5.3.2. Euskararen Udal Patronatuaren dirulaguntza jasotzen duten jarduerak
 - 2.2.5.4. Komunikabideak
 - 2.2.5.4.1. Donostiako euskal komunikabide nagusiak
 - 2.2.5.4.2. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak
- 2.2.6. Euskaigintza: Bagera eta Euskarak Batzen
- 2.2.7. Euskara-aurrekontua (2002ko datuak)
- 2.2.8. Ondorioak: indar guneak eta ahuleziak
 - 2.2.8.1. Indarguneak eta aukerak.
 - 2.2.8.2. Ahuleziak eta meatuak
- 2.2.9. Ondorio nagusiak
 - 2.2.9.1. Euskararen ondorengoetaratzea.
 - 2.2.9.2. Euskararen erabilera
 - 2.2.9.3. Euskararen helikadura
 - 2.2.9.4. Euskararen aurrekontua.
 - 2.2.9.5. Giza baliabideak
- 2.3. Eraketa lana: Euskararen Plan Orokorren ekintzak EBPNko ekintza kodeen arabera sailkatzea.

2.4. Uztartze prozesuaren azken urratsak: Aholku Batzordea, finantziaketa eta Komunikazio Plana

3. UZTARTZEAREN ONDORIOZ SORTUKO DEN PLANAREN HUTSUNEAK. PLANA HOBETZEKO PROPOSAMENAK.

3.1. Sarrera.

3.2 Benetako partaidetza eta plangintza estrategikoa lortzeko proposamena

3.2.1 Donostiako Udala eta partaidetza

3.2.2 Diagnostiko orokorra eta arloz arloko diagnostikoaren beharra aurrera egiteko

3.2.3 Aholku Batzordearen eta harreman-sarearen garrantzia

3.2.4 Ebaluazio sistemaren azterketa

3.2.5 Plangintza kronograma zehatza

3.3. Erakundeen arteko elkarlana

4. DONOSTIAKO EUSKARAREN UDAL PATRONATUAREN KOMUNIKAZIO PLANA

4.1. Komunikazioaren garrantzia: Euskararen Udal Patronatuaren berrantolaketa

4.2. Euskararen Udal Patronatua eta barne zein kanpo komunikazioaren trataera.

4.3. Barne Komunikazio Planaren diseinua

4.3.1. Sarrera

4.3.2. Hasierako ekintza komunikatiboak

4.3.2.1. Aginte politikoen eta zuzendaritzen konpromisoa ezagutzera ematea

4.3.2.2. Hirugarren plangintza aldia. Katalogoa

4.3.3. Barne komunikazio moduak

4.3.3.1. Aurrez aurreko komunikazioa

4.3.3.2. Intranet sarea

4.3.3.3. Informazio boletina

4.4. Kanpo Komunikazioa

4.4.1. Irudi korporatiboa

4.4.1.1. Identitatea eta irudi korporatiboa.

4.4.1.2. Irudi bisuala: marka

4.4.1.3. Donostiako Euskararen Udal Patronatuaren arazoak irudi korporatiboan. Euskararen Donostia marka.

4.4.1.4. Ondorioak eta proposamenak

4.4.2. Kanpo Komunikaziorako Planaren diseinua eta metodologia

4.4.2.1. Zer eta zertarako komunikatu?

4.4.2.2. Komunikazio ekintzak

4.4.2.2.1. Plan Orokorraren 5 urteko balantzea eta bigarren bost urtekoaren jarraipena

4.4.2.2.2. EBPN eta Plan Orokorraren uztartzea. Donostia euskararen hiriburua mezua.

4.4.2.2.3. Euskara Patronatuaren Plan Orokorra

4.4.2.2.4. Komunikazio ekintzak: Ekimenen kronograma eta komunikazio modua

4.4.2.3. Komunikazio moduen azterketa eta hobekuntzarako proposamenak

4.4.2.3.1. Komunikazio arduraduna

4.4.2.3.2. Komunikaziorako ohiko bidea. Prentsa harremanak

4.4.2.3.3. Publizitatea

4.4.2.3.4. Marketing zuzena

4.4.2.3.5. On line komunikazioa. Euskaraz.net

4.4.2.3.6. Euskaigintzarekin eta elkarteekin harremanak. Harreman publikoak eta sustapena

4.5. Komunikazio planerako baliabideak.

5. BIBLIOGRAFIA

1. SARRERA

1. SARRERA

Donostiako Udalak 2001eko apirilean jarri zuen abian “Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra”. Eusko Jaurlaritzak berriz, 1998an onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta 2001eko apirilean Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, EBPNren udaletarako plan egokitua aurkeztu zien udalei.

Bi planak garai berekoak izan arren, eta nahiz eta euskararen normalizazio lortzea helburu izan, desberdintasun nabarmenak zituzten eta ez ziren era koordinatuan aurrera eramaten, ez zegoen benetako elkarlanik planak garatzerakoan. 2004. urtean baina, bi erakundeek egoera hau aldatzea erabaki zuten eta Donostiako Plan Orokorra eta EBPN uztarri berean lotzea eta euren lan sistemak batzea erabaki zuten.

2006rako prest egotea da helburua. Uztartze prozesuaren zati katramilatsuena eginda dago: bi kodetze-sistema bateratzea. Azken urratsak ordea, eman gabe daude oraindik: aholku batzordea osatzea eta Komunikazio plana prestatzea.

Azterlan honek bi helburu nagusi ditu:

- ⇒ Bi planen uztartzea azaltzea, plan berriak dituen gabezi garrantzitsuenak identifikatzea eta hauek zuzentzeko eta bideratzeko neurriak proposatzea.
- ⇒ Komunikazio plan orokorra diseinatzea, uztartze prozesua eta plana komunikatzeko ez ezik, Euskararen Udal Patronatuaren barne zein kanpo komunikazioa taxutzeko balioko duena.

2. EPO – EBPN – UZTARTZE PROZESUAREN METODOLOGIA

2. EPO – EBPN – UZTARTZE PROZESUAREN METODOLOGIA

2.1. Sarrera

EBPN eta Donostiako Plan Orokorren arteko uztartze prozesua martxan da. Lehenik eta behin, Donostiako Udala eta Udalerriaren egungo egoeraren diagnostiko zehatza egin da eta horren ostean lan korapilatsuenari heldu zaio: plan baten zein bestearen helburu estrategikoetan identifikazio lan bat egin eta gero, Donostiako Plan Orokorren ekintzak EBPNren arabera antolatu dira eta hauen diseinua Euskararen Udal Patronatuaren aplikazio informatikora egokitu da. Kontuan hartu behar da Donostiako Plan Orokorrek zortzi sektore nagusiren arabera antolatuta dagoela eta bertan, 28 helburu estrategiko jasotzen direla. EBPN-n aldiz, hiru helburu estrategiko daude bakarrik.

Orain arte egindako bi ekimen horiek- egungo egoeraren diagnostikoa eta bi kodetze sistemen bateratzea- xehetasun osoz azaltzen dira atal honetan. Azkenik, uztartze prozesua amaitzeko eman beharreko urratsak ere jasota geratzen dira.

2.2. Donostiako udalaren, egungo egoeraren diagnostikoa.

2.2.1. Aurrekariak: euskararen ekimen estrategikoak. Donostiako plan orokorra

2.2.1.1. Onespen fasea

“Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra”ren onespenerako, urtez urte, honako urrats hauek eman dira:

- a) 1997ko irailaren 17an, Udalbatzak Euskararen Normalizaziorako Plangintza Orokorren erredakzioarekin hastea eta planaren helburu orokorra onartu zituen.
- b) 2000ko urtarrilaren 13an, Euskararen Udal Patronatuaren Gobernu Kontseiluak ordura arte garatutako dokumentua plan gidatzaile modura onetsi zuen.

- c) 2000.urtean zehar, 5 urteko ekintza plana eta plan horren urtez urtekoa finkatu ziren.
- d) 2000ko abenduaren 15ean, Euskararen Udal Patronatuaren Gobernu Kontseiluak ontzat eman zuen plan hori.
- e) Ondoren, jendaurrean jarri zen eta 2001eko apirilaren 23an Euskararen Udal Patronatuaren Gobernu Kontseiluak planari behin betiko onespena eman zion.
- f) 2001eko uztailaren 13an, Udalbatzari erabaki horren kontu eman zitzaion.
- g) 2001eko irailaren 19an, Euskararen Udal Patronatuaren Gobernu kontseiluak "Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra"ren jarraipena egiteko Jarraipen Batzordeari onespena eman zion.

2.2.1.2. Planaren helburu orokorra

Benetako elebitasuna lortzeak zera ekarri behar du: euskararen berreskurapen osoa Donostian, udal eskuduntzetan arituz euskararen normalkuntza prozesuan esku hartzen duten gainerako erakundeekin koordinazioan eta lankidetzan, Hizkuntza Politikarako Sailordetzarekin bereziki.

Helburu orokor hau hiru atal osagarritan egituratzen da:

1. Donostiarren euskalduntzea bultzatzea. Hau da, batetik, belaunaldi berrien euskalduntze praktikoa mailaka lortzea eta euskarazko kulturara osotasunean atxiki daitezen lortzea eta, bestetik, helduen artean euskararen gaitasuna hobetzea eta euskara dakitenen kopurua areagotzea.
2. Donostiako erakunde publiko eta pribatuen erabilera publiko guztietan Euskal Herriaren berenezko hizkuntza ohituraz erabilia izan dadin lortzea eta jarduera osoa, menpeko baldintzatan izan gabe, gara dadin lortzea.
3. Donostiar bakoitzaren hizkuntza eskubideak guztiz errespetatuak izan daitezen lortzea, era guztietako jarduera publiko, lanbidezko, kulturazko, gizartezko edo aisialdikoei dagokienean, jakinda, botere publikoek eskubide hauen gauzapena babesten dutela.

2.2.1.3. Eragin eremua eta epea

Planak Donostiako Udalerria hartzen du bere eragin eremuaren baitan. Planaren eragin-aldia, berriz, 10 urtekoa da, bosna urteko bi Programa Markotan banatuta. Programa marko bakoitza urteko programen bidez garatu eta zehaztuko da.

2.2.1.4. Metodologia

Egitasmoa prestatzeko Donostia Hiriko Euskararen Udal Patronatuak planifikazio estrategikoaren metodologia erabili du, hizkuntza plangintzaren alorrean egin diren planteamendu ezberdinak Donostiaren errealitatera egokituz eta doituz. Hartarako, kontuan izan dira Donostiako egoera soziolinguistikoa, euskararen normalkuntza bideratzeko oinarritzko legeria, Udalaren eskuduntzak eta Udalak azken hamarkadan bideratu duen hizkuntza politika. Euskararen Udal Patronatuak egitasmoa eta metodologia zehaztu ondoren, LKS enpresaren lankidetzan izan du prozesua dinamizatzeko. Guztira, 101 lagunek hartu dute parte planaren prestakuntzan.

Metodologiaren zehaztapenari buruz, “Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra” gizarte sektore guztien partaidetza eta inplikazioa bideratuz, behetik gora, gizartetik erakunde eta esparru politikorantz taxutu den egitasmoa dela esan behar da. Horretarako, gogoeta eta eztabaidarako markoa eratu da eta bertan, partaide guztien artean onetsi dituzten helburuak finkatu dira eta eurok lortzeko aurrerabideak zehaztu eta adostu.

Gogoeta eta eztabaida aldia burutzeko, Donostiako gizartearen errealitatea zortzi sektoretan eta hogeit hamar arlotan egituratu da eta sektore bakoitzerako lantalde bat eratu da sektore horretako gizarte ordezkari kualifikatuekin. Horrela, Donostiako gizarte sektore ezberdinen inplikaziorik gorena lortu nahi izan da hasiera-hasieratik. Donostiako Euskararen Ekimen Estrategikoak, beraz, donostiarrek gauzatutako tresna da.

2.2.1.5. Helburuak, ekimenerako jarraibideak eta lehenetsitako ekintzak

Adierazi bezala, “Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra” zortzi sektoreen arabera prestatu da eta bertan jasotzen dira 28 helburu estrategiko, 60 ekimenerako jarraibide eta 208 ekintza zehatz.

Sektoreak	Helburu estrategikoak	Ekimenerako Jarraibideak	Ekintzak
Familia harremanak	1	2	17
Hezkuntza, ikerketa eta gazteria	5	11	41
Herri Administrazioa	2	9	23
Hedabideak eta kultur ekintza	4	6	29
Lan mundua	8	12	28
Teknologia eta telematika	2	3	10
Gizarte erakundeak, kirol eta kultur elkarteak, aisialdia	2	9	42
Euskara batuaren zabalpena eta ikerketa soziolinguistikoak	4	8	18
Guztira: 8 sektore	28	60	208

2.2.1.6. Planaren garapena

Plana abian jarri zenetik oraindaino, urtez urte ondoko garapena izan du:

- 2001-2002: Urte bakoitzari dagokion ebaluaketa txostena osatu da eta Jarraipen Batzordea bitan bildu da.
- 2003: Balantze txostena bukatu berri du Gizarte Erakundearen Kontseiluak. Ondoren, emaitzen berri emateko Jarraipen Batzordea elkartuko da.
- 2004ko ekintza plana zehaztuta dago, eta plana exekutatzen ari da.

2.2.1.7. EBPNrekin uztartzeko proposamena

Aurretik esan bezala, lehenengo programa markoa 2001-2005 urte artekoa denez, planaren koherentziaren ikuspegitik, egokiena zera ikusten da: lehenik aurreneko programa markoa amaitu eta dagokion balantzea egitea, eta, ondoren, EBPNrekin uztartuz, Donostiako Planaren bost urteko bigarren programa markoa (2006-2010) zehaztea.



Nolanahi ere, elkarlanerako bidean aurrera egiteko asmoz, eta abiapuntu gisa, honako urrats hauek eman dira: batetik, Donostiako Udalerriaren diagnostikoa osatu da, EBPNe udalerrien diagnostikoak egiteko finkatutako eremuan zehazten diren esparruak aztertuz eta beti ere “Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra”ren garapenean oinarrituz; eta bestetik, *Euskararen Ekimen Estrategikoa. Donostiako Plan Orokorrean* jasotako ekintzak EBPNe ekintzen kodeen arabera sailkatu dira, era horretan Hizkuntza Politikarako Sailordetzak EBPNe garatzen duten udalekin egin ohi duen bezala, Donostiako Udalaren 2004 urteko kudeaketa planaren jarraipena egin dezan.

2.2.2. Oinarrizko datuak

2.2.2.1. Kokapen geografikoa eta biztanleen kopurua (2001)

Biztanle-kopurua: 178.377.

Eskualdea: Donostialdea.

Lurraldea: Gipuzkoa

Donostia, Donostialdeko eskualdean dago kokaturik. Eskualdea hamaika udalerririk¹ osatzen dute eta 2001eko erroldaren arabera 311.398 lagun bizi dira bertan. Donostia da eskualdeko herririk populatuena. Bertan, 178.377 biztanle bizi dira, eskualdeko %57,28. Azken hogeitun urteotan (1981etik 2001era), biztanle-kopuruak behera egin du eskualdean (-%2,03). Donostian, berriz, biztanle-kopuruak gora egin du (%5,41). 1981 eta 2001 artean, Donostiak 9.149 biztanle irabazi ditu.

2.2.2.2. Biztanleriaren egitura, adinaren arabera (2001)

	Guztira	Biztanleen dentsitatea	0-19	20-64	>65
			%	%	%
EAE	2.082.587	287,9	17	65	17,9
Gipuzkoa	673.563	340,1	17,5	64,8	17,7
Donostialdea	311.398	1.017,6	16,9	65,3	17,8
Donostia	178.377	2.900,4	16,9	63,7	19,4


2.2.2.3. Biztanleria, jatorriaren arabera (1996)

	Biztanleak Guztira	Sedentarioak		Barne-migratzaileak		Etorkinak	
		Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
EAE	2.098.055	1.035.009	49,33	573.575	27,34	489.471	23,33
Gipuzkoa	676.208	353.589	52,29	183.659	27,16	138.960	20,55
Donostialdea	313.093	156.987	50,14	83.590	26,70	72.516	23,16
Donostia	176.908	94.213	53,26	38.612	21,83	44.083	24,92

¹ Andoain, Astigarraga, Donostia-San Sebastián, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil.

2.2.2.4. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera (1981-2001)

Hiru biztanletatik bat euskalduna da (%34,6). Elebidun hartzaileak, hau da, euskaraz ondo hitz egin ez arren ondo ulertzeko gaitasuna dutenak, %21,8 dira. Multzo handiena, berriz, erdaldun elebakarrek osatzen dute (%43,6). Hogei urteren buruan izan den hizkuntza-gaitasunaren bilakaerari dagokionez, 1981etik 2001era euskaldunen portzentajeak 13,2 puntu egin du gora. Erdaldun elebakarren portzentajeak, berriz, behera egin du (11,4 puntu), baita elebidun hartzaileenak ere (1,8 puntu).




2.2.2.5. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera (2001)


40 urtetik gorako adin-tarte guztietan erdaldun elebakarrak erdia baino gehiago dira. 20 urtetik beherako gazteen artean, berriz, hiru lagunetik bi euskaldunak dira eta hamarretik bat inguru bakarrik da erdaldun elebakarra.

Nabarmentzekoa da gazteen artean euskaldunen portzentajeek azken hogeit urteetan izan duen gorakada. 1981ean 20 urtetik beherakoen artean hamarretik bira ez ziren heltzen euskaldunak eta gaur egun, esan dugun bezala, hirutik bi euskaldunak dira.

Euskaldunen bilakaera 1981-2001, adinaren arabera (DONOSTIA)
Evolución de los euskaldunes 1981-2001, según la edad (SAN SEBASTIÁN)



Hizkuntza-gaitasuna 2001, adinaren arabera (DONOSTIA)
Competencia lingüística 2001, según la edad (SAN SEBASTIÁN)



2.2.2.6. Hizkuntza-gaitasuna 1996, auzoaren arabera

Igeldon hamar biztanletatik sei euskaldunak dira. Añorgan ere ia biztanleriaren erdia (%49,5) euskalduna da. Altza eta Bidebietan, berriz, euskaldunak biztanleriaren laurden bat baino gutxiago dira.

	Guztira	Euskaldunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
Donostia-San Sebastián	169.803	32,56	20,66	46,78
Donostia-San Sebastián-Aiete	6.697	37,40	22,26	40,33
Donostia-San Sebastián-Alde Zaharra	6.137	43,91	21,33	34,76
Donostia-San Sebastián-Alza	20.402	22,28	19,99	57,73
Donostia-San Sebastián-Amara Berri	25.123	33,11	22,06	44,84
Donostia-San Sebastián-Amara Zaharra	3.604	30,58	20,06	49,36
Donostia-San Sebastián-Antiguo	10.587	39,69	19,58	40,73
Donostia-San Sebastián-Añorga	4.065	49,50	18,87	31,64
Donostia-San Sebastián-Bidebieta	7.771	22,58	20,73	56,69
Donostia-San Sebastián-Egia	12.779	29,47	18,48	52,05
Donostia-San Sebastián-Erdialdea	13.190	34,27	21,04	44,69
Donostia-San Sebastián-Gros	19.699	32,46	20,86	46,67
Donostia-San Sebastián-Herrera	1.763	35,90	19,85	44,24
Donostia-San Sebastián-Ibaeta	5.074	41,13	20,02	38,85
Donostia-San Sebastián-Igeldo	1.055	60,76	16,40	22,84
Donostia-San Sebastián-Intxaurren	15.978	28,56	22,77	48,67
Donostia-San Sebastián-Loyola	6.234	31,65	18,98	49,37
Donostia-San Sebastián-Martutene	2.497	36,68	15,42	47,90
Donostia-San Sebastián-Miraconcha	2.840	41,06	21,23	37,71
Donostia-San Sebastián-Ulía	4.308	34,75	20,73	44,52

2.2.3. Euskara ondorengoetaratzea


2.2.3.1. Familia bidezko jarraipena

2.2.3.1.1. Hizkuntza-bilakaeraren tipologia (2001)

Hamar biztanletatik lau (%42,63) erdaldun zaharrak dira, hau da, euskara ez den beste hizkuntza bat izan dute ama-hizkuntza eta gaur egun ez dakite euskaraz. Bigarren talde handiena partzialki euskaldun berriek osatzen dute (ia


bost biztanletik bat, %18,47). Hauek, euskaraz ondo hitz egiten ez dakiten arren, ondo ulertzen dute euskara. Euskaldun zaharrak biztanleriaren %17,1 dira eta euskaldun berriak, berriz, %12,52.

Euskaldunak bakarrik kontutan hartzen baditugu, ia erdia (%49,41) euskaldun zaharra da eta euskaldunen heren bat baino gehixeago (%36,19) euskaldun berria.



2.2.3.1.2. Hizkuntza-bilakaeraren tipologia, adinaren arabera (2001)

Hizkuntza-bilakaeraren tipologia 2001, adinaren arabera (DONOSTIA)
Tipología de movilidad lingüística 2001, según la edad (SAN SEBASTIÁN)



30 urtetik gorako adin-tarte guztietan erdaldun zaharrak beste multzoak baino gehiago dira eta 45 urtetik gorako adin-tarteetan biztanleriaren erdia baino gehiago. 30 urtetik beherako adin-tarteetan partzialki euskaldun berriek eta euskaldun berriek osatzen dituzte multzorik handienak. Euskaldun zaharren portzentajea %15 eta %25 artean mantentzen da adin-tarte guztietan.

2.2.3.1.3. Etxeko hizkuntzaren erabilera (2001)


Hurrengo taulan ikusiko dugunez, Donostian lau biztanletatik hiruk gaztelania erabiltzen dute etxean (%78,21). Hamar biztanletatik batek, berriz, euskara erabiltzen du etxean(%9,4).

	Guztira	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Besterik
Biztanleria	169.591	16.017	19.866	132.633	1.075
Portzentajea	%100	%9,44	%11,71	%78,21	%0,63

2.2.3.1.4. Etxeko hizkuntzaren erabileraren tipologia (2001)

Euskaldun zaharren artean ia erdiak euskara bakarrik erabiltzen du etxean (%49,8). Jatorrizko elebidunek euskara eta gaztelania, biak, erabiltzen dituzte nagusiki (%56,9). Euskaldun berrien artean gehienek gaztelaniaz egiten dute (%83,1). Partzialki erdaldunduek gaztelania erabiltzen dute nagusiki (%67,3), baina nabarmentzekoa da hiru lagunetik batek, euskara eta gaztelania, biak erabiltzen dituela. Partzialki euskaldun berriek gaztelania erabiltzen dute etxean ia beti (%94,3).

Etxeko erabileraren tipologia 2001 (DONOSTIA)
Tipología de lengua de uso en casa 2001 (SAN SEBASTIÁN)



2.2.3.1.5. Udalerriko biztanleria, etxeko euskaldunen dentsitatearen arabera (1996)


Biztanleriaren erdia (%51,2) euskaldunen dentsitatea %25 baino gutxiago den etxeetan bizi da. Etxeko euskaldunen dentsitatea %80tik gorakoa den etxeetan biztanleriaren %14,79 bizi da.

	Guztira	>80	60-80	45-59	25-44	<25
Biztanleria	169.803	25.116	18.454	17.962	21.337	86.934
Portzentajea	%100,00	%14,79	%10,87	%10,58	%12,57	%51,20

2.2.3.1.6. Etxeko hizkuntza, euskaldunen dentsitatearen arabera (1996)

Euskaldunen dentsitatea %80tik gorakoa denean erdiak baino gehiagok (%51,01) euskara erabiltzen du etxean. Dentsitatea %60 eta %80 artean dagoenean % 14,2ak hitz egiten du euskaraz eta dentsitatea hortik behera dagoenean gaztelania da etxeetan nagusitzen den hizkuntza.

Etxeko erabilera 1996, familiako euskaldunen dentsitatearen arabera (DONOSTIA)
Lengua de uso en casa 1996, según la densidad de euskaldunes en la familia (SAN SEBASTIÁN)



2.2.3.1.7. Euskararen Udal Patronatuak garatutako jarduerak

Donostiako familietan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko, eta era horretara belaunaldietako hizkuntza transmisioa egoki beteko dela ziurtatzeko Euskararen Udal Patronatuak hainbat jarduera garatzen ditu. Horietako batzuk “Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra” egin aurretik egiten ziren, beste batzuk, berriz, Planean bertan jasotzen dira.

- Guraso euskaldunei eta elebidunak ez direnei euskara ikasteko Patronatuak ematen dituen dirulaguntzen berri ematea.
- Ikastetxetan sortzen diren guraso taldeei euskara ikasteko dirulaguntzak ematea.
- 3-9 urteko haurrak dituzten familietan hizkuntzaren transmisioan eragiteko egutegia eranskailuekin argitaratzea.
- Ospakizunetarako gonbidapenak edota oroimen txartelak egiten dituzten inprentei laguntza eskaini, euskararen erabilera egokia bermatzeko.
- Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoa: sentsibilizazio gutuna eta sehaska kanten CDa bidaltzea.

2.2.3.2. Irakaskuntza

2.2.3.2.1. Irakaskuntza ez unibertsitarioaren ikastetxeak; sarea eta ikasleen kopurua, ereduka (2003-04)

Donostian 72 ikastetxe daude. Horietatik, 29 ikastetxe publikoak dira eta 43, berriz, pribatuak. Ia hiru ikasletatik bi (%63,09) ikastetxe pribatuetara doaz. Ikasle gehien jasotzen dituen ikastetxea CPEIPS Sto. Tomas Lizeoa HLBHIP da (1.832 ikasle, ikasle guztien %6,05).

Ereduak kontutan hartzen baditugu, ikastetxe pribatuetan hamar ikasletik lauk B eredua aukeratzen dute, ia heren batek D eredua eta laurden batek A eredua. Publikoetan, berriz, hamar ikasletik seik (%60,41) D eredua aukeratzen dute, bik A eredua eta beste bik B eredua.

Donostiako Plan Orokorra eta EBPnren uztartze prozesua. Komunikazio Plana

IKASTETXEA	SAREA	IKASLEAK	A	B	D
CEP AMARA-BERRI LHI	PUBLIKOA	1.312	0,00	50,08	49,92
CEP MENDIOLA LHI	PUBLIKOA	79	0,00	100,00	0,00
CEP CATALINA DE ERAUSO LHI	PUBLIKOA	206	0,00	100,00	0,00
CEP HERRERA LHI	PUBLIKOA	131	0,00	100,00	0,00
CEP OLETA LHI	PUBLIKOA	144	0,00	37,50	62,50
CEP ALTZA - S. J. C. LHI	PUBLIKOA	341	0,00	43,40	56,60
CEP ZUHAIZTI LHI	PUBLIKOA	731	0,00	8,48	91,52
EEI ARRI-BERRI HE	PUBLIKOA	161	0,00	0,00	100,00
CEP IGELDO LHI	PUBLIKOA	50	0,00	0,00	100,00
CEP ZUBIETA LHI	PUBLIKOA	7	0,00	0,00	100,00
IES ALTZA BHI	PUBLIKOA	323	16,41	51,08	32,51
IES BIDEBIETA BHI	PUBLIKOA	399	77,94	9,02	13,03
IEFPS EASO GLHBI	PUBLIKOA	588	84,35	0,00	15,65
IBD DE GIPUZKOA-GIPUZKOAKO UBI	PUBLIKOA	440	100,00	0,00	0,00
CEP AITOR IKASTOLA LHI	PUBLIKOA	294	0,00	0,00	100,00
CEP AMASORRAIN IKASTOLA LHI	PUBLIKOA	241	0,00	0,00	100,00
CEP ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA LHI	PUBLIKOA	351	0,00	0,00	100,00
CEP IKAS-BIDE IKASTOLA LHI	PUBLIKOA	220	0,00	13,18	86,82
CEP INTXAURRONDO IKASTOLA LHI	PUBLIKOA	393	0,00	0,00	100,00
CEP JAKINTZA IKASTOLA LHI	PUBLIKOA	546	0,00	7,14	92,86
CEP STA. MARIA-ORIXE IKASTOLA LHI	PUBLIKOA	308	0,00	0,00	100,00
IES (ITS) ALTZA (ITB) BHI	PUBLIKOA	88	100,00	0,00	0,00
IES LAUAIZETA IKASTOLA BHI	PUBLIKOA	220	0,00	0,00	100,00
IES ARANTZAZUKO AMA BHI	PUBLIKOA	125	0,00	7,20	92,80
IES XABIER ZUBIRI-MANTEO BHI	PUBLIKOA	655	38,02	10,08	51,91
IES USANDIZAGA-PENAFLOIDA-AMARA BHI	PUBLIKOA	1.686	39,50	21,35	39,15
CEP INTXAURRONDO HEGOA LHI	PUBLIKOA	181	0,00	18,78	81,22
CEP IBAI IKASTOLA LHI	PUBLIKOA	396	0,00	11,87	88,13
IES ANTIGUA-LUBERRI BHI	PUBLIKOA	562	0,00	0,00	100,00
PUBLIKOA GUZTIRA		11.178	20,60	18,98	60,41

Donostiako Plan Orokorra eta EBPNren uztartze prozesua. Komunikazio Plana

IKASTETXEA	SAREA	IKASLEAK	A	B	D
CPEIPS AXULAR LIZEOA HLBHIP	PRIBATUA	832	0,00	0,00	100,00
CPES J.M. BARANDIARAN LIZEOA BHIP	PRIBATUA	329	0,00	0,00	100,00
CPEIPS EKINTZA HLBHIP	PRIBATUA	767	0,00	100,00	0,00
CPEIPS HERRI-AMETSA IKASTOLA HLBHIP	PRIBATUA	513	0,00	0,00	100,00
CPEIPS MARIAREN BIHOTZA IKASTOLA HLBHIP	PRIBATUA	298	0,00	0,00	100,00
CPEIPS STO. TOMAS LIZEOA HLBHIP	PRIBATUA	1.832	0,00	5,90	94,10
CPEIPS ZURRIOLA IKASTOLA HLBHIP	PRIBATUA	718	0,00	9,33	90,67
CPES CENTRO DE ESTUDIOS A.E.G. BHIP	PRIBATUA	241	100,00	0,00	0,00
CPES SEIM BHIP	PRIBATUA	73	100,00	0,00	0,00
CPES NAZARET BHIP	PRIBATUA	427	100,00	0,00	0,00
CPES C.D.E.A. BHIP	PRIBATUA	160	100,00	0,00	0,00
CPEE ASPACE HBIP	PRIBATUA	2	100,00	0,00	0,00
CPEE ASPACE HBIP	PRIBATUA	58	100,00	0,00	0,00
CPEE AZCARATE ENEA HBIP	PRIBATUA	64	26,56	54,69	18,75
CPES CEBANC BHIP	PRIBATUA	323	100,00	0,00	0,00
CPES CEINPRO BHIP	PRIBATUA	251	100,00	0,00	0,00
CPEIPS BELEN HLBHIP	PRIBATUA	284	0,00	100,00	0,00
CPEIPS MARY WARD HLBHIP	PRIBATUA	504	0,00	50,00	50,00
CPEIPS CATOLICO STA. MARIA HLBHIP	PRIBATUA	1.236	20,39	79,61	0,00
CPEIPS COMPANIA DE MARIA HLBHIP	PRIBATUA	416	22,12	77,88	0,00
CPEIPS ESKIBEL HLBHIP	PRIBATUA	310	100,00	0,00	0,00
CPEI EUCHARISTICO SAN JOSE HIP	PRIBATUA	70	0,00	100,00	0,00
CPEI JUANA DE ARCO HIP	PRIBATUA	172	0,00	100,00	0,00
CPEIPS LA ANUNCIATA HLBHIP	PRIBATUA	362	11,88	70,99	17,13
CPEIPS LA ASUNCION HLBHIP	PRIBATUA	762	48,69	51,31	0,00
CPEIPS LA SALLE HLBHIP	PRIBATUA	902	5,88	25,28	68,85
CPEIPS MARIA AUXILIADORA HLBHIP	PRIBATUA	326	0,00	84,36	15,64
CPES MARIA INMACULADA BHIP	PRIBATUA	113	100,00	0,00	0,00
CPEIPS MANUEL DE LARRAMENDI HLBHIP	PRIBATUA	551	0,00	62,25	37,75
CPEIPS MARIA REINA HLBHIP	PRIBATUA	313	0,00	100,00	0,00
CPEIPS NIÑO JESUS DE PRAGA HLBHIP	PRIBATUA	447	9,62	90,38	0,00
CPEIPS NTRA. SRA. DE ARANZAZU HLBHIP	PRIBATUA	370	0,00	100,00	0,00
CPEI STELLA MARIS HIP	PRIBATUA	15	0,00	100,00	0,00
CPEIPS PRESENTACION DE MARIA HLBHIP	PRIBATUA	235	0,00	76,60	23,40
CPEIPS SAN ALBERTO MAGNO HLBHIP	PRIBATUA	509	100,00	0,00	0,00
CPEIPS SAN IGNACIO DE LOYOLA LBHIP	PRIBATUA	1.424	15,17	79,99	4,85
CPEIP SAN JOSE (ESCUELA ASILO) HLHIP	PRIBATUA	197	0,00	100,00	0,00
CPEIPS SAN LUIS-LA SALLE HLBHIP	PRIBATUA	292	0,00	38,70	61,30
CPES SAN MIGUEL-FUNDACION VDA. ELIZARAN BHIP	PRIBATUA	47	100,00	0,00	0,00
CPEIPS SAN PATRICIO HLBHIP	PRIBATUA	931	100,00	0,00	0,00
CPEIPS STA. TERESA HLBHIP	PRIBATUA	468	11,32	88,68	0,00
CPEIPS SAGRADO CORAZON HLBHIP	PRIBATUA	692	14,88	62,14	22,98
CPEIPS INGLES HLBHIP	PRIBATUA	270	100,00	0,00	0,00
PRIBATUA GUZTIRA		19.106	25,95	42,57	31,48
DONOSTIA GUZTIRA		30.284	23,98	33,86	42,16

2.2.3.2.2. Hizkuntza Normalkuntzako programak


Hezkuntza Sailak emandako 2003-04 ikasturteko datuetan oinarriturik hogeita lau ikastetxek dute Hizkuntza Normalkuntzako Programa abian. Horretarako Hezkuntza Sailaren laguntza jasotzen dute, irakasle bat ordu-kopuru jakin batean liberatzeko baimena edo dirulaguntza.

IKASTETXEA	LAGUNTZA
CEP AITOR IKASTOLA LHI	9 ordu
CEP AMASORRAIN IKASTOLA LHI	6 ordu
CEP IBAI IKASTOLA LHI	9 ordu
CEP IKAS-BIDE IKASTOLA LHI	6 ordu
CEP INTXAURRONDO HEGOA LHI	6 ordu
CEP INTXAURRONDO IKASTOLA LHI	9 ordu
CPEIPS AXULAR LIZEOA HLBHIP	9 ordu
CPEIPS EKINTZA HLBHIP	9 ordu
CPEIPS HERRI-AMETSA IKASTOLA HLBHIP	9 ordu
CPEIPS LA SALLE HLBHIP	9 ordu
CPEIPS MARIA AUXILIADORA HLBHIP	6 ordu
CPEIPS NIÑO JESUS DE PRAGA HLBHIP	9 ordu
CPEIPS SAN LUIS-LA SALLE HLBHIP	6 ordu
CPEIPS STO. TOMAS LIZEOA HLBHIP	9 ordu
CPEIPS ZURRIOLA IKASTOLA HLBHIP	9 ordu
CPES CEBANC BHIP	9 ordu
CPES J.M. BARANDIARAN LIZEOA BHIP	6 ordu
IEFPS EASO GLHBI	9 ordu
IES ALTZA BHI	9 ordu
IES ANTIGUA-LUBERRI BHI	9 ordu
IES ARANTZAZUKO AMA BHI	6 ordu
IES BIDEBIETA BHI	9 ordu
IES LAUAIZETA IKASTOLA BHI	6 ordu
IES XABIER ZUBIRI-MANTEO BHI	9 ordu

2.2.3.2.3. Irakaskuntza ez unibertsitarioaren bilakaera (1983-84/2003-04)

Hezkuntzan hizkuntza-ereduak ezarri zirenean hamar ikasletatik zazpik A+X ereduak aukeratu zuten Donostian. Ikasturteak aurrera joan ahala behera egin du eta gaur egun ikasleen %23,98ak aukeratzen du A ereduak (X ereduak jada ez da ematen Donostian). Ikasleen multzo handienak (42,16) D ereduak aukeratu du 2003-04 ikasturtean. Ikasleen heren batek (%33,86), berriz, B ereduak aukeratu du.


Irakaskuntza ez unibertsitaria (DONOSTIA)
Enseñanza no universitaria (SAN SEBASTIÁN)



2.2.3.2.4. Haur Hezkuntzaren bilakaera (1983-84/2003-04)

Hezkuntzan hizkuntza-ereduak ezarri zireneko lehen urteetan hiru ereduak nahiko parekaturik egon ziren Donostian. Hortik aurrera, A ereduak behera egin du etengabe eta B eta D ereduak, berriz, gora. Azken ikasturtean Donostiako Haur Hezkuntzako ikasleen erdia baino gehiago (%57,72) D ereduan matrikulatu da eta heren bat (%35,86) B ereduan.


Haur Hezkuntza (DONOSTIA)
Educación Infantil (SAN SEBASTIÁN)



2.2.3.2.3. Irakaskuntza ez unibertsitaria 2003-04, irakasmailaren arabera

Haur Hezkuntzan erdiak baino gehiagok (%57,7) D ereduak aukeratu du. Lehen Hezkuntzan B eta D ereduak parekaturik daude, baita DBHn ere. BALen ikasle gehienak (%57,7) A ereduari matrikulatu dira, baina heren batek (%34,8) D ereduak aukeratu du. Lanbide Heziketan, berriz, A ereduaren nagusitasuna erabatekoa da; hamar ikasletik bederatzik (%92,9) eredu hau jarraitzen dute beren ikasketetan.

2003-04 IKASTURTEA (DONOSTIA) CURSO 2003-04 (SAN SEBASTIÁN)



2.2.3.2.6. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak

Irakaskuntzaren arloan, unibertsitate aurreko irakasmailetan eta unibertsitate mailako hezkuntzan euskararen normalizazio prozesua zabaltzeko eta sendotzeko Euskararen Udal Patronatuak hainbat jarduerak antolatzen ditu. Bai arlo honetan bai ondoren aztertuko direnetan garatzen diren jardueretako batzuk Euskararen Udal Patronatuak aspaldidanik abiarazi zituen, beste batzuk "Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra" dokumentutik sortu ziren eta, azkenik, badira planean aurreikusi gabeko burutu diren hainbat jarduerak. Hona hemen, irakaskuntza arloari dagozkionak:

- Gurasoei zuzendutako motibazio kanpainak, beren 2-3 urteko haurrak euskarazko ereduetan matrikula ditzaten.
- Eskola Antzerkia egitasmoa garatzea.
- Auzoka prentsa eskolarra argitaratzea.
- Lagunarteko hizkerarekin jolasean DBH2ko ikasleekin
- Ikastetxeei eskaintzen zaien Euskara Zine Aretoetara programa garatzeko laguntzak ematea
- Ikastetxeen bidez haurren gurasoei asteburuetan haurrei zuzendutako euskarazko kultur eta aisialdiko jardueren berri ematea
- Euskararen Udal Patronatuak ikastetxeekin bilera egitea haur eta gaztetxoentzat indarrean dituen egitasmoen berri emateko, haien iritziak eta proposamen berriak jasotzeko eta elkarlanerako bideak jorratzeko.
- UEUrekin hitzarmena sinatzea "Gaur egungo artea Euskal Herrian" jardunaldiak, "Ekonomia sozialaren erronkak kapitalismo globalean" liburua argitaratzeko, eta ikasle donostiarrei bekak emateko UEUko udako ikastaroetan parte hartzeagatik
- ESTE, Deustuko Unibertsitatearekin hitzarmena sinatzea "2003-2004 estrategi zuzendaritza: lehiatzeko estrategia" liburua argitaratzeko
- Hik Hasi erakundeari dirulaguntza ematea udako ikastaroak aurrera eramateko
- EHUrekin ingeles eta aleman filologia eta itzulpengintza eta interpretazio sailarekin hitzarmena EUROSIA 2004 kongresua antolatzeko laguntza ematea

2.2.3.2.7. Beste udal atalen jarduerak

Hezkuntza atalak hezkuntza arloari lotutako honako jarduerak antolatzen edota laguntzen dituzte:

- Hezkuntzako gida.
- Antzerki Topaketak...

2.2.3.3. Euskalduntze – alfabetatzea

2.2.3.3.1. Euskaltegiak: sare-mota, ikasle kopurua (2002-03)

2002-2003 ikasturtean helduen euskalduntze zein alfabetatzeko hamaika euskaltegi homologatu zeuden Donostian. Ikasle kopuruari dagokionez, Donostia inguruko euskaltegietan ikasten aritu ziren donostiarren datuak kontuan hartuz, 2002-2003 ikasturtean guztira 2.323 ikasle matrikulatu ziren.

Euskaltegiak:

1. Abegi Altza euskaltegia
2. Amara Berriko aek
3. Antiguako aek
4. Hitzez
5. Ilazki
6. Irrintzi aek
7. Legazpi 6
8. Rikardo Arregi aek
9. Uli-alde
10. Urrats
11. Urumea


2.2.3.3.2. Euskaltegietako matrikulazioaren eta bermatrikulazioaren bilakaera (1986-87/2002-03)

Euskalduntze-alfabetatzearen eta bermatrikulazioaren bilakaera, ikasmailaren arabera										
	Euskalduntze-alfabetatzea					Bermatrikulazioa				
	GUZTIRA	101-106	107-109	110-112	Alfa	GUZTIRA	101-106	107-109	110-112	Alfa
1986-87	4.882	59,61	28,35	0,00	12,04	35,37	38,66	34,90		20,24
1987-88	4.346	61,50	32,72	0,02	5,75	31,43	32,32	31,29	100,00	22,40
1988-89	3.454	61,67	31,88	0,00	6,46	35,81	37,89	33,51		27,35
1989-90	3.694	64,29	26,72	1,30	7,69	34,52	37,77	29,28	25,00	27,11
1990-91	3.560	67,53	16,97	5,79	9,72	40,48	42,51	43,54	29,13	27,75
1991-92	3.977	63,39	16,02	9,08	11,52	38,62	42,48	44,27	17,73	25,98
1992-93	4.028	59,96	17,80	9,68	12,56	41,63	44,68	45,75	26,67	32,81
1993-94	4.204	59,71	18,32	11,39	10,59	41,44	44,54	48,96	26,72	26,74
1994-95	4.189	59,32	19,65	10,86	10,17	43,26	45,71	49,21	32,97	28,40
1995-96	4.959	58,62	21,64	10,26	9,48	36,60	38,73	41,10	28,68	21,70
1996-97	4.212	56,32	20,32	15,81	7,55	45,06	48,78	52,57	31,53	25,47
1997-98	4.122	54,15	21,54	17,66	6,65	42,50	46,19	49,10	31,87	19,34
1998-99	3.926	51,20	23,15	19,00	6,65	45,42	49,65	51,49	33,24	26,44
1999-00	3.947	52,85	22,19	19,94	5,02	45,25	48,08	52,85	32,66	31,82
2000-01	3.799	51,38	23,32	20,37	4,92	45,17	48,82	49,77	34,11	31,02
2001-02	3.273	50,02	20,62	22,73	6,63	46,65	50,52	49,48	38,71	35,94
2002-03	3.188	48,31	20,11	22,05	9,54					

Matrikulazio-kopuruak gorabeherak izan ditu ikasturte desberdinetan. Hala ere, azken bost ikasturteetan beherako joera nabaria ageri da. Ikasleen erdia baino gehiago lehen mailetan (101-106) matrikulatu da ikasturte guztietan.

Bermatrikulazioari dagokionez, hasierako ikasturteetan baino ikasle gehiago bermatrikulatu dira azken ikasturteetan. 2002-03 ikasturtean, ia ikasleen erdia bermatrikulatu da (%46,65).

Evolución de la matriculación y la rematriculación de los euskaltegis (DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN)



2.2.3.3.3. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak

Euskararen Udal Patronatuak Donostiako euskaltegiei eta euskara ikasi eta hobetu nahi dutenei laguntza ematen die eta egiten duten ahalegina saritzeko asmoz jarduera hauek garatzen ditu:

- Euskaltegiei zuzeneko dirulaguntzak ematea beren jarduera garatzeko, zenbait irizpideei jarraiki.
- Donostiarrak euskaldundu eta alfabetatzeko dirulaguntzak ematea
- "Euskara ikaslearen txartela" hainbat onurekin euskara ikasten ari direnei zabaltzea.

2.2.4. Euskararen erabilera.

2.2.4.1. Administrazioa.

2.2.4.1.1. Udalbatzaren osaera: alderdi politikoen ordezkaritza (2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeen ondoren)

Alkatea: Odon Elorza (PSE-PSOE)

	Alderdia	Botoak	Zinegotziak
	PSE-EE/PSOE	33.349	10
	EAJ-PNV/EA	27.855	9
	PP	22.260	7
	EB-IU	4.895	1

2.2.4.1.2. Euskara Zerbitzua

Euskararen Udal Patronatua Donostiako Udalaren Erakunde Autonomoa da. Bertan, langile hauek dihardute:

	KOPURUA	KATEGORIA
Euskara Patronatuko zuzendaria	1	A
Aholkulari	1	A
Hizkuntza normalizatzaile	8	B
Udalerako hizkuntza normalizatzailea	1	B
Administrari	5	C

OHARRA: Donostiako Kultura Patronatuan euskara arduradun bat dago (A) eta Barne Eraentza departamentuan itzultzaile bat eta 2 itzultzaile-interpretari (B)

2.2.4.1.3. Udalaren erabilera-plana

EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuak arautzen dituen 86/1997 Dekretuaren arabera eta 1996ko erroldaren datuak oinarri harturik, Donostiako Udalak bete beharreko indizea %45,56 da eta Udalak lanpostuen %49,97ri ezarri die derrigortasun data. Udalak ezarritako indizea, dagokion indizearen gainetik dago.

Donostiako Udalak, dagokion derrigortasun indizearen arabera, gutxieneko helburu hauek bete beharko ditu. Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira. Era berean, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan eta, pixkanaka, erakundeak erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak ere egingo dira gizarte-mailako administrazio-ataletarako.

Azaldutako helburuez gain, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gizarte-izaerako ataletan eta, pixkanaka, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira maila orokorreko administrazio-ataletan ere.

Gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira izaera orokorreko ataletan, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean ezarritakoaren arabera.

Horiek horrela, Donostiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko bidean emandako urratsak honako hauek izan dira:

1. *Donostiako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilpena normalizatzeko Arauak* (GAO, 1991eko ekainaren 11n argitaratua)
2. *Lehenengo plangintza aldia*. Helburuak eta emaitzak Donostiako Udalean (1990-1995): langileen hizkuntza-prestakuntza izan da lehenengo plangintza aldian gehien landu den alorra Donostiako Udalean.
3. *Donostiako Udalean 2. Plangintza aldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana*: 2000ko uztailaren 18an onartu zuen Donostiako Udalak Euskararen Erabilera Planari buruzko dokumentua. Euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izateko atal elebidunak izendatu eta hizkuntzen

erabilerarako jarraibideak, Administrazioaren ekintza eremu ezberdinetarako hizkuntza irizpideak eta hizkuntza normalkuntzarako neurriak zehazten dira atal horietarako zein administrazioko gainontzeko ataletarako.

4. Euskararen Udal Patronatua uneotan aurreko plangintza aldiaren balorazioa egin ondoren, *3. Plangintza aldiari* dagokion dokumentua lantzen ari da. Besteak beste, honako alorretan eragitea aurreikusten da, horietan hizkuntza irizpideak zehaztuz: Irudia eta komunikazioa, Hizkuntzaren erabilera herritarrekin, Beste baliabideak, Pertsonalaren hizkuntza egokitasuna, Hizkuntzaren erabilera administrazio arteko harremanetan eta Hizkuntzaren erabilera administrazio barruan.

2.2.4.1.4. Administrazio atal elebidunen izendapena

Administrazio-atalen kopurua: 213 atal

Administrazio atal elebidun izateko izendatutakoak: 26 atal (Udaleko lanpostuen %20a)

2.2.4.1.5. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak

Udal administrazio osoan euskara, gaztelania bezala, zerbitzu hizkuntza bermatzeko eta atal elebidunetan beste herri administrazioekiko harremanetarako hizkuntza eta lan hizkuntza izango dela bermatzeko Euskararen Udal Patronatua jarduera hauek ari da garatzen:

- Lanpostuen derrigortasun daten mapa aztertzea eta egokitzea.
- Langileentzako, agintari politikoentzako eta izendapenezko kargudunentzako euskarazko ikastaroak antolatzea eta interesatuak eskolaratzea.
- Ofizialki izendatutako jendaurreko zerbitzuetako lanpostuez gain, jendaurreko funtzioak zein lanpostuek betetzen dituzten identifikatzea Udaleko atal ezberdinetan.
- Irudi eta komunikazio alorra osatzen duten hainbat elementutan hizkuntza ofizialen erabilera nola ematen den ezagutzea, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak proposatzea.
- Langileen etengabeko prestakuntza programan euskarazko ikastaroak

eskaini daitezen urratsak ematea.

- Kontratazio eta esleipenak arautzen dituen Kontratazio Legeak aurreikusitako kontratazio mota bakoitzeko hizkuntza baldintzak zehaztu, adostu eta jarraipenerako prozedurak finkatzea.
- Hiriko Seinaleztapenean euskararen erabilera bermatzeko hizkuntza irizpideak zehaztu, adostu eta jarraipenerako prozedurak finkatzea.
- Herritarrekiko harremanetan kontuan izan beharreko hizkuntza irizpideak Udal Administrazio osoak barneratu ditzan, komunikazio plan bat egitea eta beharrezkoak diren informazio bilerak egitea.
- Tresna eta aplikazio informatikoetan euskarak daukan presentzia aztertzea, euskarazko elementuen zentsu bat egitea eta, hala behar izanez gero, neurri zuzentzaileak planteatzea.
- Udalak berak kudeatzen dituen herritarrei zuzendutako zerbitzu eta jardueretan hizkuntza ofizialen erabilera nola ematen den ezagutzea.
- Langileek eskatutako kontsultak erantzun; dokumentuen zuzenketak egin, hizkuntzaren erabilera zuzena bermatzeko.
- Gazteria, Hezkuntza eta Giza Eskubideak zerbitzuko langileei trebatze saioak ematea, beren lana euskaraz egin dezaten.
- Udal ordenantzetan bide publikoko errotulueterako agindurik dagoena betetzeko prozeduraren jarraipena egitea
- Hiriko seinalaztapenean euskararen erabilera bermatzeko hizkuntza irizpideak zehaztu, adostu eta jarraipenerako prozedurak finkatzea.
- Atal elebidunetan esku hartzea. (GO) Ekintza komunitarioko atala; (EAHP) Auzoak eta Herritarren partaidetza atala; (U) Burutza eta ofizialak eta Prestakuntza atala; (BE) Herritarrentzako atala eta Estatistika atala eta (IZ) Eskola Osasuna.

2.2.4.2. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak

2.2.4.2.1. Udalaren eta Euskararen Udal Patronatuaren web gune ofizialak

www.donostia.org Donostiako Udalaren gune nagusia; lau hizkuntza aukeratzen ematen ditu: euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa. Euskara aukeratzen badugu, barneko informazio guztia euskaraz eskura dezakegu.

www.euskaraz.net Euskararen Udal Patronatuaren gunea. 2003an sortu zenetik orria etengabea elikatzen da patronatutik bertatik eta, besteak beste, ondoko atal hauek osatzen dute: EUPk ematen dituen zerbitzuen, laguntzen eta jardueren informazioa, agenda, Donostiako euskarazko literatura eta beste hainbat argitalpen, "Donostia Gaur" buletina, ...

2.2.4.2.2. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak

Euskararen Udal Patronatuak, erakunde publiko eta pribatuen arteko elkar laguntzaz, euskarazko produktu informatikoen erabilera bultzatzeko eta injinerutza linguistikoan dagoen ikerketarako ahalmena antolatu, balioztatu eta zabaltzeko asmoz ondoko jarduera hauek garatzen ditu:

- Euskararen Udal Patronatuaren www.euskaraz.net web gunea elikatzea eta eguneratzea.
- Donostiako Udaleko haur liburutegian CD-ROM formatuan argitaratu den euskarazko ekoizpen digitala kontsultatu ahal izateko Ziberbiblio soluzio informatikoa ezartzea.
- Euskaraz.net EUPren webean ondoko lanak digitalizatzea: Donostiako hizkera, Donostiako euskararen historia eta beste hainbat material.
- Donostiako euskal idazleen datu basea, idazle bakoitzaren fitxa eta bibliografiak osatua, sortzea eta euskaraz.net, EUPren webean, argitaratzea eta eguneratzea.
- Auzoka Donostiako eskola aldizkariaren edizio digitala prestatzea eta alerik ale eguneratzea.
- Mugi! kirolzale donostiarraren aldizkariaren edizio digitala prestatzea eta alerik ale eguneratzea.
- "Donostia Gaur" albiste buletina editatu, euskaraz.net web gunean txertatu eta posta elektronikoaren bidez harpidedunei egunero banatzea.
- Donostiako Euskarazko Jardueren Agenda prestatzea eta euskaraz.net, patronatuaren web gunean, egunero argitaratzea.
- Euskaraz.net, EUPren webean, azken urteotako ereduazko idazleen testuetan bilaketa eta kontsultak egin ahal izateko 'Ereduazko prosa gaur' aplikazioa jartzea, horretarako EHUKo Euskara Zerbitzuarekin hitzarmena sinatu ondoren.
- Zuzentzaile ortografikoak (eta sintaktikoak) aztertzea eta udal langileen esku jartzea.

- Itzulpena erraztuko duen garapena bultzatzea eta horretarako tresneria ezartzea.
- Donostiako Udaleko ordenagailu guztietan Word euskaraz erabiltzeko lokalizatze lana.
- Teknologia berriak baliatzea, udal zerbitzuetatik ateratzen den euskara ona izan dadin.
- Plan Orokorren diseinu eta jarraipenerako aplikazioa sortzea eta eguneratzea.

2.2.4.2.3. Euskararen Udal Patronatuaren dirulaguntza jasotzen duten jarduerak

Euskararen Udal Patronatuak irabazi asmorik gabeko elkarteei zuzendutako dirulaguntza deialdiaren bidez, teknologia berriei lotutako jarduera hauek diruz laguntzen ditu.

- Hainbat elkarteren web orriak.
- UZEIren Berba aldizkari elektronikoa.

2.2.4.3. Lan Mundua

2.2.4.3.1. Biztanleria, lan-sektorearen arabera (2001)

Lau biztanletatik hiruk (%76,26) zerbitzuetan egiten dute lan. Industrian dihardutenak %16,23 dira; Eraikuntzan %6,64ak egiten du lan eta lehen sektorean, berriz, %0,87ak.

	Guztira	Nekazaritza %	Industria %	Eraikuntza %	Zerbitzuak %
EAE	862.407	1,78	27,48	8,67	62,08
Gipuzkoa	291.606	1,74	31,53	8,20	58,53
Donostialdea	134.539	1,28	20,98	8,61	69,12
Donostia	76.233	0,87	16,23	6,64	76,26

2.2.4.3.2. Establezimenduak, jarduera-adarren arabera (2002)

Guztira		Industria eta energia	Eraikuntza	Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	Bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak	Bestelako zerbitzu-jarduerak
<i>Kop.</i>	<i>Enplegua</i>	<i>Kop.</i>	<i>Kop.</i>	<i>Kop.</i>	<i>Kop.</i>	<i>Kop.</i>
19.029	77.492	858	2.003	7.417	5.271	3.480

2.2.4.3.3. Eusko Jaurlaritzatik euskara-planengatik dirulaguntza jasotzen duten Donostiako enpresak

Kultura Sailak entitate pribatuetan eta zuzenbide publikoko korporazioetan euskara-planak garatzeko ematen dituen dirulaguntzak Donostiako honako enpresa hauek jaso dute: Aspace, Euskal Kulturgintza S.A, Gizarte Lanetan Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Gipuzkoako Elkargo Ofiziala, Goroldi S.L., Gureak S.A., Matía Fundazioa, Aquadonosti, S.L. (Aquarium)

2.2.4.3.4. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak

Euskararen Udal Patronatuak lan munduko eragileei euskararen erabilera bultzatzeko behar dituzten baliabideak eskura jarri eta laguntza eskaintzen die. Honako hauek dira eskaintzen dituen jarduerak:

- Euskararen erabilera bultzatzeko enpresa pribatuei eta elkarteei hizkuntz aholkularitza eman, egindako kontsultak erantzun zein eskatutako testuen zuzenketak eta itzulpenak eginez.
- Donostiako establezimenduetako erroterak euskara hutsez edota elebrietan jartzeagatik dirulaguntzak ematea.
- Donostiako merkataritza eta elkarteei zabalpen handiko testuak zuzentzeko edo itzultzeko laguntza ematea.
- CTSS-DTK-k Euskara Plana abian jartzea EUPren laguntzarekin.
- Enpresa publiko eta pribatuetako langileak euskaldundu eta alfabetatzeko dirulaguntzak ematea.

- Merkataritza Federazioarekin batera, lan munduan euskararen erabilera normalizatzearen aldeko ekimenak abiatzeko laguntza zerbitzuak daudela jakinaraztea: web orria, posta zerrendak, datu baseak, dirulaguntzak, euskara zerbitzuak,...

2.2.4.4. Aisia

2.2.4.4.1. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak

Aisialdian euskararen erabilera bultzatzeko Euskararen Udal Patronatuak ondoko jarduera hauek antolatzen ditu:

- Irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateei Donostiako Plan Orokorra garatzeko edota ekintza osagarriak antolatzeko dirulaguntzak ematea.

"Donostiaz badakit" aisialdiko jolasa sortu eta zabalpena egin.

- Aisialdiko monitoreei euskara ikasteko dirulaguntzen berri ematea.
- Ikastetxeetako hezitzaileentzako euskal jolasen gaineko ikastaroa antolatzen laguntzea.
- Oporretan euskaraz udaleku irekiak.
- Haurrak beti Jolasean programa.
- Gazteria udal atalarekin lan egitea, euskararen presentzia egokia bermatzeko gazteei zuzenduta antolatzen dituen ekitaldietan.

2.2.4.4.2. Euskararen Udal Patronatuaren dirulaguntza jasotzen duten jarduerak

Euskararen Udal Patronatuak, irabazi asmorik gabeko elkartei zuzendutako dirulaguntza deialdiaren bidez, aisialdiari lotutako jarduera hauek diruz laguntzen ditu.

- Tailerrak: trikitixa eta panderoa, bertsolaritza, aretoen apainketa, argazkia, ikus-entzunezkoak, etnografia, dantza, gazte taldeena, buruhandiak, jokoak, mahai jokoena, mozerroena, sukaldaritza, txalaparta.

Txapelketak eta erakusketa (argazkia, marrazketa, material birziklatuekin egindako irudiena, jostailuak...)

- Irteerak, kanpaldiak, ibilaldiak, udaleku itxiak...
- Film eta diapositiba emanaldiak.

2.2.4.4.3. Beste udal atalen jarduerak

Beste udal atalek aisialdi arloari lotutako honako jarduerak antolatzen edota laguntzen dituzte:

- Haur txokoak: ludoteka, liburutegia, tailerrak, ikus-entzunezkoak, bisita didaktikoak, irteerak, festak, pelikula emanaldiak, udalekuak, diapositiba emanaldiak.
- Gazte-lekuak (tailerrak, irteerak...)
- Gabonetako haur programa.
- ...

2.2.4.5. Kirola

2.2.4.5.1. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak

Kirol arloan euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, Euskararen Udal Patronatuak kirol arloko eragileei baliabideak eta laguntza eskaintzeaz batera beste hainbat jarduera antolatzen ditu:

- Realarekin Hizkuntza Normalkuntza plana bideratzea eta laguntza eskaintzea.
- Kirol monitoreei euskara ikasteko dirulaguntzen berri ematea.
- MUGI! kirol hilabetekaria argitaratu eta zabalkundea egitea (DBHko ikasleak, kirol arloko eragileak, euskaraz.net, euskara ikaslearen txarteldunak...).
- Donostian antolatzen diren izaera bereziko kirol jarduera nagusienetan euskararen presentzia bermatzeko neurriak hartzea (Behobia-Donostia, Donosti Cup, Donostiako Klasikoa,

- Euskarazko kirol teknifikazio ikastaroa antolatzea pilotako kirol monitoreentzat.
- Futboleko entrenatzaileentzako liburu berri baten euskarazko bertsioa bideratu eta argitaratzea.
- Kirol monitore eta entrenatzaileen eskura jartzea euskaraz dagoen kirol materiala.
- Kiroletako Udal Patronatuarekin lan egitea, euskararen presentzia egokia bermatzeko Udalak antolatzen dituen ekitaldietan.

2.2.4.5.2. Euskararen Udal Patronatuaren dirulaguntza jasotzen duten jarduerak

Euskararen Udal Patronatuak, asmorik gabeko elkarteei zuzendutako dirulaguntza deialdiaren bidez, kirolari lotutako jarduera hauek diruz laguntzen ditu.

- 5-6 urte bitartekoentzako kirol ekintzak (esgrima, eskalada, boleibola, tenisa eta samboa)

2.2.4.5.3. Beste udal atalen jarduerak

Beste udal atalek kirolari lotutako honako jarduera hauek antolatzen edota laguntzen dituzte:

- Haur eta gaztetxoentzako udako kirol ekintzak.
- Haur eta gaztetxoentzako igeriketa ikastaroak ikasturtean zehar.
- Gazteei zuzendutako kirol txapelketak.
- ...

2.2.4.6. Corpusa

Euskararen Udal Patronatuak Donostiako Udal zerbitzuetatik ateratzen den euskararen kalitatea hobetze aldera eta euskarak hirian duen presentzia areagotzeko asmoz, besteak beste, ondoko jarduerak hauek garatzen ditu:

- Udal langileei Euskalterm datutegi terminologikoa intranet bidez kontsultatzeko modua jartzea.

Udal langileei euskararen arauak internet eta intranet bidez kontsultatzeko modua jartzea.

- Administrazioako hitz eta esapidez osatutako Udal-Hiztegia eta horien inguruan kontsultak egiteko aukera eskaintzea udal-langileei.
- Euskarazko itzulpenak, zuzenketak, gramatika azalpenak eta abar ematea donostiarrei.
- Donostian kokaturik dagoen ekimen pribatuaren errotulazioa bi hizkuntzetan idatzita egon dadin bultzatzea, aholkularitza eskaintzea eta dirulaguntza ematea.
- EHUrekin hitzarmena, "Ereduzko prosa gaur" egungo egoera ereduzkoaren bilketa proiektua, 3 fasetan burutzeko eta euskaraz.net-en argitaratzeko.
- Donostiako toponimia patronatuaren web orrian herritarren eskura jartzea.
- Orotariko Euskal Hiztegia egiten ari den lan-taldeari udal lokala lagatzea.
- UZEIri bere jarduera garatzeko udal lokala lagatzea.

2.2.5. Euskararen elikadura

2.2.5.1. Liburugintza

2.2.5.1.1. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak

Euskararen Udal Patronatuak Donostiaren historia berreskuratu eta hiritarren eskura jartzeko ahalegin berezia egiten du. Honakoak dira, orain artean egin diren lanak.

- Donostiako euskal literatura lanak argitaratzea: "Bertako Saila"
- Argazkigintza eta euskarazko literaturari buruzko argitalpen proiektua bideratzea Fundación Ordóñez Falcón de Fotografíarekin.
- Euskarazko literatura lanak bultzatuko dituen Saria sortzea: Donostia Opera Prima.

2.2.5.2. Publizitatea

2.2.5.2.1. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak

Donostiako publizitate enpresek egiten dituzten komunikazio kanpainetan euskara gehiago erabil dadin bultzatzeko Euskararen Udal Patronatuak ekimen bat edo beste abian jarri du:

- Bezeroek euskaraz publizitatea egin dezaten Donostiako irrati kateekin sustapen berezia egitea.

2.2.5.3. Kulturgintza

2.2.5.3.1. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak

Donostiako kultur ekitaldietan euskararen presentzia areagotzeko Donostiako Euskararen Udal Patronatuak jarduera hauek garatzen ditu:

- Kultur jarduerak antolatzen dituen udal atalarekin elkarlanean aritzea euskararen presentzia egokia bermatzeko.
- Kultur ekitaldiak antolatzen dituen entitateekin elkarlanean aritzea euskararen presentzia egokia bermatzeko: Zinemaldia, ...
- Urteko antzerki programazioa indartzeko euskarazko “Donostia Antzerki Saria” ematea.
- Donostiako Eskolarteko Literatur Lehiaketan “Koldo Mitxelena” sariak ematea.
- Euskarazko Zinemaren eskaintza normalizatzen joateko, “Beldurrezko eta Fantasiarazko Zinemaren Astea”n euskarazko azpтитuluak dituzten pelikulak proiektatzea.
- “Ipuinaren Ordua” kultur etxe guztietara zabaltzea.
- “Donostian Bertsoan” bertso-saioa antolatzea Euskal Jaiei barruan.
- Korrika kulturalaren barruan antolatzen diren kultur jarduerak antolatzen laguntzea.

- “Dakizuna Dakizula” jokia internet bidez Digital Vasca enpresarekin abian jartzea.
- Ikus entzunezko eta gidoigintza ikastaroak antolatzeke Pausoka S.A.-ren eskola proiektuan parte hartzea.
- Oskorri taldearen kontzertua Donostiako Kursaalean.
- Euskal Kantu Txapelketaren Finala Kursaalean.
- 3-16 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzako euskarazko produktuen katalogoa.
- Herritarrei Donostian euskaraz egiten diren jardueren berri ematea euskarazko komunikabideetan.
- Ilargiak Baleki bildumaren lehen bi aleak (Lizardiren "Parisko Txolarrea" eta Lauaxetaren "Lili-negarra") Gaztelupeko Hotsak argitaletxeari kaleratzen laguntzea.
- Udaleko Kultur eta Turismo Ekintzetxearekin lan egitea, euskararen presentzia egokia bermatzeko Udalak antolatzen dituen jai, ekitaldi eta jardueretan eta turismoarekiko ekintzetan.
- Udaleko Donostia Kulturarekin lan egitea, euskararen presentzia egokia bermatzea Udalak antolatzen dituen kultur ekitaldietan.

2.2.5.3.2. Euskararen Udal Patronatuaren dirulaguntza jasotzen duten jarduerak

Euskararen Udal Patronatuak, asmorik gabeko elkarteei zuzendutako dirulaguntza deialdiaren bidez, kulturgintzari lotutako jarduera hauek diruz laguntzen ditu.

- Euskal musika eta tradizio jaiak (San Juanak, Sto. Tomasak, Sta. Ageda, San Martin, Kaldereroak...)
- Ikastaroak (dantza, txalaparta, hitanoa...)
- Antzerki eta musika emanaldiak
- Bertsolaritza (bertso paper lehiaketak, ...)
- Euskara, Arte Eszenikoen tailerrean
- Zurriola Antzerki Eskolako Talde amateurak
- Añorga festak urtekaria eta Gorga buletina

2.2.5.3.3. Beste udal atalen jarduerak

Beste udal atalek kulturari lotutako honako jarduera hauek antolatzen edota laguntzen dituzte:

- Haur liburutegiko jarduerak
- Liburutegi Nagusiko jarduerak
- Kultur Etxeetako jarduerak
- San Telmo Museoko jarduerak
- Musika eskolako emanaldiak

2.2.5.4. Komunikabideak

2.2.5.4.1. Donostiako komunikabide nagusiak

Donostiako komunikabideen artean IRUTXULO astekaria eta GAZTETXULO hilabetekaria azpimarratu behar dira. Lehena, Donostiako euskaldun guztien arteko elkar komunikaziorako tresna bihurtu da, eta erreferente garrantzitsua da Donostian, 5.000 familitara iristen den aldizkaria baita; eta, bigarrena, Euskal Herri osoko gazteei zuzendutako produktua izanik, hedapen handiko eta beraz gazteentzako erreferente bihurtu den argitalpena da. Bestalde, hedapen txikiagoa baina bere garrantzia duen Ttan Ttakun irratia aipatu behar da. Hiru komunikabideek Euskararen Udal Patronatuaren dirulaguntza jasotzen dute.

2.2.5.4.2. Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak

Euskarazko hiri mailako prentsa, irrati eta telebista programen sorkuntza eta zabalkundea bultzatzeko xedearekin Euskararen Udal Patronatuak hainbat jarduera garatzen ditu; horietako bi, ordea, (Auzoka prentsa eskolarra eta MUGI! argitalpenak) aurreko bi esparrutan txertatu ditugu egokiagoa zelakoan.

- Euskarazko hedabide lokalei dirulaguntzak ematea, beren jarduketa eta zabalkundea hobetzeko.
- BUSSI enpresak kudeatzen dituen DTKko autobusetako pantailak ele bietan egoteko aholkularitza ematea.

- Gaztetxulo gazteei zuzendutako argitalpenari dirulaguntza ematea, beren jarduera eta zabalkundea hobetzeko.

2.2.6. Euskalgintza: BAGERA eta BATZEN

2.2.6.1. Bagera, Donostiako Euskaltzaleen Elkarte

Hamahiru urte beteko ditu aurten elkarteak eta bere xedea Donostian euskaraz bizi ahal izateko bideak lantzea da. Egun 700 bazkide ditu BAGERAK eta horietatik 50 bat Bagerakide aktibo dira. Euskararen Udal Patronatuak harreman estua du elkartearekin eta laguntza ematen dio bai dirulaguntzak emanez beren jarduerak antolatzeke bai elkarteak okupatzen duen lokala utziz.

Urtez urte elkartearen jarduna izugarri hazi da, eta gaur egun hainbat programa eta lan dituzte esku artean. Besteak beste, honakoak dira:

- Mintzalaguna egitasmoa.
- Euskarari buruzko mintegia eta hitzaldi sorta.
- Euskararen erabileraren behaketak (Jazzaldia, Donostiako Aste Nagusia, Musika Hamabostaldia, Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, Beldurrezko eta fantasiatzko zinemaldia).
- Euskararen Aholku eta Informazio Telefonoa (Euskararen aldekoak eta kontrakoak, Abizenak euskal grafiara, Euskal izenen aldaketa, Donostiako euskaltegiei buruzko informazioa, Itzulpen zerbitzuak, Merkatariek dituzten dirulaguntzei buruzko informazioa).
- Elkarlanean zerbitzuak: Udako Unibertsitatea (matrikulazio-epean laguntza eskaini eta ikasleei matrikula egiten erraztu), Euskararen Gizarte Erakundearen kontseilua (kanpainen berri ematen laguntzea).
- Euskaraz bizitzeko hitzarmena Bagera, Gaztetxulo eta Irutxuloren hornitzaileekin.

Kultur eskaintza: Bertsozaletasuna suspertzen Saio berezia; Kultur errota; Astearte kulturalak; Mari Domingi eta Olentzerori ongi etorria, Antiguako Herri Krosa, San Joanetako lore sortak.

Egiako Kriseilu-Bagera (Zai-Zoi kultur koordinakundearekin elkarlanean): bertso afaria, auzoko jaiak, osasuna kirola euskaraz...

2.2.6.2. Euskarak Batzen

Donostiako euskalgintzako erakunde, talde, batzorde eta antzekoek elkarren berri izan eta elkarlanean jarduteko aukerak aztertzeke Euskarak Batzen sortu zuten 2000ko udaberrian. Batzenek Euskararen Udal Patronatuaren dirulaguntza jasotzen du, esku artan dituen jarduerak egiteko:


- Web orria: Donostian euskararen normalkuntzaren alde lanean diharduten eragile ezberdinen web orria
- Hizkuntza eskubideen behatokia: behatokiko arduradunekin harremanetan jarri eta elkarlan bidez, hitzaldi bat antolatu eta horrekin batera, Behatokia zabaltzeko euskarri desberdinak gauzatu.
- Euskararekiko giro soziala areagotzeko Santa Klara uhartera txangoa
- Donostian euskararen egoeraren azterketa (urtero bizpahiru auzotan euskararen presentziaren diagnostikoa)

2.2.7. Euskara-aurrekontua (2002ko datuak)

HPSk 5.000 biztanle baino gehiago duten udalerrien euskara-aurrekontuen azterketa egin zuen 2002. urtean. Azterketa horren arabera, Donostiako Udalak euskara sustatzeko 2.287.400 € bideratu zituen, bere aurrekontuaren %1,09, hain zuzen ere.

Kontzeptuka aztertuz gero, euskara-aurrekontuaren zatirik handienak euskalduntze-alfabetatzean (%38,81), pertsonal-gastuetan (%25,77) eta euskararen sustapenean (%10,26) erabili ziren.

Euskara-aurrekontua (DONOSTIA) Presupuesto del euskera (SAN SEBASTIÁN)



2.2.8. Ondorioak: indarguneak eta ahuleziak

Atal honetan “Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra”ren diseinuan parte hartu zuen lan talde bakoitzak bere sektorean euskararen erabilera bultzatzeko antzeman zituen indarguneak, aukerak, ahuleziak eta mehatxuak EBPNk bere baitan zehaztutakoekin erkatu eta laburbiltzen dira.

2.2.8.1. Indarguneak eta aukerak

- 1981etik 2001era euskaldunen portzentajea 13,2 puntu igo da.
- Donostiarren euskararen aldeko jarrera.
- Gazteen artean euskaldunen ehunekoa gora doa; 20 urtetik beherakoen artean hiru lagunetik bi euskaldunak dira.

- Irakaskuntzaren alorrean B eta D ereduak nagusitzen dira Donostian. Ikasleen multzo handienak (42,16) D eredua aukeratu du 2003-04 ikasturtean eta heren batek (%33,86), berriz, B eredua.
- Irakaskuntza: hogeita lau ikastetxek dute Hizkuntza Normalkuntzako Programa abian.
- Euskalgintzarekin lotura duten enpresak eta profesionalak bertan izatea.
- Normalizazioa bideratzeko hiriak duen zerbitzu egitura hobetzat jotzen da beste egitura ekonomikoak baino.
- Euskarazko komunikabideak izatea lagungarria da, gauzak hobetzeko modurik egonda ere.
- Oro har, instituzioek erakusten duten aldeko jarrera.

2.2.8.2. Ahuleziak eta mehatxuak

- Ez dago, eskuarki, benetako kontzientziarik euskararen arloan, eta kontzientzia falta hau giza esparru gehienetan nabari da.
- Euskarak komunikazio tresna bezala prestigioa irabazi behar du, elementu sinboliko hutsa izateaz gain.
- Erreferenteak behar dira, eta honetan, udala eta alderdi politikoak garrantzitsuak dira.
- Euskara bultzatuko duen tresna gehiegi ez badago ere, daudenak ez dira erabat erabiltzen. Adibidez, euskararen udal araudia.
- Donostiako kale paisaia ez da euskararen aldekoa.
- Euskararen erabilerak konnotazio politikoak ditu, eta badirudi euskaraz egite hutsak jarrera politikoa adierazten duela.
- Euskaraz dauden zerbitzuak, tresnak eta materialak ez dira aski: zinea, jostailuak, material didaktikoa, informatika, ... Ikastetxeetatik kanpo euskaraz bizitzeko aukerak ez dira handiak.
- Biztanleen multzo handiena (%43,6) erdaldun elebakarra da.
- 40 urtetik gorako adin-tarte guztietan erdaldun elebakarrak erdia baino gehiago dira.
- Hamar biztanletatik lau (%42,63) erdaldun zaharrak dira.
- Donostiako lau biztanletatik hiruk (%78,21) gaztelania erabiltzen dute etxean.
- Irakaskuntza: Batxilerrean eta bereziki Lanbide Heziketan A eredua nagusitzen da.

2.2.9. Ondorio nagusiak

Donostiako Plan Orokorra eta EBPNren uztartze prozesua. Komunikazio Plana

Donostia Donostialdea eskualdean dago kokatuta. Donostialdean hamar biztanletatik lau (%39,08) euskaldunak dira. Donostiako euskaldunen portzentajea, berriz, txikiagoa da. Donostian, hiru biztanletatik bat da euskalduna (%34,6). Oiarzun eta Usurbil dira, mapan argi ikus daitekeen bezala, Donostialdeko herririk euskaldunenak (%70tik gora dira euskaldunak).



Biztanleen bilakaerari dagokionez, azken urteotan biztanle-kopuruak behera egin du Donostialdean, gutxi bada ere (-%2,03). Donostian, berriz, biztanleen kopuruak gora egin du azken hogeit urteetan (%5,41). Ia hamar mila biztanle irabazi ditu Donostiak 1981 eta 2001 urteen artean. Datu hau esanguratsua da, beherakada orokorra izan baita EAEn (EAEko hiru udalerritik bik galdu egin dituzte biztanleak).

Bestalde, biztanleriaren egitura, adinaren arabera aztertuz gero, nabarmentzekoa da gazteen portzentajea EAEko batez bestekotik behera izatea eta 65 urtetik gorakoena, berriz, EAEko portzentajea baino puntu t'rdi handiagoa izatea. Normalean biztanleak irabazi dituzten herri edo hirietan alderantzizkoa gertatzen da, hau da, biztanleria irabazi duten udalerrietan gazteen portzentajea handiagoa da eta, alderantziz, biztanleak galdu dituztenetan gazteen portzentajea txikiagoa da. Donostiaren kasuan biztanleen igoera honetan garrantzia izan duten faktoreak aztertu beharko lirateke (etxebizitza edo/eta auzo berriak, erretiro-lekua, barnealdekoa baino klima goxoagoa, ...).

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera aztertuz gero, erdaldun elebakarren proportzioa %50tik gorakoa da 40 urtetik gorako adin-tarte guztietan. 20 urtetik beherako gazteen artean, berriz, hiru lagunetik bi euskaldunak dira eta hamarretik bat bakarrik da erdaldun elebakarra. 1981etik 2001era euskaldunen portzentajeak nabarmen egin du gora, batez ere gazteen artean. Populazio osoa kontutan hartzen badugu euskaldunen portzentajeak 13,2 puntu egin du gora eta 15 urtetik beherakoak kontutan hartuta, berriz, 40 puntu baino gehiago. Datu hau gure egitasmoetan eta helburuetan aintzat hartu beharko dugu.

Donostiako auzoak aztertuz gero, auzorik euskaldunena Igeldo da; bertan hamar biztanletatik sei euskaldunak dira eta horren ondotik datoz Zubieta, Añorga eta Alde Zaharra. Altza eta Bidebietan, berriz, euskaldunak ez dira biztanleriaren laurden batera heltzen. Auzoen egoera soziolinguistikoa ere kontuan hartu beharko da udalaren egitasmoak bideratzeko orduan.

Hizkuntza-bilakaeraren tipologiari dagokionez, Donostian hamar biztanletatik lau (%42,63) erdaldun zaharrak dira. Portzentajeen arabera bigarren talde handiena partzialki euskaldun berriek osatzen dute (%18,47). Euskaldun zaharrak biztanleen %17,1 dira eta euskaldun berriak, berriz, %12,52. Partzialki euskaldun berriei eta euskaldun berriei dagokionez, adin taldea zenbat eta gazteagoa izan, portzentajea are eta handiagoa da.

Ondoren, helburu estrategikoari jarraituz, esparruz esparru, udaletan EBPNGaratzeko aurreikusitako helburuak eta neurriak aurreratuko ditugu.

2.2.9.1. Euskararen ondorengoetaratzea

Donostian euskaldunak %34,6 dira. Euskaldunen artean ia erdia euskaldun zaharra da (%49,41) eta heren bat baino pixka bat gehiago (%36,19) euskaldun berria. Donostiako etxeetan euskaldunen dentsidadea %80tik gorakoa denean erdiak baino gehiagok euskara erabiltzen du etxean; erabilera euskaldunen dentsidadea jaisten den heinean murrizten doa eta portzentajea %60tik behera dagoenean gaztelania da etxeetan nagusitzen den hizkuntza. Euskaldun berriei dagokienez, euskaraz jarduteko gaitasun osoa izan arren, etxeko giroa erdalduna dute. Hortaz, aukera gutxi dute etxean euskaraz mintzatzeko. Bestalde, etxekoen artean gaztelaniaz errazago moldatzen direnez, joera dute hizkuntza hori erabiltzeko etxetik kanpo ere. Hori dela eta, familiaren geroratzearen inguruko esparruan, ona litzateke familia bidezko jarraipena

indartzeaz gain, sortzen ari diren edo etorkizunean sortuko diren familia berrietan euskal giroa nagusi izan dadin ahaleginak egitea. Familia-jarraipena bermatzeari begira, sentsibilizazio-ekintzak eta familia osoarentzako ekintza osagarriak bultzatzen jarraitu behar da. Hona hemen horietako ekintza batzuk:

- Haurrentzako zerbitzuak kudeatzen dituztenekin hitzarmenak sinatu euskararen erabilera egokia bermatzeko.
- Ezkondu edo jaunartzea egin behar dutenen gonbidapenak edota oroimen-txartelak egiten duten inprenta eta enpresei laguntza eskaini, euskararen erabilera egokia bermatzeko.
- Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak bideratu (bildumak: ipuinak, kantuak,...)
- Haurrak izango dituzten bikoteei zerbitzuak (haurra izan aurreko ikastaroak, dokumentazioa,...) eskaintzen dizkieten entitateekin hitzarmenak egin.
- Familia osatu berria duten bikote erdi-euskaldunak euskalduntzeko ikastaroak eta erabilera sustatzeari begirako jarduerak.
- Familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai haurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak.
- Familia osatu berria duten bikote erdaldunak euskalduntzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak.

Gaur egun D eredua da aukeratuena Donostiako HH eta LHn, eta hezkuntza mailetan aurrera egin ahala B eredua nagusitzen da beste bien aurretik. Hala ere, Lanbide Heziketan batez ere eta baita BALen ere A ereduaren nagusitasuna erabatekoa da. Euskaldun-kopuruaren gorakadan, hezkuntzak duen garrantziaz oharturik, ona litzateke ikastetxeetan euskara ohiko hizkuntza-harreman bezala sendotzea, euskara-planak bultzatuz. Horretaz gain, Donostian egitarau zehatzak garatzen dira Donostiako ikastetxeetan, irakaskuntzakoa ez ezik euskara eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere. Hona hemen irakaskuntzari lotutako proposatzen diren zenbait ekintza:

- Irakaskuntza sisteman sartzear dauden haurren gurasoei zuzendutako komunikazio ekintza zehatzak gauzatu (gutunak, hitzaldiak,...) irakaskuntza eredu desberdinen helburuak azalduz.
- Lanbide Hezkuntzako zentroetan euskara sustatzeko laguntza ematea.
- Donostialdeko Berritzegunearekin elkarlanean aritzea irakaskuntzari loturiko hainbat jarduera aurrera eramateko.

- Irakurzaletasuna bultzatzeko dauden ekimenen berri ematea eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak edo laguntza eskaini.
- "Euskara Zine Aretoetara" programan parte hartzera animatu eta hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaini (zine aretoa, sarrerak merkeagotzeko dirulaguntzak, esku-orriak prestatzea...)

Euskara ikasi edo hobetu nahi duten helduentzat hamabost euskaltegi zeuden 2002-03 ikasturtean. Ikasturte horretan 3.259 ikasle ari ziren euskalduntze-alfabetatze ahaleginetan.

Matrikulazioaren bilakaerari dagokionez, azken bost ikasturteotan behera egin du. Beheranzko bilakaera hori orokorra da EAEn. Izan ere, irakaskuntzari esker, gero eta euskaldun gehiago dago. Eskolatik euskara-gaitasun nahikoarekin ateratzen diren gazteak gero eta gehiago dira.

Bermatrikulazioa begiratzen badugu, berriz, honek gora egin du azken ikasturteetan eta urtero ikasleen erdia bermatrikulatu egiten dela esan dezakegu.

Euskalduntze-alfabetatzea dela-eta atalase-maila gaindituta daukatenei zuzendutako (5.-6. mailatik gora) ikastaroak eta xede berezietako taldeak bultzatzeko ahalegina egin behar da. Donostiako euskaltegiekin elkarlanean, lagun dezake giza taldeak jarduera esparruka identifikatzen, euskaltegiak horientzako eskaintza berezitua egin dezan (egokitutako moduluak, ordutegi berezikoak...).

Euskalduntze-alfabetatzean eragiteko proposatzen diren zenbait ekintza:

- Kasuan kasuko eragile eta taldeak identifikatu jarduera esparruka eta horren arabera euskalduntze eta alfabetatzeko ikastaroen eskaintza bideratzen lagundu.
- Euskaltegiekin batera ekintzak jarri abian, ikasleei euskara sendotzeko: topaguneak, jardunaldiak, udarako barnetegiak, murgiltze ekintzak...
- Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea.
- Euskara ikasten ari direnak euskara erabiltzera motibatzea.

2.2.9.2. Euskararen erabilera

Donostian, euskara erabiltzeko esparruak zabaltzen jarraitzeko beharra ageri da, eta ona litzateke Udalaren gidaritzapean, gizarte arlo ezberdinetako ordezkarien laguntzarekin aisia, kirola eta kulturgintza esparruetan euskara erabiltzeko aukerak eskaintzen jarraitzea.

Honez gain, aisialdiko taldeen eta herriko kirol elkarten kanpora begirako jardueretan ez ezik barne funtzionamenduan ere, euskararen erabilera sustatzeko laguntza ematen jarrai dezake Udalak, eta, kirol arloko euskarazko materialen sorkuntza dela eta, Foru Aldundiarekin elkarlanean, arian-arian, material horiek euskaraz jartzeko eta zabaltzeko lan programa era dezake. Era berean Udalak herritarrei zuzendutako kultur, kirol eta aisialdiko ekintzetan euskararen presentzia eta erabilera bermatzeko neurriak hartzen jarraitu behar da.

Proposatutako beste zenbait ekintza:

- Udaleko aisialdi-ekintzak modu koordinatuan garatzen lagundu.
- Aisialdiko taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratu.
- Euskaraz dakiten aisialdirako begiraleen lan poltsa osatu.
- Aisialdiko elkarten barne funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzea lagundu.
- Begirale-eskolek hezitzaileentzat eta begiraleentzat antolatzen dituzten ikastaroetan euskara bermatzen lagundu.
- Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatzen lagundu.
- Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatu.
- Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartu.
- Udalaren menpeko aisialdi eta kultur guneetan (ludotekak, kultur etxeak...) antolatzen diren ekintzetan euskarazko saioak bermatu.
- Udaleko kirol ekintzak modu koordinatuan garatzen lagundu.
- Kirol taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratzea eta material horiek kirol-klub eta elkarteetara helaraztea.
- Kirolean euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio ekintzak bultzatu.
- Kirol taldeei zuzendutako dirulaguntzetarako deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri.

- Euskarazko taldeak osatu daitezzen ikastetxe eta kirol taldeekin elkarlanean aritu.
- Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Federazioen eta kirol taldeen euskararen normalizaziorako barne plangintzak egiteko laguntza eskaini.
- Katekesi eta antzeko saioak emateko erabiltzen den materiala euskarazkoa izan dadin bultzatu.

Teknologia berriak ezin albo batera utzi, eta komenigarria da esparru hori gogoan izatea. Esparru hau indartzeko, euskara lantzeko tresnen zabalkundea egiten jarrai dezake Udalak herritarren artean. Baita ere, Udalak eta udalerriko elkarteek eta herritarrek interneten duten edo jartzeko asmoa duten informazioa euskaraz ere egoteko laguntza tekniko eta diruzkoa eskain dezake. Udalak eta Euskararen Udal Patronatuak bere web gunea dute, teknologia berrietan euskararen erabilera sustatze lana eginez. Honez gain, euskal kulturaren ondareari buruzko informazioa bildu, digitalizatu eta hori zabaltzeko lanekin jarraitzeko modua ere egin dezake.

Bestalde, administrazioaren barruko jardunari begira, Euskara Patronatua eratua eta euskara-plana onartua duenez, hori garatzea eta betetzea litzateke lehentasunezkoetako bat. Euskaraz lan egiteko tresnak udaleko langile guztien eskura jartzeaz gain, tresna horien zabalkundea egin dezake herritarren artean.

Udal Administrazioko langileen hizkuntza prestakuntzari dagokionez, hizkuntza eskakizunak ezartzen jarraitu eta horien betetze-maila areagotze aldera lanean segi behar du Udalak. Administrazio atal guztietan euskara zerbitzu hizkuntza eta administrazioen arteko hizkuntza izateko eta atal elebidun izateko izendatutakoetan lan-hizkuntza euskara izan dadin urratsak ematea garrantzizkoa da.

Administrazioari dagokionez ondoko ekintzak eraman daitezke aurrera:

- Udalak egiten dituen zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Udalak egiten dituen hornikuntza kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Euskara zerbitzuaren eginkizunaren arabera baliabideen beharrak neurtu.
- Udalak egiten dituen obra kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Udalak egiten dituen aholkularitza eta asistentzia kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri.

- Dirulaguntzak banatzeko deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Euskaraz lan egiteko langileak behar dituen baliabideak eskaini.
- Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana taxutu, onartu eta garatu.
- Euskararen erabilera arautuko duten udal ordenantzen jarraipenerako sistema bat antolatu.
- Udalak egiten dituen zerbitzuen kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Udalak egiten dituen langileen kontratazio berrietan hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Beste erakunde publikoekin elkarlanean aritu.

Lan munduari dagokionez hainbat enpresa ari dira erabilera-plana garatzen, Eusko Jaurlaritzatik dirulaguntza jasotzen dutenak. Udalak bere aldetik, merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko saioak egin izan ditu eta aurrera begira saio horiek areagotu eta orokortu beharko lituzke Udalak, modu sistematikoan lan eginez, sektorearen ordezkari diren elkarteekin elkarlanean. Horretarako, besteak beste, eraginkorrak diren establezimenduak identifika ditzake eta horiei egokitutako plangintzak gara ditzake. Bestalde, esparru sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek dituzten programa eta laguntzekin osagarritasuna lortu beharko litzateke.

Publizitatea euskaraz egitearen aldeko sentsibilizazioa landu dezake Udalak sektoreetako elkarteekin batera (merkatarien elkarte, ostalarien elkarte...). Horri lotuta publizitatea euskaraz egiteko laguntza teknikoa eman dezake (komunikabideetan iragarkiak euskaraz agertzeko itzulpenak, etxeetara bidaltzen diren esku-orriak euskaratzea...).

Honen harira honako ekintza hauek bultza daitezke:

- Enpresetan barne eta kanpo plangintzak egiteko laguntza eskaini.
- Bertako enpresen artean Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskaintzen dituzten laguntzen berri eman.
- Arloko elkarteekin harremanetan jarri eta euskararen inguruko proposamenak aztertu.
- Lehen hitza euskaraz izan dadin lagundu.
- Sektoretako arduradunei (dendariei, tabernariei,...) euskara erabiltzearen abantailak ikustarazi.
- Eraginkorrak diren establezimenduak identifikatu eta mikroplangintzak egin.
- Merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko saioak abian jarri.

- Eragile nagusien partaidetza lortzeko banan-banako sentiberatze jardunak egin.
- Publizitatea euskaraz egitearen aldeko sentsibilizazioan lan egin sektoreetako elkarteekin batera (merkatarien elkarte, ostalarien elkarte,...)
- Herritarrek edo enpresek publizitatea euskaraz egiteko laguntza teknikoa eman.
- Toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia normalizatu Euskaltzaindiarekin bat etorritik.
- Merkatal gunetako hizkuntza-paisaia (denda, taberna, akademiak eta abarrekoetakoan) euskararen presentzia areagotu.

2.2.9.3. Euskararen elikadura

Komunikabideei dagokienez, ona litzateke, esan bezala, euskarazko egitasmoei laguntzen jarraitzea eta laguntzak ematerakoan irizpide objektiboak finkatzea: autofinantzaketa, proiektuaren bideragarritasuna, maiztasuna eta hartzailearen tipologia, besteak beste. Alor honetan, komenigarria izango litzateke finantziario-irizpideak adostea Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin. Haur eta gazteentzako euskarazko eskaintza sustatzeko ahalegina egin dezake Udalak. Horrekin batera, euskaraz ez diren komunikabideetan, euskararen presentzia bultzatzera ere jo daiteke. Honez gain, haur eta gazteentzako produktu berezituak bultzatu ditzake udalak, ekimen pribatuarekin elkarlanean.

Euskarazko kultur eskaintza ziurtatzeari begira, hirigunea ez ezik auzoak izan beharko litzateke oso kontuan, eta orain artean egin moduan herritarrei modu eraginkorrean egiten denaren berri zehatza ematen jarraitu. Bestalde, badirenez urtero antolatu ohi diren kultur eta kirol ekitaldi bereziak, jende asko biltzen dutenak hain zuzen, horietan euskararen presentzia arretaz zaintzea komeniko litzateke.

Hona hemen komunikabideen eta kulturgintzaren alorrean gara daitezkeen zenbait ekintza:

- Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu

- Eskualde edo herri mailako komunikabideetan euskararen erabilera bultzatzearen, laguntzak ematen jarraitu.
- Haur eta gazteentzako euskarazko eskaintza sustatzea
- Udalaren menpeko kultur guneeetan euskarazko materialak eguneratuta izatea eta herritarren eskueran ipintzea
- Euskaltegi, ikastetxe eta herriko elkarteekin batera ekintzak antolatu
- Euskaraz ulermena soilik duen publikoa erakartzeko kanpaina bereziak antolatu
- Herrian dauden kultur talde desberdinak eta hauen lana ezagutarazi
- Herriko festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatu
- Udaletako azpiegiturak euskal kulturgintzan dabilzan taldeen esku jarri
- Euskal kultur produkzioa zabaltzea eta ezagutarazten lagundu
- Udal liburutegiak era egokian hornitu, ezagutzera eman eta euskal materialen erabilera sustatu bertan
- Eragin esparruko ikastetxeekin batera euskal literaturaren zaletasuna bultzatzeko ekitaldiak antolatu
- Euskal literaturaren inguruko elkarteekin (idazleak, editoreak, itzultzaileak, bertsolariak) harremanetan jarri eta urteko programa definitu

2.2.9.4. EUSKARAREN AURREKONTUA

HPSk 2002an 5.000 biztanle baino gehiago duten udalerrien euskara-aurrekontuen azterketa egin zuen. Azterketa horren arabera, Donostiako Udalak euskara sustatzeko 2.287.400 € bideratu zituen, bere aurrekontuaren %1,09 hain zuzen ere.

Kontzeptuka aztertuz gero, euskara-aurrekontuaren zatirik handienak euskalduntze-alfabetatzean (%38,81), pertsonal-gastuetan (%25,77) eta euskararen sustapenean (%10,26) erabili ziren.

Ona litzateke udalak euskararen sustapenerako bideratzen duen aurrekontua aztertzea, herrian euskara biziberritzeko nahikoa duen edo gehitu beharko litzatekeen erabakitzeko. Ikustekoa da, halaber, euskara-aurrekontuak diagnosiak agerrarazten dituen beharrei ia behar bezala erantzuten dien, eta aurrekontuaren hazkundea izanez gero, zein helburutarako erabil daitekeen kopuru gehigarria.

2.2.9.5. GIZA BALIABIDEAK

Gaur egun, euskararen normalizazioarekin loturik 20 langile ari dira lanean: Euskararen Udal Patronatuan 16 langile, Donostia Kulturean 1 eta Barne Eraentzan 3. Beraz, Donostiako Udala Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskara-zerbitzuen dimentsionamendurako egindako azterketan, euskaldunen kopurua %15etik %50era bitartekoa duten udalerritan eta 20.000 biztanletik gorakoetan ezarritako gutxieneko kopuruaren gainetik dago.

2.3. Erkaketa lana: EPOren ekintzak EBPNko ekintza kodeen arabera sailkatzea

Diagnostikoa egin ostean, bi planak uztartzeko zailtasun handienak maila teknikoan gertatu dira, bi planek egitura desberdina baitute. Diagnostikoan azaldu bezala, Donostiako Plan Orokorrean jasotako ekintzak EBPNko ekintzen kodeen arabera sailkatu behar dira.

Hemendik aurrera Donostiako Plan Orokorra bi kodeekin lan egingo du: 8 sektoreetan desberdindutako kode sistema eta EBPNren ekintza kode sistema. Biaz uztartuta azalduko dira ekintza fitxetan, bai Donostiako Euskararen Udal Patronatuak eta baita Hizkuntza Politikarako Sailordetzak ere kudeaketa planaren jarraipena egin dezaten.

Egindako kodetze berriak datozen bost urteetarako lan sistema finkatuko du eta horri esker erakunde guztiek eraginkortasun handiagoz eta modu koordinatuagoan lan egingo dute.

1. Euskara ondorengoetaratzea 1.a. Irakaskuntza :

1.a.01

1.a.01. Hizkuntza-politikaren arloan garatutako ekimenen eraginik aldekoena hezkuntza-arloan antzeman da, hain zuzen ere, EAEko eta Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. EAEn, irakaskuntza-sistemako B eta bereziki D ereduaren onarpenari esker gertatu da euskararen areagotzea azteenen artean. Beste aldean, berriz, Iparraldean dago; (...) Diru públicos finantzatutako euskarazko irakaskuntza ezinbesteko da euskararen jarraipenerako Iparraldean. Eskolatik eta unibertsitatetik baztertzen den hizkuntzak ez du iraupenik.

Ekintza EBPn	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
1.a.01/01 Irakaskuntza sisteman sartzearen dauden haurren gurasoei zuzendutako komunikazio ekintza zehatzak gauzatu (gutunak, hitzaldiak,...) irakaskuntza eredu desberdinen helburuak azalduz.	1.a.01/01	A	IR01 Gurasoei zuzendutako motibazio kanpainak, beren 2-3 urteko haurrak euskarazko ereduaren matrikula ditzaten

1.a.03

1.a.03. Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.

Ekintza EBPn	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
1.a.03/00	1.a.03/00		IR49 Ikastetxeen bidez haurren gurasoei asteburuetan haurrei zuzendutako euskarazko kultur eta aisialdiko jardueren berri ematea
1.a.03/00	1.a.03/00		IR46 Eskola Antzerkia egitasmoa garatzea
1.a.03/00	1.a.03/00		IR50 Lagunarteko hizkerarekin jolasean
1.a.03/09 "Euskara Zine Aretoetara" programan parte hartzea animatu eta hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaini (zine aretoa, sarrerak merkeagotzeko dirulaguntzak, esku-orriak prestatzea...)	1.a.03/09	E	IR47 Ikastetxei eskaintzen zaien Euskara Zine aretoetara programa garatzeko laguntzak ematea
1.a.03/00	3.b.03/02	E	IR45 Auzoka prentsa eskolarra argitaratzea

1.a.04

1.a.04. Unibertsitateko ikasketak, ikerketa eta sorkuntza euskaraz egiteko eskubidea aitortu unibertsitateko ikasle, irakasle eta ikerlariei, horretarako euskarazko unibertsitate-eskaintza areagotuz, euskarazko irakasleak prestatzeko plana taxutuz, gutxienez enbor-ikasketak euskaraz eskainiz eta lehentasunezko espezialitateak finkatuz.

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
1.a.04/00	1.a.04/00		IR54 UEUrekin hitzarmena sinatzea "Gaur egungo artea Euskal Herrian" jardunaldiak, "Economía sozialaren erronkak kapitalismo globalean" liburua argitaratzeko, eta ikasle donostiarrei bekak emateko UEUko udako ikastaroetan parte hartzeagatik
1.a.04/00	1.a.04/00		IR55 ESTE, Deustuko Unibertsitatearekin hitzarmena sinatzea "2003-2004 estrategi zuzndaritz: lehiatzeko estrategia" liburua argitaratzeko eta beste bi enpersa kasu
1.a.04/00	1.a.04/00		IR59 Hik Hasi erakundeari dirulaguntza ematea udako ikastaroak aurrera eramateko
1.a.04/00	1.a.04/00		IR60 EHU- Ingeles eta aleman filologia eta itzulpengintza eta interpretazio sailarekin hitzarmena: EUROSIA 2004 kongresua antolatzeke lagunaza ematea

1.a.06

1.a.06. Eskolaz kanpoko erabilera-esparruekin (herria-auzoa-lagunartea-aisia) zubiak egiteko euskarabatzordeak osatu.

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
1.a.06/02 Euskararen erabilera bultzatuko duen Euskararen Batzordean ikastetxearen presentzia bermatzea	1.a.06/02	A	IR58 EUPk Ikastetxeekin bilera egitea haur eta gaztetxoentzat indarrean dituen egitasmoen berri emateko, haien iritziak eta proposamen berriak jasotzeko eta elkarlanerako bideak jorratzeko.

1. Euskara ondorengoetaratzea 1.b. Euskalduntze-alfabetatzea :

1.b.01

1.b.01. Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
1.b.01/03 Baldintza minimo batzuk betetzearen truke dirulaguntzak eskaini	1.b.01/03	A	IR39 Donostiarrak euskaldundu eta alfabetatzeko dirulaguntzak ematea
1.b.01/03 Baldintza minimo batzuk betetzearen truke dirulaguntzak eskaini		A	IR57 Donostiarrak euskaldundu eta alfabetatzeko dirulaguntzak banatzeko irizpideak berrikustea eta plangintza horren irizpidetara egokitzea
1.b.01/07 Euskara ikasten ari direnak euskara erabiltzen motibatzea	1.b.01/03	E	IR43 "Euskara ikaslearen txartela" zabaltea

1.b.02

1.b.02. Emaitei buruzko gogoeta sakona egin. Kalitate-irizpideak finkatu eta adostu: adierazle egokiak aukeratu, bakoitzaren pisua erabaki, euskaltegien emaitzak aztertu eta onenak saritzeko mekanismoak antolatu. Funtzionarioak zein irakasleak euskalduntzeko egitasmoak sakonki aztertu, neurtu eta eraberritu.

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
1.b.02/00	1.b.02/00		IR33 Donostiako euskaltegi pribatu homologatuei dirulaguntza ematea helduen euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak emateagatik

1. Euskara ondorengoetaratzea 1.c. Familia bidezko jarraipena :

1.c.01

1.c.01. Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (hautzaindegiak, zaindariak, ...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezua eta ekintza zehatzak proposatuz

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
1.c.01/06 Familia osatu berria duten bikote erdi-euskaldunak euskalduntzeko ikastaroak eta erabilera sustatzeari begirako jarduerak	1.c.01/06	A	FH11 Guraso euskaldunei, duten euskara maila hobetu dezaten, eta elebidunak ez direnei euskara ikasteko dirulaguntzen berri ematea
1.c.01/07 Familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai haurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak	1.c.01/07	E	FH10 3-9 urteko haurrak dituzten familietan hizkuntzaren transmisioan eragiteko egutegia eranskailuekin argitaratzea eta banatzea
1.c.01/08 Familia osatu berria duten bikote erdaldunak euskalduntzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak	1.c.01/08	E	FH31 Ikastetxetan sortzen diren guraso taldeei euskara ikasteko dirulaguntzak ematea
1.c.01/12 Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak (bildumak: ipuinak, kantuak,...)	1.c.01/12	E	FH19 Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoa: sentsibilizazio gutuna eta sehaska kanten CDa bidaltzea.

2. Euskararen erabilera 2.a. Administrazioa :

2.a.01

2.a.01. Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasunzerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri

Ekintza EBPn	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
2.a.01/00	2.a.01/00		HA30 Langileek eskatutako kontsultak erantzun; dokumentuen zuzenketak egin, hizkuntzaren erabilera zuzena bermatzeko.
2.a.01/00	2.a.01/00		HA12 Langileen etengabeko prestakuntza programan euskazko ikastaroak eskaini daitezen urratsak ematea.
2.a.01/03 Euskaraz lan egiteko langileak behar dituen baliabideak eskaini	2.a.01/03	E	HA22 Gazteria, Hezkuntza eta Tolerantzia zerbitzuko Langileei trebatze saioak ematea, beren ahozko lana euskaraz egin dezaten. 2003an hasitako lanari jarraipena ematea.
2.a.01/04 Euskaldun ororengana iristeko Komunikazio Plana osatu eta horren betetze mailaren jarraipena egin.	2.a.01/04	A	HA14 Herritarrekiko harremanetan kontuan izan beharreko hizkuntza irizpideak Udal Administrazio osoak barneratu ditzen, Komunikazio plan bat egitea eta beharrekoak diren informazio bilerak egitea.
2.a.01/06 Euskararen erabilera arautuko duten udal ordenantzen jarraipenerako sistema bat antolatu	2.a.01/04	A	HA26 Udalak berak kudeatzen dituen herritarrei zuzendutako zerbitzu eta jardueretan hizkuntza ofizialen erabileria nola ematen den ezagutzea.
2.a.01/05 Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana taxutu, onartu eta garatu	2.a.01/05	A	HA01 Langileentzako, agintari politikoentzako eta izendapenezko kargudunentzako euskarazko ikastaroak antolatzea eta interesatuak eskolaratzea.
2.a.01/05 Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana taxutu, onartu eta garatu	2.a.01/05	A	HA27 Lanpostuen derrigortasun daten mapa aztertzea eta egokitzea
2.a.01/05 Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana taxutu, onartu eta garatu	2.a.01/05	A	HA31 Atal elebidunetan esku hartzea. (GO) Ekintza komunitarioko atala; (EAHP) Auzoak eta Herritarren partaidetza atala; (U) Burutza eta ofizialak eta Prestakuntza atala; (BE) Herritarrentzako atala eta Estatistika atala eta
2.a.01/05 Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana taxutu, onartu eta garatu	2.a.01/06	A	(IZ) Eskola Osasuna. HA28 Ofizialki izendatutako jendeaurreko zerbitzuetako lanpostuez gain, jendeaurreko funtzioak zein lanpostuek betetzen dituzten identifikatzea Udaleko atal ezberdinetan.
2.a.01/06 Euskararen erabilera arautuko duten udal ordenantzen jarraipenerako sistema bat antolatu	2.a.01/06	E	HA25 Irudi eta komunikazio alorra osatzen duten hainbat elementutan hizkuntza ofizialen erabilera nola ematen den ezagutzea, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak proposatzea.
2.a.01/08 Udalak egiten dituen zerbitzuen kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri	2.a.01/08	E	HA18 Kontratazio eta esleipenak arautzen dituen Kontratazio Legeak aurreikusitako kontratazio mota bakoitzeko hizkuntza baldintzak zehaztu, adostu eta jarraipenerako prozedurak finkatzea.

2.a.03

2.a.03. Lanabes informatikoak euskaraz eskueran izan daitezen urratsak egin: bulegoko tresneria, hardwarea edota softwarea erosten denean hizkuntza-irizpideak ezarriz

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
2.a.03/00	2.a.03/00		HA10 Tresna eta aplikazio informatikoetan euskarak daukan presentzia aztertzea, euskarazko elementuen zentsu bat egitea eta, hala behar izanez gero, neurri zuzentzaileak planteatzea.

2. Euskararen erabilera 2.c. Teknologia berriak :

2.c.06

2.c.06. Informazio-kanpainak antolatu eta sentiberatze-lana egin informazio-produktuen eskaria gero eta handiagoa izan dadin herritarren (jolas eta informaziorako), enpresen (informazio, interpretazio eta itzulpenarako) eta sektore publikoaren aldetik (informazio, itzulpen, interpretazio eta dokumentaziorako).

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
2.c.06/01 "Paperik gabeko" informatizaziorako udalen ahaleginetan, zerbitzuak euskaraz eskuragarri jarri	2.c.06/01	A	TT10 Harrera eta argibiderako bulego integratua sortzea, Donostian nonahitik herritarrek zuzenean kontsultatzeko aukera izan dezaten
2.c.06/02 Udal zentroetan teknologia berrietan oinarritutako euskarazko produktu eta zerbitzuak eskaintzea	2.c.06/02	E	TT15 Teknologia berriak baliatzea, udal zerbitzuetatik ateratzen den euskara ona izan dadin. Hiztegiak eskuragarri jartzea.

2.c.07

2.c.07. Bulegotika eta telematikaren arloan euskararen presentziari euskarria emango dioten funtzionalitateak garatu

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
2.c.07/01 Ondare kulturala bildu, ahal den neurrian digitalizatu eta zabaldu: toponimia, kondaira, gertaerak, euskalkiari buruzko informazioa,...	2.c.07/01	A	TT20 Donostiako euskal idazleen testuak eta herri literatura, oro har, digitalizatzea eta euskaraz.net, EUPren webean, argitaratzen joatea.
2.c.07/01 Ondare kulturala bildu, ahal den neurrian digitalizatu eta zabaldu: toponimia, kondaira, gertaerak, euskalkiari buruzko informazioa,...	2.c.07/01	A	TT13 Donostiako Udaleko haur liburutegian CD-ROM formatuan argitaratu den euskarazko ekoizpen digitala kontsultatzeko eta erabiltzeko Ciberbiblio sistema informatikoa ezartzea.

2.c.08

2.c.08. Bulegotika eta telematikaren arloan euskararen presentziari euskarria emango dioten funtzionalitateak garatu

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
2.c.08/00	2.c.08/00		TT17 Plan Orokorren diseinu eta jarraipenerako aplikazioa sortzea eta eguneratzea

2.c.10

2.c.10. Merkatuan zabalkunde handia duten produktuen lokalizazioari lehentasuna eman.

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
2.c.10/00	2.c.10/00		TT12 Donostiako Udaleko ordenagailu guztietan Word euskaraz erabiltzeko lokalizatzeko lana.

2.c.11

2.c.11. Jarraibide horiek oinarritzat hartuta, hona herri-administrazioen egitekoak: orain arte egindako ekimenak ordenatu, baloratu eta zabaldu; hizkuntza-baliabideen azpiegitura eraikitzeko euskarria prestatu; erabiltzaile-komunitate prestatua eta aurreratua sortu; edizio-eta itzulpen-plataforma edo sareak sortu, baita denen eskura egon daitezkeen hiztegi elektronikoak ere.

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
2.c.11/00	2.c.11/00		TT24 Donostiako Euskarazko Jardueren Agenda prestatzea eta euskaraz.net, patronatuaren web gunean, egunero argitaratzea.
2.c.11/00	2.c.11/00		TT23 "Donostia Gaur" albiste buletina editatu, euskaraz.net web cunean txertatu eta posta elektronikoaren bidez harpidedunei egunero banatzea.
2.c.11/00	2.c.11/00		TT11 Euskararen Udal Patronatuaren euskaraz.net web gunea abian jartzea, elikatzea eta eguneratzea
2.c.11/00	2.c.11/00		TT22 Mugi! kirolzale donostiarraren aldizkariaren edizio digitala prestatzea eta alerik ale eguneratzea..
2.c.11/00	2.c.11/00		TT21 Auzoka Donostiako eskola aldizkariaren edizio digitala prestatzea eta alerik ale eguneratzea..

2. Euskararen erabilera 2.d. Enpresa mundua :

2.d.01

2.d.01. Enpresetan euskararen erabilera areagotzeki begira, hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresari-elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaren arabera proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
2.d.01/00	2.d.01/00		LM32 Donostian kokaturik dagoen ekimen pribatuaren errotulazioa bi hizkuntzetan idatzita egon dadin dirulaguntzak ematea
2.d.01/00	2.d.01/00		LM28 Enpresa publiko eta pribatuak langileak euskaldundu eta alfabetatzeko dirulaguntzak ematea
2.d.01/01 Enpresetan barne eta kanpo plangintzak egiteko laguntza eskaini	2.d.01/01	E	LM25 CTSS-DTK-k Euskara Plana abian jartzea EUPren laguntzarekin
2.d.01/09 Merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko saioak abian jarri	2.d.01/09	E	LM08 Merkataritza Federazioarekin batera, lan munduan euskararen erabilera normalizatzearen aldeko ekimenak abiatzeko laguntza zerbitzuak daudela jakinaraztea: web orria, posta zerrendak, datu baseak, dirulaguntzak, euskara zerbitzuak,...

2. Euskararen erabilera 2.e. Aisia :

2.e.01

2.e.01. Aisialdian lanean diharduten talde indartsuekin (parrokiak, eskautak eta abar) zein aisialdirako begirale eta zuzendarien prestakuntzan ari diren eskolekin (Hezibide, Edex, ...) plangintza zehatza egin, begiraleen hizkuntza-trebakuntza antolatzeko eta aisialdiko ekintzetan euskararen erabilera areagotzeko neurri zehatzak eta egokiak har ditzaten uneoro.

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
2.e.01/00	2.e.01/00		KA25 Aisialdiko begiralei euskara ikasteko dirulaguntzen berri ematea
2.e.01/00	2.e.01/00		KA19 Irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateei dirulaguntzak ematea

2.e.03

2.e.03. Euskararen aldeko ekintza soilen ordeztuz, inguru hezitzailean eskaini aisialdi-zerbitzuak: herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz, alegia.

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
2.e.03/01 Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatu	2.e.03/01	E	IR44 Haurrak beti jolasean programa
2.e.03/06 Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartu	2.e.03/06	E	KA45 Oporretan euskaraz

2. Euskararen erabilera 2.f. Kirola :

2.f.01

2.f.01. Hiruzpalau urteko plan estrategiko batean kirol-arloa euskalduntzeko hiru lan-esparru nagusi taxutu: materialaren sorkuntza eta hedapena; entrenatzaileentzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak; sentsibilizazio eta zabalkunde orokorra zein herri-mailakoa.

Ekintza EBPn	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
2.f.01/00	2.f.01/00		KA53 Euskarazko kirol teknifikazio ikastaroa antolatzea pilotako kirol monitoreentzat.
2.f.01/00	2.f.01/00		KA15 MUGI! kirol hilabetekaria argitaratzen jarraitzea
2.f.01/03 Kirol taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratzea eta material horiek kirol-klub eta elkarteetara helaraztea	2.f.01/03	E	KA08 Kirol monitore eta entrenatzaileen eskura jartzea euskaraz dagoen kirol materiala.
2.f.01/03 Kirol taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratzea eta material horiek kirol-klub eta elkarteetara helaraztea	2.f.01/03	E	KA10 Futboleko entrenatzaileentzako liburu berri baten euskarazko bertsioa bideratu eta argitaratzea.
2.f.01/04 Kirolean ere euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio ekintza zehatzak egin	2.f.01/04	E	KA09 Kirol monitoreei euskara ikasteko dirulaguntzen berri ematea

2.f.02

2.f.02 Udal-kiroldegietako langileak edo enpresa-zerbitzuak kontratatzerakoan hizkuntza-irizpideak ezarri. Udalen eta ekimen pribatuaren esku dagoen “Denontzako Kirola” programan euskarazko eskaintza bermatu. Federazioen laguntzaz euskararen erabilera areagotu jendaurreko kirol-agerpenetan: iragarki, megafonia, errotulazio eta argitalpenetan.

Ekintza EBPn	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
2.f.02/00	2.f.02/00		KA03 Realarekin Hizkuntza Normalkuntza plana bideratzea
2.f.02/03 Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko hizkuntzairizpideak ezarri	2.f.02/03	E	KA52 Donosti Cup txapelketan euskararen presentzia bermatzeko neurriak hartzea
2.f.02/03 Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko hizkuntzairizpideak ezarri	2.f.02/03	E	KA04 Izaera bereziko kirol jardueri ematen zaizkien dirulaguntzen oinarrietan hizkuntza irizpidea sartzea eta jarraipena egitea
2.f.02/03 Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko hizkuntzairizpideak ezarri	2.f.02/03	E	KA51 Donostiako Klasikoan euskararen presentzia bermatzeko neurriak hartzea
2.f.02/03 Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko hizkuntzairizpideak ezarri	2.f.02/03	E	KA48 Open Zone Surf Txapelketan euskararen presentzia bermatzeko neurriak hartzea

2. Euskararen erabilera 3.a. Corpus plangintza eta eusk :

3.a.03

3.a.03 Hizkuntza-paisaia ugaltu eta txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak ere landu.

Ekintza EBP	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
3.a.03/01 Toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia normalizatu euskaltzaindiarekin bat etorri	3.a.03/01	A	HA29 Hiriko Seinaleztapenean euskararen erabilera bermatzeko hizkuntza irizpideak zehaztu, adostu eta jarraipenerako prozedurak finkatzea.

3.a.05

3.a.05. Informatizatuta dauden euskararen corpusak modu erosoan erabiltzeko aukera eskaini.

Ekintza EBP	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
3.a.05/00	3.a.05/00		EB06 Administrazioako hitz eta esapidez osatutako Udal-Hiztegia intraneten jartzea eta kontsulta egiteko aukera eskaintzea udal-langileei
3.a.05/00	3.a.05/00		EB15 Udal langileei Euskalterm datutegi terminologikoa intranet bidez kontsultatzeko modua jartzea eta eguneratzea
3.a.05/00	3.a.05/00		EB16 Udal langileei euskararen arauak internet eta intranet bidez kontsultatzeko modua jartzea
3.a.05/00	3.a.05/00		IR17 EHUrekin hitzarmena, "Ereduzko prosa gaur", egungo euskara ereduzkoaren bilketa proiektua, 3 fasetan burutzeko eta euskaraz.net-en argitaratzeko.

3.a.06

3.a.06. Kezka eta zalantzak argitzeko bitartekoak jarri: telefono linguistikoa, aholku-taldeak, galdekizunak, berripaperak eta abar.

Ekintza EBP	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
3.a.06/00	3.a.06/00		EB29 Euskarazko itzulpenak, zuzenketak, gramatika azalpenak eta abar ematea donostiarrei.
3.a.06/00	3.a.06/00		EB08 Donostian kokaturik dagoen ekimen pribatuaren errotulazioa bi hizkuntzetan idatzita egon dadin bultzatzea, aholkularitza eskaintzea eta dirulaguntza ematea

3. Euskararen elikadura 3.b. Komunikabideak :

3.b.01

3.b.01. Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntzanormalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
3.b.01/02 Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu	3.b.01/02	E	KM58 Gazteei zuzendutako Gaztetxulo aldiakariari dirulaguntzak ematea bere jarduketa eta zabalkundea hobetzeko
3.b.01/02 Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu	3.b.01/02	E	LM33 BUSI enpresak kudeatzen dituen DTKko autobusetako pantailak ele bietan egoteko aholkularitza ematea
3.b.01/03 Eskualde edo herri mailako komunikabideetan euskararen erabilera bultzatzearen, laguntzak emateko irizpideak finkatu eta horren arabera esleitu dirulaguntzak	3.b.01/03	E	KM04 Euskarazko hedabide lokalei (Irutxulo) dirulaguntzak ematea, beren jarduketa eta zabalkundea hobetzeko.

3. Euskararen elikadura 3.c. Liburugintza :

3.c.02

3.c.02 Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbestekoa du. Horretarako, besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio.

Ekintza EBPN	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
3.c.02/00	3.c.02/00		EB30 Donostiako euskal literatura lanak argitaratzea. "Bertako saila"
3.c.02/00	3.c.02/00		KM51 Argazkigintza eta euskarazko literaturari buruzko argitalpen proiektua bideratzea Fundación Ordóñez Falcón de Fotografíarekin
3.c.02/00	3.c.02/00		KM28 Euskarazko literatura lanak bultzatuko dituen Saria sortzea (Donostia Opera Prima)

3. Euskararen elikadura 3.g. Kulturgintza :

3.g.01

3.g.01. Haurrei eta gazteei zuzendutako kultur ekoizpenak lehenetsi, euskara biziberritzeko duten garrantziagatik

Ekintza EBPn	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
3.g.01/00	3.g.01/00		KM53 Euskal Kantu Txapelketaren Finala.
3.g.01/00	3.g.01/00		KM59 Ilargiak Baleki bildumaren lehen bi aleak (Lizardiren "PariskoTxolarrea" eta Lauaxetaren "Lili-negarra") Gaztelupeko Hotsak argitaletxeari kaleratzen laguntzea
3.g.01/02 Euskaltegi, ikastetxe eta herriko elkarteekin batera ekintzak antolatu	3.g.01/02	A	KM35 Donostiako Eskolarteko Literatur Lehiaketa-Koldo Mitxelena sariakematea.

3.g.02

3.g.02. Euskaraz bakarrik jaso daitekeen hori irrikagarri egiten ahalegindu eta horren berri eman erdaldunei ere; hau da, euskal kulturaren emaitzak barreiatu, euskaraz ez dakienak zerbait galtzen duen irudipena izan dezan. Erdarazkoei aurea hartu.

Ekintza EBPn	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
3.g.02/00	3.g.02/00		KM56 Oskorri taldearen kontzertua
3.g.02/00	3.g.02/00		FH24 3-16 urte bitarteko haur eta gazteentzako euskarazko produktuen katalogoa
3.g.02/00	3.g.02/00		KM38 Herritarrei Donostian euskaraz egiten diren jardueren berri ematea komunikabideetan.
3.g.02/00	3.g.02/00		KM40 "Donostian Bertsoan" bertso-saioa antolatzea Euskal Jaiei barruan.
3.g.02/00	3.g.02/00		KM22 Euskarazko Donostia Antzerki saria ematea. Urteko antzerki programazioa indartzea.

3.g.05

3.g.05. Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.

Ekintza EBPn	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
3.g.05/05. Herriko festetan eta ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatu	3.g.05/05		KM55 Udal Sail eta Patronatuetoako Euskararen Normalkuntza: Zinemaldiarekin lan egitea, euskararen presentzia egokia izan dadin eta urteroko neurketa egitea

0. Altza 0.a. Altza :

Z0.a.01

0.a.1. Altza

Ekintza EBPn	Kodea	Leht	Ekintza Donostiako Plan orokorra
0.a.01/01 Altzako Euskararen Plan Estrategikoa	0.a.01/00		AL01 Altzako Euskararen Plan Estrategikoa: lehen eta bigarren faseen jarraipena (Batetik, Ikastetxeak, kultura eta gazteen aisialdia eta kirola eta bestetik, merkataritza eta ostalaritza, lan mundua eta zerbitzuak).

2.4. Uztartze prozesuaren azken urratsak: aholku batzordea, finantziazioa eta Komunikazio Plana

Uztartze prozesuaren ondorengo urratsa Udalaren Euskara Aholku Batzordea osatzea da. EBPN-k 15 partaide izatea gomendatzen du gehienez 10.000 biztanletik gorako udalerrietan. Lehendakari gisa euskara zinegotzia arituko litzateke, lehendakari orde Euskararen Udal Patronatuko zuzendaria, eta gainerako kideak udalerriaren hizkuntza-normalkuntzan eragiten duten esparruetan esanguratsuak diren pertsonen artean aukeratuko dira. Horrezaz gain, udal euskaltegia balego, bertako arduraduna ere batzordeko kide litzateke.

Donostiak ez du orain arte aholku batzordea osatu. Aurreko bost urteetan dinamika handiegia izan ez duten Jarraipen Batzordea sortuta zuen Plan Orokorren jarraipena egiteko baina bi planen uztartzearen ondorioz batzordea berritu egin behar da.

(3.2.3 Aholku Batzordearen eta harreman- sarearen garrantzia atalean jorratzen da zein izan beharko duen nire ustez, aholku batzordearen osaketa eta funtzionamendua)

Finantziazioari dagokionez, argi dago HPSk ezin duela Donostiaren kasuan beste hainbat herritan erabilitako dirulaguntza sistema ezarri horrek izugarrizko kostua ekarriko bailioke. Beraz, hiriburuen kasuan finantziazioa eta dirulaguntzak finkatu egin behar dira. Orain arte, Donostiako Udalak HPSren laugarren multzotik jasotzen zituen laguntzak, beti ere 18.000 € gehienez. 2005ean berriz, EBPNrekin bat egiteko prozesua ematen ari denean, berriro ere laugarren multzotik jasoko du dirua eta aurten gainera, 12.000€ jasoko ditu gehienez.

Arazo horri irtenbidea eman behar zaio lehenbailehen eta finkatu egin behar da zein izango den HPSren diru ekarpena datorren bost urtekoari begira, zein irizpideren arabera eta abar.

Bukatzeko komunikazio plana prestatzea aurreikusten du HPS-k udala EBPN garatzeko egiten ari den lana gizarteratzeko. Hiru komunikazio ekintza aurreikusi eta proposatzen ditu:

- Udalak EBPN egiteko hartutako konpromisoak gizarteratzeko.
- EBPNri ekarpenak egiteko hartutako konpromisoak argitaratzek.
- EBPN prest dagoela gizarteratzeko.

Donostiaren kasuan, komunikazio plana egitea aurreikusita dagoen arren, plan horrek ez ditu hiru komunikazio ekintza horiek kontuan hartzen. Abiapuntua beste bat da. Komunikazio plan horren helburua ez da izango soilik EBPN eta Plan Orokorraren uztartzearen berri ematea, jarraian garatuko dugun komunikazio planaren asmo nagusia komunikazioa modu integralean lantzea izango baita. Datorren bost urtekoari begira. Euskararen Udal Patronatuak komunikazioaren alorrean egin beharreko lana diseinatzea eta orain arte egindakoa baloratzea eta hobetzea izango du xede.

3. UZTARTZEAREN ONDORIOZ SORTUKO DEN PLANAREN HUTSUNEAK. PLANA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

3. UZTARTZEAREN ONDORIOZ SORTUKO DEN PLANAREN HUTSUNEAK. PLANA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

3.1 Sarrera

Euskararen Ekimen Estrategikoak, Donostiako Plan Orokorra prestatzeko Donostiako Euskararen Udal Patronatuak planifikazio estrategikoaren metodologia erabili zuen (*ikus diagnostikoa*) eta Donostiako gizarte ezberdinen inplikaziorik gorena lortu nahi izan zen. Prozesu honetan azalduko ez ditudan – orain zehaztu eta azaltzeak luze joko luke eta- zenbait akats eta arazo sortu ziren, eta horren ondorioz, hasierako metodologia aldatu egin zen.

Zortzi sektoretako ordezkari kualifikatuekin lan egin zen plana gauzatzeko, donostiarrek gauzatutako tresna izan zen beraz, eta behin plana osatuta, aipatu ordezkariekin harremana mantendu zen sektore bakoitzaren ebaluazio eta kontrol prozesua egiteko. Baina metodologia hori lehendabiziko urtean eraman zen aurrera, 2002ra arte izan zen martxan. Harrez gero, gizarte ordezkari horiekin ez da inongo harremanik izan (Jarraipen Batzordeko kide ez badira) arrazoi desberdinak direla medio. Hala ere, arrazoi nagusia funtzionaltasun eza zela nabarmenduko nuke, gizarte ordezkari horiek plana garatzeko ardatza izatetik zama izatera pasa baitziren. (Partehartze eskasa, ekarpen gutxi, ordezkari desegokiak zenbaitetan, lan karga handia teknikarientzat...)

Planaren garapenean aurrera egiteko Donostiako Plan Orokorrak Jarraipen Batzordea osatu zuen hiritarren partaidetza bermatzeko. Jarraipen Batzordearen lana planaren azterketa egitea izan da, balioespena ematea, neurri zuzentzaileak proposatzea eta abar. Hala ere, Jarraipen Batzorde honen dinamika ez da behar adinakoa izan (*ikus 2.2.1.6. planaren garapena*) .

Horrez gain, Planaren azterketa osoa eta bilakaera egin izan du urtero Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak. Bertan, Kontseiluak egindako balantze txostenean, zenbait ekarpen egin ohi ditu egindakoaz eta proposamenak zein aholkuak eman ohi ditu etorkizunari begira.

EBPN eta Donostiako Plan Orokorraren uztartze prozesuak ez ditu sakonean aldaketak ekarriko, bi planen arteko aldea ez baitago mamian, azalean baizik.

Halaxe onartzen du Edurne Otamendi Donostiako Euskararen Udal Patronatuko zuzendariak(Bat Soziolinguistika aldizkaria 54. zk) *“Bi planen arteko aldea diseinuan dago batez ere. EBPN hiru helburu estrategikotan oinarrituta egituratzen da; “Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra berriz, zortzi sektore nagusiren arabera osatu zen, eta bertan 28 helburu estrategiko jasotzen dira. Baten zein bestearen helburu estrategikoan identifikazio lan bat egin ondoren, Donostiako Planaren 2004ko ekintzak EBPNren egituraren arabera antolatu dira”.* (ikus **diagnostikoa**)

Beraz, planaren ezaugarriak orain artekoak izango dira: aholku batzordea eratuko da eta Kontseiluak planaren azterketa egiten jarraituko du. Funtsean, sakonean, ez da aldaketarik.

Atal honetan jorratuko ditudan ideiak eta proposamenak aldiz helburu bakarra dute: plangintza estrategikoan sakontzea Donostiako Euskararen Udal Patronatuak dituen baldintzak eta mugak ahaztu gabe, beti ere funtzionala izateko xedearekin. Hemen proposatuko ditudan zenbait neurri sakondu eta landu egin beharko lirateke, beste lan baterako abiapuntua jarri eta hausnarketa eragitea da nire asmoa.

Plangintza estrategikoa eta hiritarren partaidetza sinonimoak dira. Donostiako Plan Orokorrak donostiarren partaidetza bilatu du hasieratik, lehen aipatu bezala, baina argi al dago zertarako erabili nahi den partaidetza hori? Aurrera egin aurretik galdera hori egin beharko genukeela dio Oscar Rebollok (**Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Soziologia irakaslea**): *“Partaidetza sustatzeko metodologiek beti dute oinarri politikoa. Hausnarketa egin behar da beti ezer egiten hasi aurretik. Partaidetza zertarako? da egin beharreko galdera politikoa”.*

Rebolloren ustetan galdera honen atzealdean bi estrategia politiko nagusi daude, bi helburu baitaude: partaidetza legitimazioa lortzeko edota partaidetza eraldaketa lortzeko. Bere esanetan, *“lehenengo kasuan, partaidetza legitimazioa lortzeko helburua dutenek, asmo bakarra dute: beraien helburuak, jarrerak, ekintzak eta interesak indartzea baina ez dute hauek aldatzeko interes gehiegirik.*

Bigarren kasuan, helburua ez da egoera mantentzea eta aldaketa saihestea, baizik eta hiritarren partaidetza ezinbestekoa den eraldaketei bidea ematea eta hauek sustatzea”.

Bi bide hauen arteko aukeraketa egin behar da beraz, eta Donostiako Udalak aukeraketa eginga du dagoeneko.

3.2 Benetako partaidetza eta plangintza estrategikoa lortzeko proposamena

Donostiako Plan Orokorrek plangintza estrategikoan sakondu beharra dauka. Planaren bigarren bost urtekoa hasi aurretik, planaren lehenengo bost urteei buruzko hausnarketa egin beharra dago, autokritikaren garaia iritsi da eta une egokia da honako hau plangintzan aldaketa sakonak barneratzeko eta hobekuntzak erdiesteko.

Horretarako bost puntu jorratu behar dira:

1. Donostiako Udala eta partaidetza: Plangintza estrategikoaren alde egin zuen Euskararen Plan Orokorrek eta partaidetzaren alde egin du Donostiako Udalak. Benetako plangintza estrategikoa ezartzeko erabaki politikoa hartu zela gogoratzea garrantzitsua da.
2. Planaren bost urte hauen balantzea eta sektore bakoitza aztertze modua egin behar da bigarren bost urtekoari begira, egindakoaz hausnartu eta plangintza eraginkorragoa lortzeko
3. Aholku Batzordea berritu beharra dago, funtzionamendu eredu berria sortu eta harreman sarea indartu, partaidetza sustatu.
4. Ebaluazio sistemak hobetu behar dira, egindako ekintzak neurtzeko sistema hobetu eta berritu beharra dago. Ez bada ebaluazio egokirik egiten, plangintzak ez ditu behar adina urrats emango, ez da hain eraginkorra izango.
5. Hau guztia egiteko plangintza kronograma zehatza egitea ezinbestekoa da, aurreikuspenak eta epeak bete daitezen.

3.2.1. Donostiako Udala eta partaidetza

Donostiako Udalak urteetako esperientzia dauka kontsulta, eztabaida eta partehartze dinamiketan. Udalak hiritarren inplikazioa bilatzen ari da hauek parte har dezaten hiriko kudeaketaren gaineko erabaki prozesuetan. Demokrazia parte-hartzailearen aldeko apustua egin duela dio Donostiako Udalak, demokrazia ordezkatzaillearen osagarri gisa. *“Tokiko demokrazian sakondu eta herritarren parte-hartzea udal jardueraren oinarritzko ardatz bihurtzea, eta horretarako, herritarren inplikazio-mekanismoak hobetu eta berritu behar dira, hausnarketa kolektiboko prozesua oinarritzat hartuta”*.

Asmotik ekintzatarara igaro da eta abian jarri ditu azken urteetan partaidetzarako zenbait egitura eta ekintza: Agenda 21, Donostiako Plan Estrategikoa, Partaidetzako aurrekontuak eta abar. Eta azkenik, aipatu egin behar da Donostiako Udala prestatzen ari den Partaidetzarako Udal Plana 2003-2007. Plan honek, argi eta garbi jasota ditu helburuak: *“Gobernatzeko eran eta hiritarra eta udalaren arteko harremanetan aldaketa ematea nahi da, eta partehartzearen kultura berria ezarri eszenatoki berri bat diseinatzeko, non ardura konpartitzearen ideia eta hiriko eragile sozial eta instituzioen arteko elkarlana indarra hartzen duten”*.

Donostiako Udalak konpromiso sendoa adierazi du plangintza honetan eta ez dio zalantzari zirrikiturik uzten, bertan adierazten baitu bere aburuz partaidetza zer den: *“Oinarritzko eskubidea da, udal gobernuak egindako aukera da, heziketa prozesua da eta inguratzen gaituen errealitatean eragitea da hau eraldatzeko eta hiriaren egitasmoak elkarrekin eraikitze”*.

Hau guztia kontuan hartuta Oscar Rebollok planteaturiko galderari erantzuna emana dio Donostiako Udalak: partaidetza eraldaketa lortzeko nahi da. Beraz, bide horri heldu beharko diogu Donostiako Planari aldaketak proposatzeko garaian.

3.2.2. Diagnostiko orokorra eta arloz arloko diagnostikoaren beharra aurrera egiteko

Orain arte, Plan Orokorren urtez urteko balantzea egin da, baina 2005eko bukaeran bost urtekoaren azterketa zorrotza egitea ezinbestekoa da. Datu orokorrei begirada bat eman ezker bi ondorio atera daitezke:

⇒ Urtero ekintzen kopurua gorantz doa.

⇒ Plan Orokorrean erabilitako diru kopurua gero eta handiagoa da.

DATU OROKORRAK		
URTEA	EKINTZA KOPURUA	DIRU KOPURUA
2001	56	702.042,00 €
2002	70	921.916,00 €
2003	89	983.855,00 €
2004	97	1.110.111,00 €

Datu horien ekarpena baina, hutsaren hurrengoa da. Benetako balantzea egiteko, bi lan ildo abian jarri behar dira:

1. Balantzea:

- a) Euskararen Udal Patronatuko teknikariek balantze zehatza egin beharko dute bost urtekoaz. Horretarako kontuan hartu beharko dute urtero zer egin den sektore bakoitzean, zenbat diru bideratu den, zenbat ekintza egin diren, helburu estrategiko guztiak lortzeko ekintzak martxan abian jarri ote diren, planean desorekak ote dauden aztertu, eta abar. Balantze hori egiteko enpresa aditua kontratatzea izan daiteke aukeretako bat.
- b) Kontseiluak egin ditu urtero plan orokorraren auditoritzak. Balantzea egitea ere eskatuko zaio Kontseiluari eta bigarren bost urtekoari begira proposamenak egitea aurreko bost urtekoaren esperientzia kontuan hartuta. Plana bere orokortasunean hartuta egindako balantzea behar luke izan, ikuspegi orokorra eman behar luke.

2. Diagnostikoa sektore bakoitzean:

Sektore bakoitzeko diagnostiko sakona egitea, ekintza eta baliabide gehien bideratu diren sektoretik hasita. Horretarako, baliabideak baleude, kanpoko enpresa bati enkargua eman, azterketa lantzeko. Argi dago ezin dela sektore guztien diagnostiko sakona egin batera, horrek denbora eta diru asko eskatuko lukeelako, baina urtero hiru sektore behintzat landu beharko lirateke

Kulturaren sektorea izan daiteke horietako bat esaterako, Plan Orokorrak baliabide eta ekintza asko bideratzen baititu kultur alorrean euskararen presentzia areagotu eta normalizazioa lortzen joateko.

Kultura sektorearen diagnostiko batek aztergai izan behar ditu:

1) Donostiako Kultur eskaintza:

- Eragile publiko eta pribatuak zer eskaintzen duten euskaraz
- Zein hutsune dauden Donostiako euskarazko kultur eskaintzan
- Zeintzuk diren donostiarren eskaerak,
- Zer indartu beharko litzatekeen kultur produkzioari eta eskaintzari dagokienean..

2) Euskarazko kultur eskaera Donostian, inkesta bitartez:

- Dagoen kultur eskaintzaren balorazioa arloka: kopurua, aukera, kalitatea, prezioaren gaineko iritzia jasoz
- Kontsumitu edo aurrera eramaten dituen kultur ekimenen datuak jaso
- Zein arlotan indartu behar den eskaintza jaso.
- Programatutako ekimenen ezagutza maila aztertu eta eskaintzaren berri izateko erabilitako bitartekoak zein diren ezagutu.
- Kultur eskaintza kontuan ez hartzeko edo emanaldietarako ez joateko edo gehiago ez joateko arrazoiak ezagutu.

Horrekin batera, dagoen eskaintza aztertzeaz gain, donostiarren asistentzia edo partehartzeari buruzko datu zehatzak jaso beharko lirateke eta konparaketa egin gaztelerazko eskaintza eta partehartzearekin.

Datu bilketa zorrotza eta sakona beharrezkoa da jakiteko zehatz-mehatz zein den egoera batetik. Bestetik, Amia matriza egin beharko litzateke, hau guztia borobiltzeko. Datu bilketa hori egin eta gero, bertan antzematen diren hutsune edota beharrei aurre egiteko Plan Orokorrak abian dituen lerro estrategikoak eta ekintzak balekoak diren aztertu beharko da Plan Orokorra aurrera eramateko konpromisoa dutenen artean (euskara patronatua, aholku batzordea, kontseilua eta dagokion sektoreko harreman sarea)

3.2.3. Aholku Batzordearen eta harreman sarearen garrantzia:

EBPN eta Donostiako Plan Orokorren uztartzearen ondorioz, Aholku Batzordea berritzea aurreikusita dago. Baina horrez gain, hori ez baita nahikoa, funtzionamendu eredu berrirantz jo behar da, edo behintzat lehen urratsak eman behar dira; harreman sarea indartu behar da eta bi organo hauei esker, herritarren partaidetza sustatu.

Aholku batzordea aktibatu eta indartu egin behar da. Aipatu dugu planak zortzi sektore dituela eta hasiera batean 101 eragile izan zituela. Uste dut jarraipen batzordeak sektore bakoitzetik 1-2 ordezkari eduki behar dituela, euskalgintzako ordezkariak gain. Sektore bakoitzeko ordezkari horiek sektorea eta euskara-euskal mundua ondo ezagutu behar dute, ezinbestekoa da. Ordezkari horiek sektore horretako beste zenbait partaide kualifikatuekin harreman-sarea osatu beharko lukete iritzia eta aholkuak jasotzeko, beharrak antzemateko eta abar.

Euskararen Udal Patronatuko teknikariek dinamizatu beharko dute eta sistema partehartzailea eta funtzionala izan beharko du.

Funtzionamendua:

A - Aholku batzordea osatzeko modua

- Aholku batzordea osatzeko pertsona egoki eta inplikatzeko modukoan aurkitu. (Teknikarien lana)
- Sektore bakoitzeko ordezkariak edukita sektore bakoitzeko harreman sarea osatu

Ordezkariak harreman sarea sortuko dute aholkuak, iritzia, premiak eta abar jasotzeko. Sektoreari buruzko informazioa jasotzen ahaleginduko dira.

B - Harreman sarea osatzeko modua

Aholku Batzordean sektore bat ordezkatzeko duen pertsonak harreman sarea osatu beharko du bere sektoreko hainbat ordezkariarekin. Kulturaren adibidearekin jarraituz, harreman sare horretan egongo dira azpi sektore ezberdinak ordezkatzeko: antzerkia, zinema, telebista, literatura, musika eta abar. Ekarpak egin eta inplikazioa zein iritzi kualifikatua duen jendea aurkitu beharra dago, sare eraginkorra sortzea baita helburua.

C - Aholku Batzordearen egitekoa

Sektore bakoitzeko ordezkariak aurrera eraman nahi diren ekimenak, lortu nahi diren helburu zehatzak planteatu beharko dituzte Aholku Batzordean. Plana bere osotasunean hartu eta lehentasunak ipiniko dituzte.

Urte hasieran, Aholku Batzordeak (Patronatua, euskaigintza eta sektoreko ordezkariak) sektoreko helburu estrategikoak kontuan hartuta eta aurreko urteko balantzea kontuan hartuta, datorren urteko ekintzak planteatu (adierazleak ondo ezarrita, dagokion helburua lortzeko) eta lehentasunak ezarriko dituzte.

Kontuan hartu beharko dute:

Sektoreak duen lehentasuna (zortzi daude eta lehentasunak finkatu beharko dira). Horren arabera sektore bakoitzari dagokion dirua banatuko zaio.



- Hori kontuan hartuta, datorren urteko ekimenak planteatuko dira.
- Aholku Batzordeak erabaki-ahalmena izango du urteko programa.
- Urte erdian bilera egingo du aurreikuspenak betetzen ari diren ala ez ikusteko.
- Urte bukaeran bilera egingo dute balantzea egiteko Euskararen Udal Patronatuko teknikariak prestatuta.

D- Harreman sarearen egitekoa

Sektore bakoitzetik Aholku Batzordean ordezkari bat egongo da gutxienez. Ordezkari horrek sektore bereko beste zenbait ordezkari izango ditu gertu sektorearen gaineko kezken, beharren, eta ekarpenen berri izateko. Partaidetza da asmoa, donostiarrak hartzaille izatetik eragile izatera pasatzeko bidea izan daiteke harreman sarea. Ez da sortu nahi organigrama konplexu eta ez funtzionala, alderantziz, zerbait eraginkorra izan behar du. Sektore bateko ordezkari kualifikatuak bildu nahi dira bertan, sektorearen ezagutza sakona dutenak eta euskararen normalizaziorako sektore horretan har daitezkeen neurrien aukera eta eragina inork baino hobeto ezagutu dezaketenak.

Sektore bateko Aholku Batzordeko ordezkariak eta sektore bereko Euskararen Udal Patronatuko teknikariak erabaki beharko dute kasu bakoitzean harreman sarea nola sortu, zein maiztasunarekin bildu eta abar. Baina argi dago, sektore bateko diagnostiko sakona egiteko, sektore horretan Plan Orokorren lehendabiziko bost urtekoak utzi dituen emaitzak eta balantzea neurtzeko eta

hurrengo bost urtekoari begira jorratu beharreko ildo zein ekintza nagusiak erabakitzeko harreman sarearen iritzia jasotzea ezinbestekoa izango dela.



3.2.4. Ebaluazio sistemaren azterketa

Urtean abian jarritako ekintzak eta hauen diagnostikoa eta ebaluazioa egiten dute patronatuko teknikariek zenbait irizpide kontuan hartuz:

- Aurreikusitako ekintza izan den ala ez.
- Bideratutako ekintza izan den ala ez.
- Ekintza egiteko emandako urratsak jaso eta azaltzen dira.
- Lortutako emaitza. Normalean neurketa kuantitatiboa.
- Ekintzaren balorazioa: balorazio orokorra, datuak eta azalpenak.
- Ekintzak helburu zehatza lortzeko baliagarria den ala ez.
- Ekintza helburu orokorra lortzeko baliagarria den ala ez.
- Aurreko bi puntuak kontuan hartuta, ekintza balekoa bada, helburuetara hobeto iristeko neurri zuzentzaileak proposatzea

Euskararen Udal Patronatuak urtetik urtera balantzea egiteko modua hobetzen joan den arren, hutsuneak ditu eta ebaluazio sisteman sakondu beharra dago.

Ebaluaketa sistema, ahalik eta objetiboena, asmatu behar da egiten ari den lana baloratzeko edo egiten ez dena agerian jartzeko, ekimen bat eragingarria den ala ez neurtzeko, edota zenbateraino den eragingarri jakiteko eta abar. Nola jakin daiteke, baliabideak eta egoera kontuan hartuta, egiten ari garen lana egin daitekeen onena dela? Nola jakin ekintza bat beste bat baino baliagarriagoa ote den helburu zehatza lortzeko? Eta helburu estrategikoa lortzeko? Nola neurtu ekimen bat errepikatu behar den ala ez, aldagai objetiboak jarri al daitezke?

Orain arte inpresioak, iritziak eta datu batzuk maneiatzen ziren, baina subjektibitatea handia da. Hori objetibatzeke moduak ba al daude? Posible al da sistema operatibo-numeriko objetiboagoa asmatzea horretarako?

Euskararen Udal Patronatuaren Plan Orokorrak bost urte beteko ditu datorren urteko apirilean. Egokia litzateke bigarren bost urtekoari begira patronatuak ebaluaketarako sistema osatuagoa prestatuko balu. Ildo horretatik, interesgarria izan daiteke J. Inazio Markok prestatutako “ENEGAS, autoebaluaketarako eredua EusLab egitasmoa” ezagutzea, analisirako ikuspegi berria ekartzen baitu, orain arteko neurketa sistemetan kontuan hartzen ez ziren zerbait alderdi

jorratzen baititu. Donostiako Plan Orokorrak baina, bere neurrira egindakoa ebaluaketa sistema eratu beharko du.

3.2.5 Plangintza Kronograma Zehatza

DATA	EKIMENA	EGILEA
2005eko Iraila	Jarraipen Batzordea osatu	Euskara Patronatuko teknikariak
2005eko urria	Hiru sektoreen diagnostiko sakona egin. Bost urtekoaren balantzea eskatu	Euskararen Udal Patronatuak enpresa bati eskatu. Enpresa bati eskatu.
2005eko azaroa	Harreman sareak sortu	Ordezkarikari eta Euskararen Udal patronatuko ordezkariak
2005eko azaroa	Bost urtekoaren balantze txostena egin.	Euskararen Udal Patronatuak eta Kontseiluak.
2006ko urtarrila - apirila	Txostenen hausnarketa	Euskararen Udal Patronatuak, Jarraipen Batzordea, harsarea.
2006ko urtarrila	2007ko planaren aurreikuspena	Euskararen Udal Patronatuak eta Jarraipen Batzordeak
2006ko ekaina	Urteko planaren kontrola	Jarraipen Batzordeak
2006ko abendua	Urteko ebaluaketa eta balantzea	Jarraipen Batzordea, Euskararen Udal Patronatua eta Kontseilua.

3.3. Erakundearen arteko elkarlana

Erakundearen arteko elkarlana ezinbestekoa da euskararen normalizazioan urrats garrantzitsuak lortzeko. Hori dela eta, EBPNren eta Donostiako Plan Orokorren uztartzea abiapuntu interesgarria izan daiteke, baina ezin du inolaz ere helmuga izan. Orain arte, elkarlana salbuespena izan dela esan daiteke, eta hori aldatzea ezinbestekoa da. Hori dela eta, hona hemen egindako proposamena

1. Lantalde bat osatu Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Donostiako Euskararen Udal Patronatuko ordezkariekin komunean sustatutako proiektuak bideratzeko.

2. Elkarlanean sortuko diren proiektuak interes orokorrekoak izango dira, ez dira tokian tokiko premiak asetuko bakarrik, proiektu estrategikoak izango dira. Euskarazko publizitatea sustatzea edota euskarazko zinema areto komertzialetan eskaintzeko estrategiak lantzea izan daitezke bi adibide interesgarri. Donostiako Plan Orokorrak ez dauka nahikoa ahalmenik bi gai horietan eragiteko, estrategia orokorrakoak eta elkarlana beharrezkoak dira martxan jarritako ekimenak funtzionalak eta eragingarriak izan daitezen.
3. Egitasmo hau aurrera eramateko finantziazioa ezinbestekoa da. Borondatea ez ezik, baliabide ekonomikoak ere beharrezkoak dira. Donostiak EBPN-n parte hartzeagatik jaso beharko lukeen dirua, edo behintzat horren zati bat, egitasmo hauek bideratzeko erabili daiteke.
4. 2006rako lantaldea sortu eta gutxienez proiektu estrategiko bat lantzeko eta abian jartzeko konpromisoa eta finantziazioa lotzea.

4. DONOSTIAKO EUSKARAREN UDAL PATRONATUAREN KOMUNIKAZIO PLANA

4. DONOSTIAKO EUSKARAREN UDAL PATRONATUAREN KOMUNIKAZIO PLANA

4.1. Komunikazioaren garrantzia: Euskararen Udal Patronatuaren berrantolaketa

Euskararen Udal Patronatuak barruko zein kanpoko komunikazioa lantzeko plana abian jarri aurretik, bere organigrama berregituratu beharra dauka nahitanahiez. Orain arteko egituran, patronatuak zortzi hizkuntza normalizatzaile ditu eta bi zeregin nagusi ditu bakoitzak: udal barneko administrazioaren euskara plana aurrera eramatea egokitzen zaion atalean eta hiriaren kanpoko jardueretarako normalizazio lanetan aritzea.

Zortzi hizkuntza normalizatzaile horietako bat gainera, komunikazio lanak egin ohi ditu.

Komunikazio plan hau aurrera eramateko, komunikazio arduradun bat jartzea ezinbestekoa da eta baita egitura aldatzea ere. Patronatuaren komunikaziorako politika eraginkor batek hiru baldintza bete behar ditu:

- Patronatuaren organo gorenaren menpe egon behar du
- Komunikazioaren ikuspegi orokor batetik abiatu behar da
- Orain arte ez bezala, barruko komunikazioari lehentasuna eman behar dio

Komunikazio arduradunak erabakiak hartzen duen organoarekin harreman zuzena eduki behar du. Are gehiago, hori ez litzateke nahikoa izango **JL Carrascosa** “*Comunicación*” liburuan aipatzen duenez, “*komunikazio arduradunak zeresana eduki behar du erakundeak hartzen dituen erabakietan. Erdibideko organoen menpe baldin badago, denbora eta giza baliabideak alferrik galtzen dira*”.


Komunikazioaren ikuspegi orokorra bestalde, Donostiako Euskararen Udal Patronatuaren barne zein kanpo harremanen eta ekimenen multzoa da. Komunikazio arduradunak barne zein kanpo komunikazioa koordinatu beharko

ditu, Patronatuaren mezu eta ideiak zabaltzeko ardura hartu eta arreta berezia eskaini beharko dio barruko komunikazioari.

Horretarako bi balizko egitura aurreikusten dira:


A. Triangeluaren egituran, orain arte patronatuak eduki duen egitura mantentzen da. Komunikazio arduraduna egituran uztartzen da, eta egitura horren ezaugarriak ondorengoak dira:

- Taldeko kideak gusturako daude, ez dago maila bereizketarik eta erabakietan parte hartze altuagoa dute
- Informazioa guztien esku dago



B. Hiru buruko egituran berriz, patronatuak tarteko maila berri bat sortzen du. Bi arduradun izendatzen dira: kanpo jardueretarako arduraduna eta barruko planaren arduraduna. Bi hauen mailan ezarriko da komunikazio arduradunak eta egitura honek ezaugarri hauek izango ditu:

- Informazio guztia hiru buru eta zuzendaritzen esku dago, eta erabaki ahalmena handiago dute
- Taldea azkarrago antolatzen da, egitura funtzionalagoa dirudi, eta ohiko egitekoak azkarrago bideratzen dira



Egitura batean zein bestean, komunikazio arduradunak patronatuaren ikuspegi orokorra jasotzeko arazorik ez du izango eta bietan kanpo zein barruko komunikazioa koordinatu eta bideratzeko trabarik ez du izango. Kontua da komunikazio arduradunaren eginkizunak aurrera eramateko egitura bermatzea, eta hori ez da egun gertatzen, ez baitaio komunikazio arduradunari behar adina garrantzi ematen. Hori aldatzea behar beharrezkoa da komunikazio plan serio eta eraginkorra aurrera eraman nahi bada.

Hortik aurrera, egitura batean zein bestean, komunikazio arduradunak komunikazio fluxu ona izan behar du kide guztiekin -maila horizontalean, beheranzkoan eta goranzkoan-, komunikazio bideak erraztu beharko ditu atalen artean eta kide guztiei aukerak eman beharko dizkie ekarpenak egin ditzaten patronatuaren proiektuak aurrera egin dezan. Era horretan eskurago izango du helburua: komunikazio arrakasta.

Eta azkenik, komunikazio arduradunari dagokionean, **JL Carrascosak** *“Comunicación”*

liburuan aipatzen ditu zeintzuk diren komunikazio arduradun batek eduki beharreko ezaugarriak eta profila: *“Kanpo zein barruko komunikazioaren esparruak maila berean jarriko dira eta komunikazio arduraduna organigramako arduradun nagusiarekin elkarlanean arituko da. Bi esparru horietako ardura kazetari profesional batek hartuko du eta barruko komunikazioaren ardura hartzen duenak giza harremanetan ere aditu izatea oso komenigarri litzateke”*.

4.2 Euskararen Udal Patronatua eta barne zein kanpo komunikazioaren trataera

Komunikazioaren kudeaketan esan ohi da, komunikazio politikarik okerrenea ez dagoen komunikazio politika dela, izan ere, gogoz kontra bada ere, komunikazioa egon badago eta. Erakunde guztiek, nahi ala ez, komunikatu egiten dute, beraz, hobe da komunikazioa modu aktiboan planifikatzea, oharkabea eta ezer adierazi gabe egon baino, honek epe luzera emaitza onik ez baitu ekartzen.

Euskararen Udal Patronatuak ez du jakin izan orain arte egiten duena kapitalizatzen. Barne komunikazioari dagokionean, nahita hartutako jarrera izan da, ez baitu ezer komunikatu nahi izan orain arte. Bere borondatea oharkabea igarotzea izan dela dirudi, baina horrek ez ditu helburuak bete: jendeak orokorrean ez daki patronatua zer egiten ari den administrazioaren euskara plana indarrean jartzeko, planik ba ote duenik ere, eta are eta gutxiago zein baliabide jarri dituen plana aurrera eramateko edota zein diren proposatzen dituen irizpideak. Udaleko langileek informazioa edukitzekotan ere, partziala edo okerra izango da eta hori zuzentzea patronatuari dagokio.

Kanpo komunikazioari dagokionean, plangintza orokorra eratzea eta indarrean jartzea falta izan zaio. Bi izan dira Euskararen Udal Patronatuak nagusiki eramandako lan ildoak azken urteetan:

- ⇒ Plan Orokorraren zenbait ekintza komunikatzea
- ⇒ Euskaraz.net web orriaren aldeko apustu sendoa egitea.

Plan Orokorraren ekintzak komunikatu diren arren, Plan Orokorra bera, eman dituen urratsak, lortu dituen emaitzak eta abar ez dira komunikatu. Plan Orokorra oharkabea igaro da eta honi buruz ez da azken urteetan inongo plangintza komunikatiborik antolatu: borondatezko isilunea egon da.

Bestalde, Euskararen Udal Patronatuaren irudi korporatiboan ere gabeziak eta zalantzak antzematen dira.

Hau guztiaren gainean, barne zein kanpo komunikazioaren gainean, plangintza bat eratzea da datozen ataletan bilduko den edukiaren helburua.

4.3 Barne Komunikazio Planaren diseinua

4.3.1 Sarrera

Euskararen Udal Patronatuaren barne komunikazioaren planaren diseinuaz ari naizenean, ez naiz ari patronatuaren langileen arteko komunikazio fluxuaz edota komunikazio hori hobetzeko neurriez, Donostiako Udal barruan patronatua euskararen erabilera normalizatzeko asmoz egiten ari den lana, hartzen dituen erabakiak eta martxan jartzen dituen egitasmoak komunikatzeko plangintzaz baizik.

"Edonork eskubidea du herri administrazioarekin nahi duen hizkuntza ofizialean harremanak izateko eta herri aginteen betebeharra hori betetzen dela ziurtatzea da". Halaxe jasotzen da Euskal Autonomi Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 dekretuan eta hori bete dadin lanean ari da Euskararen Udal Patronatua. Euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izatea da asmoa eta xede horrekin bideratzen ditu ekimen guztiak eta horiek ondo komunikatzea garrantzitsua da oso.

Donostiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko bi plangintza egin dira dagoeneko eta hirugarrena laster izango da indarrean.

Lehen plangintza aldia 1991ko maiatzaren 9ko arautegian (Euskararen Ordenantza deiturikoa) oinarritu zen eta langileen hizkuntza prestakuntza landu zen gehienbat.

Bigarren plangintza aldia 2000. urtean onetsi zen eta euskararen erabilera bultzatzea zuen xede (zerbitzu hizkuntza, lan hizkuntza eta harremanetarako hizkuntza gisa).

Hirugarren plangintza aldiak euskararen erabileran sakondu nahi du Donostiako Udalean euskara zerbitzu hizkuntza izango dela bermatzeko (ahoz zein idatziz), udal ekintza-eremu desberdinetan (kontratazioan, laguntzetan, argitalpenetan, irudiaren alorrean eta ekitaldi publikoetan) hizkuntza irizpideak zehaztu eta

aplikatzeko, herri administrazioen arteko harremanetan euskara erabiltzeko eta Udaleko atal elebidunetan euskara lan eta harremanetako hizkuntza izan dadila bermatzeko.

Hirugarren plangintza aldia indarrean sartzearekin batera martxan jarriko da udal barneko administrazioaren euskara plana komunikatzeko plangintza.

4.3.2 Hasierako ekintza komunikatiboak

4.3.2.1 Aginte politikoen eta zuzendaritzaren konpromisoa ezagutzera ematea

Plangintza hau aurrera eramatea konpromisoak hartzea da, eta plangintza hau indarrean sartu orduko lehen ekintza komunikatiboa konpromiso zehatz horren berri ematea da publikoki langile guztiei.

- **Noiz** : Plangintza indarrean sartu orduko
- **Tresna**: Intranet sarea, udal langile guztien eskura iristen dena
- **Edukia**: Plangintza hau aurrera eramateko, argi dago plangintza benetan eraginkorra izan dadin, zuzendaritzaren laguntzarik gabe edo laguntza eskasarekin, ezinezkoa izango dela erakundean inolako aldaketarik planteatzea. Beraz, zuzendaritzaren konpromiso sendoa lortu beharko da plana aurrera eramateko eta konpromiso hori helarazi beharko zaie edota horren berri eman beharko zaie atal horretako langile guztiei. Hori bai, benetako konpromisoa izan beharko duela aipatzen du Rafael Casas-ek La comunicación interna: un posible modelo a seguir” liburuan, helburua “zuzendaritzaren sinesgarritasuna areagotzea baita erakundeko partaideen artean”. Goi karguetan ez badago konpromisorik, zaila izango da gainerakoei ezer eskatzea.

4.3.2.2. III. plangintza aldia. Katalogoa

Alkatearen gutun batekin batera 3. plangintza aldiaren ezaugarrien berri ematen duen katalogoa bidaliko zaie langile guztiei.

- **Noiz:** Plangintza indarrean sartu orduko
- Katalogoaren **edukia eta helburua:**
 - 3. plangintzaldiaren helburuak azalduko ditu.
 - Euskararen erabilerarako jarraibideak azalduko ditu
 - Legediak eta dekretuek zer jasotzen duten gogoratuko du
 - Sentsibilizazio lana egingo du:
 - Hiritarrari bere eskubideak errespetatu behar zaizkiola gogoratu.
 - Planaren abantailak transmititu
- Katalogoaren **ezaugarriak:**

Diseinu erakargarria, irakurterraza eta mezu motz eta zuzenak dauzkana.

Behin komunikazio ekintza horiek martxan jarri eta gero, komunikazio modu desberdinak jarriko dira indarrean komunikazio fluxua bermatuta egon dadin urte osoan Euskararen Udal Patronatua eta gainerako udaleko atal eta langileen artean.

4.3.3 Barne komunikazio moduak

4.3.3.1- Aurrez aurreko komunikazioa

Komunikazio modu garrantzitsuena da, komunikazioa bi norabideetan emango dela ziurtatuta baitago.

⇒ Patronatuko teknikaria atal barruko partaide

Donostiako Udaleko atal guztiei hizkuntza normalizatzaile bat ezarri zaie. Hizkuntza normalizatzaile bakoitzaren egitekoa izango da euskara plana abian jartzea, kontuan hartuz zein diren planaren lehentasunak.

Teknikari bakoitzak, hizkuntza normalizatzaile lanak egiten dituenek, harreman zuzena du eragiten ari den atal horretako udal langileekin. Hori horrela izanda, komunikazio horizontala lortzen da langile horien eta normalizatzaileen artean eta informazio fluxua ona izango da. Informazioa eman eta jasotzeko bide ezin zuzenagoa da. Gainera kontuan hartu behar da normalizatzailearen helburuetako bat dela langileari beharrezkoa duen laguntza eman ahal izatea euskara gero eta gehiago erabili dezan, edota bere euskara maila hobetu dezan. Egoera horretan, ez da zaila lan harremana egoteaz gain, harreman afektibo eta kohesiboak sortzea eta horrek asko erraztuko du komunikazio fluxua.

Normalizatzailearen egitekoak komunikazioaren alorrean:

1. Euskararen Udal Patronatuaren zerbitzuen eta eskaintzen berri emango die udal langile horiei, ahoz aho eta bestelako euskarriekin: katalogoak eta abar
2. Patronatuko teknikariak zuzenean jasoko ditu langileen kezkak, galderak, eskaerak eta abar
3. Normalizatzaile bakoitzak udal atal batean eragiten hasi aurretik, Euskararen Udal Patronatuari buruzko inkesta bete beharko du. Inkestaren helburua patronatuaren eginkizunen eta zerbitzuen eskaintzen gainekoa izango da. Inkesta horrek jakitera emango digu zein den patronatuari buruzko ezagutza eta iritzia udal langileen artean. Horrek lagunduko digu jakiten zein hutsune dauzkan patronatuak barne komunikazioaren alorrean
4. Urtea bukatzearekin batera, beste inkesta bat pasako da bi helburu izango dituenak:
 - Langileak duen patronatuari buruzko ezagutza maila hobetu ote den jakitea eta zein ekintza komunikatibo ondo edo gaizki funtzionatu duen ezagutzea. Kontraste lana egitea alegia
 - Teknikariak egindako lanaren balorazioa egitea eta euskararen erabileran aurrera pausuak eman ote dituen jakitea.

Honek guztiak komunikazio ekintza batzuk sortu, ezabatu edota zuzentzeko balio dezake. Atalak ezagutzea, udala barrutik ezagutzea alegia, bere beharretara eta errealitatera hobeto egokitzeke balio dezake.

⇒ Patronatuko hizkuntza normalizatzailea eta ataleko zuzendaria

Urtean bitan behintzat bilduko dira. Informazioa trukatu dute (ekarpenak, eskaerak, kezkak jaso...) eta hori lagungarria izango da erabilera plana eta komunikazio ekintzak hobetzeko.

4.3.3.2- Intranet sarea

Barne komunikaziorako dagoen tresnarik praktikoa da. Intranet sare honetara lotuta daude egun udal langile gehientsuenak, guztiak ez esatearren.

Intranet zerbitzu honek ezaugarri hauek izango ditu:

- Informazio praktikoa eta ulergarria emango da
- Ezin du astuna izan, itxura zaindu
- Informazio orokorra eta berezitua egongo da, baliabide teknikoek baimenduz gero (atal bati zuzenduta, Hizkuntza eskakizun maila x dutenei zuzenduta...)
- Gainkarga saihestu: Informazio gehiegi emanda jendea gogaitu egiten da. Komunikaziorako kaltegarria da. Kalitatea kantitatea baino garrantzitsuagoa da.
- Jendearen parte hartzea sustatu: Aholkuak, galderak, kezak, iritziak.. helarazteko tarteak prestatu.
- Baikorra: Jendea animatzeko eta sentsibilizatzeko balio behar du.
- Patronatuaren kanpoko jardueren berri emateko balio dezake: Donostian dauden euskarazko ekimenen zerrenda bidaltzea nahi dutenei, nahi duten maiztasunarekin (Astean behin, hamabostean behin, hilean behin).

4.3.3.3- Informazio-boletina

Intranet sarearen osagarri izango da eta udal langile guztien artean banatuko da.

- ✓ Patronatuak zuzenduko du, baina udal langileen parte hartzea ere sustatu daiteke: elkarriketak, iritzi artikulak,...
- ✓ Informazio interesgarria zabalduko du : Datuak, emaitzak, laguntzak...
- ✓ Motibazio lana egingo du: euskara ikasten ari diren langileen arteko zozketa egin, maila gainditu dutenen zerrendak atera...

- ✓ Ezin du izan maiztasun handikoa (urtean behin beharbada), komunikabide erabiliarena intraneta izango baita.

4.4. Kanpo Komunikazioa.

4.4.1 Irudi korporatiboa

4.4.1.1 Identitatea eta irudi korporatiboa

Lehenik eta behin bi kontzeptu hauek argitzea ezinbestekoa da.

Irudi Korporatiboa buruzko definizioa zehatza ematen ditu **Carrascosak** bere liburuan. Bere esanetan irudi korporatiboa” *erakunde bati buruz kanpo zein barneko publiko desberdinek dituzten irudi, ezaguera, sentimendu, sinesmen eta esperientzi guztien emaitza da*”. Azken finean gizarteak erakunde hori buruz pentsatzen duena da.



Identitate korporatiboa aldiz, erakundea nolakoa den eta bere buruaz egiten duen definizioa da. Identitate korporatiboan- edo erakundearen nortasunean- hainbat faktorek hartzen dute parte: erakundearen istorioa, bere kultura, filosofia, kudeaketa estiloa, bere langileen jokabidea eta abar.

Euskararen Udal Patronatuaren azken helburua ahalik eta komunikazio hoberena lortzea denez, horretarako bere identitate korporatiboak eta irudi korporatiboak bakarra eta bera izan behar dute: gizarteak erakundea den bezalakoa ikusi behar du eta hori izan behar du helburu nagusia.

4.4.1.2 Irudi bisuala: Marka

Irudi korporatiboan irudi bisualak garrantzi handia dauka, irudi bisuala begi-bistan geratzen den identitate korporatiboaren zatia baita eta hau erakunde baten komunikazio euskarri guztien bidez osatzen da: logotipoa, koloreak, uniformea, papera, ontziak... Seinale hauek guztiek erakundea identifikatu behar dute eta beste erakundeetako identitateetatik bereiztu. Zentzu horretan marka ongi zehaztea ere garrantzitsua da oso, jendeak izen ezaguna duten erakundeetara jotzea nahiago duela frogatuta baitago.

Markaren diseinuak ezinbesteko **hiru baldintza** bete behar dituela diote adituek:

1. Funtzionaltasuna: Erraz irakurtzeko modukoa izan behar du, buruz zailtasunik gabe ikas daitekeena, originala eta erabilera anitzekoa.
2. Erakundeak dituen ezaugarriekin (garatzen dituen jarduerekin eta zehaztutako helburuekin) bateragarria izan behar du. (Helburua erakundeak bere esparruan irabazitako baloreak, mezuak eta posizioak sujeritzea da, erakundearen historiarekin, bere kultura, profesionaltasuna, etorkizuna eta abarrekin bat etorrira)
3. Baldintza formalak: hainbat ezaugarri estetiko bildu behar ditu, irauteko gaitasuna izan behar du, estetika formala (10-15 urteetara ere baliagarria izan dadin), estiloaren eta edukiaren artean bateragarritasuna egon behar du.

Baina hiru baldintza horiekin batera, beste funtsezko baldintza bete behar du erakunde bateko marka batek: erreferentzialtasuna lortu behar du eta

berehalako identifikazioa ere bai. Hori horrela izan dadin, marka horrek erakundearen izaera, balioa, egitekoa jaso behar ditu, baina horrekin batera, erakundea zer den adierazi behar du, barrua hustu behar du, komunikazio emotiboa erdietsi behar du: hiritarrak bere egin behar du, bat egin behar du markarekin eta bere esanahiarekin, ziztu batean eta naturaltasun osoz.

Bestalde marka eta kolore korporatiboak erakundearen identitate bisualean funtsezkoak dira eta barne zein kanpo irudian erabili behar dira beti:

Barne Irudian:

- Grafikoa: Oinarrizko papertegia (gutuneko parte arrunta, prestigiodun gutunerako papera, hitzarmenak, dirulaguntzak, eta bestelako inprimaki orokorrak)
- Barne argitalpenak
- Barne seinaleztapena: bulegoak, aretoak, sarrerak...
- Sustapenerako materiala: boligrafoak, motxilak, giltzatakoak, txanoak...

Kanpo Irudian:

- Grafikoa: Kanpo papertegia, informazio buletina, web orria...
- Prentsa oharrak, prentsako agerpenak
- Publizitatea
- Sustapenak

4.4.1.3 Donostiako Euskararen Udal Patronatuaren arazoak irudi korporatiboan. Euskararen Donostia marka



Donostiako Euskararen Udal Patronatuak bi marka izan ditu. Lehena, agerian geratzen denez, aspaldikoa da eta txoria zen erabilitako irudia.

Duela zortzi bat urte berriz, sinbolo hori Euskararen Donostia logotipoarengatik ordezkatu zen. Erabateko aldaketa egin zen, aurreko irudiarekin hautsi zen erabat, txoriaren irudia ezabatu egin zen eta bere ordezkari Euskararen Donostia logotipoa ezarri zen. Aurreko irudia alboratu egin zen erabat, hautsi egin zen ordura arteko irudiarekin eta ez zen inolako trantsiziorik izan.

Euskararen Donostia Patronatuaren logotipoa modernoagoa da, tipografia jakin bat duena, eta koloreei dagokienez, horia eta urdina ezartzen dituen kolore korporatibo gisa (hemendik aurrera patronatuaren produktu guztietan erabiliko dena).

Euskararen Donostiarekin urrats bat eman den arren, marka honek ez ditu helburuak bete eta ez dut uste donostiarrek bere egin dutenik. Hona hemen zenbait arrazoi:

- Funtzionaltasun gutxi: Egia da esaldi sinplea dela itxura batean, baina ez da erraz ulertzen, ez da erakargarria, ez da buruz eta oharkabean ikasteko logoa, ez da begietatik edota inolako ahaleginik egin gabe hiritarrak bere egingo duen logoa, eta beraz ez da funtzionala.
- Euskararen Donostiak ez du bihotzean eragiten, ez du inpaktorik sortzen, ez du indar emotiborik, ez ditu hartzailearen barruak mugiarazten.
- Kopia txar baten antza hartzen diot. Donostiako Kultur Udal Patronatuak Donostia Kultura marka sortu zuen eta marka hori hiritarrarengana iritsi delakoan nago. Nortasuna du, bere bidea egin du: “Donostia kulturak antolatu du” esaten dugu askotan donostiarrok. “Euskararen Donostiak edota Euskararen Donostia Patronatuak” antolatu du ez du inork esango, ezta bertako langileek ere. Markak ez du arrakasta izan, inolaz ere.
- Hiritarrek ezezik, udal langileek ere ez dute bere egin, eta ezta euskararen udal patronatuko kideek ere. Marka honek ez du sinesgarritasunik eta beraz ez du bete hasierako helburua.

Bestalde, Euskararen Donostia marka eta kolore korporatiboen erabilerari dagokionean, bai kanpo irudian eta baita barne irudian ere, beti kontuan hartu da eta erabilera zuzena egin da.

4.4.1.4 Ondorioak eta proposamenak

Euskararen Donostia markaren ebaluazioa

- Euskararen Donostia markaren ebaluazioa behar beharrezkoa da. Markari buruzko iritzia eskatu behar da eta markak udal barruan eta hirian duen ezagupena, eragina, inpaktoa eta abar neurtu behar da.

Hiritar soilak, udal langileak eta profesionalak (marketing eta publizitate adituak) hartu behar dira kontuan ebaluazio horretan.

Ikerketa honek esango digu Euskararen Donostia marka balekoa den ala ez. Marka balekoa balitz, berau gehiago gizarteratzeko neurriak proposatu beharko lituzkete ikerketa egileek, kontuan hartuta azterketan azaldu diren ahuleziak eta hutsuneak.

Marka balekoa ez balitz, marka berri bat sortzeko urratsak eta plangintza martxan jarri beharko litzateke.

- Nire ustez, aurreko atalean esandakoaren arrazoiengatik eta ikerketaren emaitzen zain, Euskararen Donostia marka ez da egokia. Irudi berria sortu eta marka indartzeko kanpaina eragingo nuke. Planaren erdia betetzear dago eta datorren bost urtekoari begira erronka berriak daude, ilusioa berritu beharra dago, eta donostiar orok bat egingo duen marka aurkitzea ezinbestekoa da.
- Marka horrek ezaugarri hauek beharko lituzke izan: ausarta, zuzena, desberdina, funtzionala, ilusioa sortzen duena... eta batez ere gizarteari eman nahi diogun mezua komunikatzeko gaitasuna eduki behar du.
- Arazoa: 2006ko apirilean beteko dela lehendabiziko bost urtekoa eta hau lantzen hasi behar dela lehenbailehen.

4.4.2. Kanpo Komunikaziorako Planaren diseinua eta metodologia

4.4.2.1 Zer eta zertarako komunikatu?

Donostian Euskararen Udal Patronatuak ez du izan orain arte komunikazio plangintzarik. Egia da komunikazio ekintza solte batzuk egin izan dituela, baina ez da interesik izan estrategia komunikatibo bat lantzeko. Ez da norabide berean eta helburu jakin batekin kanpo komunikazioa landu.

Udal agintariek, Euskararen Udal Patronatuko zuzendariak eta bertako komunikazio arduradunak erabaki beharko dute zein den datozen bost urteetan zabaldu nahi den ideia nagusia edo mezua. Marketing eta publizitate adituek ere lagundu dezakete zeregin horretan, eta ahaleginak mereziko du.

Lan honetan baina, orain arte Euskararen Udal Patronatuaren Euskararen Donostia marka baztertzea proposatzen dut baina marka horrek azpian zuen ideiatik ez naiz gehiegi aldenduko. Hemendik aurrera, honako marka edo mezua sortzea proposatzen dut:

Donostia, euskararen hiriburua!

Euskararen Udal Patronatuaren helburua eta estrategia aurreko mezuan laburbildu daitekeela iruditzen zait: Donostia euskararen hiria izan da, da eta izango da. Ideia horren inguruan hasiko gara lanean datozen 5 urteei begira eta galdera hauei erantzungo diegu:

- **Non gaude?**

Donostia da hiririk euskaldunena, bera da euskaldun kopuru handien duen hiriburua: 63.000 euskaldun ditu Donostiak, ia euskaldunak kontuan eduki gabe, hots, hiru donostiarretik batek, euskara ondo daki.

Era berean Gipuzkoa da lurralderik euskaldunena, eta Donostia bertako hiriburua izanda, jarduera asko hartzen ditu bere baitan.

Horrez gain, euskal kulturarekin loturiko erakunde ugari Donostian dute egoitza (idazle, itzultzaile, bertsozale...) eta euskararen inguruan dagoen industriaren zati handi bat bertan dago.

Abiapuntua beraz ez da makala, baditu indarguneak.

- **Zer nahi dugu?**

Euskararen hiria izan nahi dugu. Donostiarrak ideia hori bere egitea da asmoa. Horretarako lanean ari gara. Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra” martxan jarri zen duela bost urte, euskara plan bat abian jartzen zuen lehendabiziko hiriburua izanik, lehen aipatu helburua lortzeko. Bide horretan baina, plana indarberritzeko eta helburua lortzeko asmoz jauzi kualitatiboa eman nahi da:

- Egindakoaz hausnartu eta planaren bigarren bost urtekoari begira lanean jarritz
- Indarrak batuz, sinergiak erabiliz eta EBPNrekin uztartuz
- Udalaren eta agintarien konpromisoa berrituz eta areagotuz, Donostia euskararen hiria izateko konpromiso finko eta zehatzak hartuz: planaren berrindartzea, alderdi politikoen inplikazioa areagotzea, bitarteko ekonomiko gehiago jartzea eta abar.

Aurreko guztia garrantzitsua izanda ere, ez da nahikoa: patronatuak plan orokor bat daukala gogoratzea ez da nahikoa, eskaintzen dituen zerbitzuen berri ematea ez da nahikoa, web orri bat dinamikoa eta erakargarria egitea ez da nahikoa.

Donostia euskararen hiriburua dela eta donostiarrak hala izatea nahi dugula komunikatu behar dugu. Emozio hori zabaltzea, komunikazio emotiboa erdiestea da asmoa: hiritarrek nahi duten hiri euskalduna hemen da, martxan da, egunero egiten ari gara, denon artean, erakunde eta hiritarren artean: gara eta izan nahi dugu.

Gure zerbitzuek, gure publizitate mezuek, gure euskarriek, gure langileek, gure agintariek ... eta gure ekimenek denek ilusio eta ideia bera eman behar dute: Donostia euskararen hiriburua.

- **Nortzuk egingo dugu?**

Euskararen Udal Patronatuak bideratuko du prozesu guztia baina plangintza estrategikoan sakonduz eta partaidetza sustatuz. Donostiarrak inplikatuarazi behar ditugu, donostiarrak bere egin behar dute mezua, euskararen hiriburua izateko nahia eta asmoa barneratu behar dute, euskararen aldeko jarrera aktiboa izan behar dute. Hori da mezu orokorra, eta gure komunikazio kanpainen mezu hori jasotzeko helburua izango dute.

Bestalde, Donostia euskararen hiriburua izan dadin Udalak duen tresna Plan Orokorra da. Plana eta planaren ekintzak, lorpenak, ekimenak zeintzuk diren komunikatu behar ditugu eta baita Euskararen Udal Patronatuak eskaintzen dituen zerbitzuak ere.

Baina horrez gain, komunikazio zuzena ere sustatu behar du, partaidetza ekarriko duena, hiritarra protagonista bihurtuko duena, eragile aktiboa izango dena. Hori bideratzeko tresnak eta baliabideak jarriko ditugu.

4.4.2.2. Komunikazio-ekintzak

Hiru ekinbide nagusi komunikatu behar ditugu jarraian martxan jarri nahi dugun estrategia komunikatiboaren aurrean: Donostia euskararen hiriburua izateko bidean urrats kualitatiboak ematen jarraitu nahi da. Hiru fase hauek dira:

- Plan Orokorraren 5 urteko balantzea eta bigarren bost urtekoaren jarraipena
- EBPN eta Plan Orokorraren uztartzea
- Plan Orokorraren urteko ekimenen eta Patronatuaren zerbitzuen komunikazio plana

4.4.2.2.1. Plan Orokorraren 5 urteko balantzea eta bigarren bost urtekoaren jarraipena

- **Helburua:** Plan Orokorraren bost urtekoaren balantzea ematea eta hurrengo bost urtekoaren asmoen berri ematea orokorrean.
- **Modua :** Prentsaurrekoa
- **Edukia:**
 - Balantze zehatza: Datuak, lortutako emaitzak, eta abar.
 - Bigarren bost urtekoari begira planteamendu orokorra aipatzea.
 - Partaidetza bultzatu: Aholku Batzordea bildu

- EBPN uztartzea
- Helburu nagusiak aipatu
- **Parte hartzaileak:** Zinegotzia eta Patronatuko zuzendaria, Kontseilua, Batzen (Euskaingintza) eta balantzea egin dutenak.
- **Epea:** Abenduan.

4.4.2.2.2. EBPN eta Plan Orokorren uztartzea. Donostia euskararen hiriburua mezua

- **Helburua:** EPOk bigarren bost urtekoan sartuko da. Aro berria datorrela gizarteratu: euskara lehen planora ekarri nahi da, udala euskara indartzeko konpromiso sendoa du.
- **Modua :** Jendaurreko ekitaldi-festa jendetsua.
- **Edukia:** Donostiak euskararen hiriburua izateko bidean urrats handia eman nahi du. Aro berri baten atarian gaude:
 - EBPNrekin uztartze prozesua azaldu (Sinergiak bilatu dira)
 - Donostiarron parte hartzea indartu: Aholku Batzorde berria aurkeztu.
 - Kontseiluaren parte hartzearekin jarraitu.
 - Udalaren helburuak eta konpromisoak zehaztu.
- **Parte hartzaileak:** Donostiako alkatea.
 - HPStik, sailburuordea.
 - Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendaria
 - Euskararen Udal Patronatuko Zinegotziaren ordezkaria
 - Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko idazkari nagusia
 - Aholku Batzordea
- **Gonbidatuak:** Erakunde publikoetako ordezkariak, politikariak, beste Donostiako udal sailletako arduradunak, Donostiako elkarte, gizarte eragile eta enpresa munduko ordezkariak, komunikabideak, Euskara Patronatuarekin harremana duen oro, eta abar.
- **Lekua:** Kursala, Miramar Jauregia

4.4.2.2.3. Euskara Patronatuaren Plan Orokorra

Azken bi urteetan ez da Plan Orokorren gaineko komunikazio ekintzarik egin. Atal honetan 2006an gutxienez bi prentsaurreko antolatzea aurreikusten da.

DATA	EDUKIA	KOMUNIKAZIO MODUA
Martxoa – apirila	Plan Orokorren 5 urteko balorazioa Datozen 5 urteko erronkak 2006ko aurreikuspena	Prentsaurrekoa
Abendua	2006ko Plan Orokorren balantzea	Prentsaurrekoa

4.4.2.2.4. Komunikatzeko ekintzak: Ekimenen kronograma eta komunikazio modua

2004. urtean Euskararen Udal Patronatuak ez ditu egindako ekintza guztiak komunikatu eta komunikatu baditu ere, ez ditu komunikazio moduak aztertu: gehienetan prentsaurrekoa baita komunikazio modua. Hurrengo organigraman jasoko da 2004an patronatuak egindako ekimen garrantzitsuenak eta horiek hobeto komunikatzeko proposamena egingo da. Antzeko koadroa egin beharko du patronatuko komunikazio arduradunak 2006. urteari begira. Ekintza asko urte batetik bestera errepikatzen badira ere, beste asko berriak dira. Ekintza martxan jartzerako, ekintza horren komunikazio moduak diseinatu beharko ditu, duen koste ekonomikoa baloratu, lehentasunak ezarri eta aurreko informazio guztiarekin komunikatzeko era zein izango den erabaki. Jarraian dagoen koadroa laburpen bat da, komunikazio arduradunari dagokio ondoren komunikazio modu horiek garatzea eta osatzea.

Donostiako Plan Orokorra eta EBPnren uztartze prozesua. Komunikazio Plana

HILABETEA	EKIMENA	SEKTOREA	KOMUNIKAZIO MODUA
Urtarrila	Egutegia banaketa familia transmisioan eragiteko	Familia Harremana	Prentsaurrekoa edo Prentsa oharra
Urria	Oskorriren diskoa haur jaioberrien gurasoentzat	Familia Harremana	Prentsaurrekoa, gutuna gurasoei
Abuztua	Hizkuntzaren transmisioan eragina duten gurasoei euskara ikasteko laguntzak ematea	Familia Harremana	Prentsaurrekoa, gutuna
Urria-azaroa:	Haur eta gazteentzako produktuen katalogoa	Familia Harremana	Banaketa bideratua-prentsaurrekoa
Urte osoa	Altzako plan estrategikoa	Altzako plan estrategikoa	Komunikazio plan bereiztua behar du
Argitalpen bakoitzeko	Bertako saila: euskal lanak argitaratu	Euskera batua eta azterketa soliolinguistikoa.	Prentsaurrekoa
Urtarrilean	Gurasoei zuzendutako motibazio kanpainak euskarazko ereduari matrikula ditzaten	Hezkuntza, ikerketa eta gazteria	Sustapena (Neurgailu batekin), gutuna gurasoei, Kanpaina komunikabideetan, prentsaurrekoa
Urtean behin	“Ereduzko prosa gaur” elikatze lanak egitea. Erabilera datuak eman	Hezkuntza, ikerketa eta gazteria	prentsa oharra-
Urtean behin	Donostiako euskaltegi pribatu homologatuei dirulaguntzak ematea	Hezkuntza, ikerketa eta gazteria	Prentsa oharra
Irailen-otsailen	Neguko eta udako euskara ikastaroentzako dirulaguntzak eman	Hezkuntza, ikerketa eta gazteria	Prentsaurrekoa-Prentsaoharra
Urtean Behin	Euskara ikaslearen txartela eman	Hezkuntza, ikerketa eta gazteria	Prentsa oharra/Gutun pertsonalizatua erabili dezaten/ Promozioak azalduz
Urriaren-ekainean	Haurrak beti jolasean programa	Hezkuntza, ikerketa eta gazteria	Prentsaurrekoa/prentsa/ bilerak eskolarekin-gutunak oharra/aurkeztuz eta datuak emanaz
Iraila-ekaina	Auzoka prentsa eskolarra argitaratzea	Hezkuntza, ikerketa eta gazteria	Prentsa oharra, bilerak eta gutunak eskolarekin
Ekainean	Eskola Antzerki egitasmoa garatzea	Hezkuntza, ikerketa eta gazteria	Datuak eman-Prentsa oharra
Urriaren	Euskara zine aretoetara programa garatzeko laguntza eman/ Datuak		Prentsa oharra
Urria-ekaina	Lagunarteko hizkerarekin jolasean	Hezkuntza, ikerketa eta gazteria	Prentsa oharra (Aurkeztu eta datuak eman)
Hitzarmena egiten denean	Hik Hasi erakundeari dirulaguntza eman udako ikastaroak aurrera eramateko	Hezkuntza, ikerketa eta gazteria	Prentsa oharra-prentsaurrekoan parte hartu
Argitalpenak kaleratzerakoan. Hitzarmena egiten denean	UEUrekin –ESTE eta EHUrekin hitzarmenak argitalpenak kaleratzeko edota ikastaroak zein kongresuak antolatzeke	Hezkuntza, ikerketa eta gazteria	Prentsaurrekoa-prentsa oharra
Urtean behin	Realarekin Hizkuntza Normalkuntza Plana bideratzea	Gizarte erakundeak, Kirol eta entitate herritarrak.	Prentsaurrekoa-prentsaoharra-eskuorria-Realaren Web-a
Ekainean/urriaren	Kirol monitoreei euskara ikasteko dirulaguntzak eman eta euskarazko materiala eskura jartzea	Gizarte erakundeak, Kirol eta entitate herritarrak	- Prentsa oharra/ gutunak- eskuorriak kirol taldeei
Hilabetero	Mugi kirol hilabetekaria argitaratzen jarraitzea	Gizarte erakundeak, Kirol eta	Prentsaurrekoa eta prentsa oharra

Donostiako Plan Orokorra eta EBPnren uztartze prozesua. Komunikazio Plana

		entitate herritarrak	
Otsaila/ Iraila	Irabazi asmorik gabeko elkarteei eta entitateei dirulaguntzak ematea	Gizarte erakundeak, Kirol eta entitate herritarrak	Prentsaoharra
Ekaina	Aisialdiko begiraleei euskara ikasteko dirulaguntzen berri ematea	Gizarte erakundeak, Kirol eta entitate herritarrak	Prentsa oharra-Gutunak aisialdi taldeei
Apirilean/Irailean	Oporretan euskaraz	Gizarte erakundeak, Kirol eta entitate herritarrak	Prentsaurrekoa/Gutuna eskoletara/Eskuorriak
Behin	Irabazi asmorik gabeko elkarteei beren jarduera garatzeko udal lokalak garatzea	Gizarte erakundeak, Kirol eta entitate herritarrak	Prentsa oharra
Urtean behin	-Euskarazko hedabide lokalei dirulaguntzak ematea	Hedabideak eta kultura gintza	Prentsa oharra
Urtarrila/urria	Bezeraok publizitatea egin dezaten Donostiako irati kateekin sustapen berezia egitea	Hedabideak eta kultura gintza	Prentsaurrekoa-Prentsa oharra
Abenduan	Euskarazko Donostia Antzerki Saria ematea	Hedabideak eta kultura gintza	Prentsaurrekoa eta egunari buruzko prentsa oharra, gutun-gonbidapenak-eskuorriak-kartelak-iragarkiak
Urria/Maiatz	Donostiako Eskolarteko Literatur Lehiaketa –Koldo Mitxelena saria ematea-		Prentsaurrekoa-ekitaldi festa-sustapena-gutunak.eskuorriak.opariak
Azaroa	Beldurrezko eta Fantasiarazko Astearen euskarazko zinemaren eskaintza normalizatzen joatea	Hedabideak eta kultura gintza	Prentsaurrekoa-Iragarkiak
Egokitzan denean	Oskorriren kontzertua-Euskal Kantu txapelketa	Hedabideak eta kultura gintza	Prentsaurrekoa-Prentsa oharra-Kartelak
Urriari/maiatzean	Donostia opera prima saria	Hedabideak eta kultura gintza	Prentsaurrekoa-festa ekitaldia-publizitate iragarkiak,eskuorriak..
Urriari	Ilargiak baleki bildumaren lehen bi aleak kaleratzea	Hedabideak eta kultura gintza	Prentsaurrekoa
Irailean	Anthony Mann-i buruzko liburua argitaratzen laguntzea Zinemaldirako	Hedabideak eta kultura gintza	Prentsaurrekoa
Irailean	Donostia Bertsoan bertso saioa antolatzea	Hedabideak eta kultura gintza	Prentsa oharra-kartelak
Hitzarmena sinatzerakoan	DTK-k Euskara Plana abian jartzea patronatuaren laguntzarekin	Lan Mundua	Prentsaurrekoa
Iraila	Enpresa publiko eta pribatuarentzako langileak euskaldundu eta alfabetatzeko dirulaguntzak ematea	Lan Mundua	Prentsa oharra
Urtean behin	Donostiako ekimen pribatuaren errotulazioa euskaraz edo bi hizkuntzatan egon dadin dirulaguntzak ematea	Lan Mundua	Eskuorriak-Merkatariei gutunak

* **Oharra:** donostia.org eta euskaraz.net-en ekintza guztien berri emango da.

Aurreko komunikazio ekintzak garrantzitsuak diren arren, bi komunikazio ekintza bateratuak lehenetsi beharko ditu Euskararen Udal Patronatuak urte hasierarako:

Aro berriaren promozio kanpaina eta Euskararen Udal Patronatuaren jarduera eta zerbitzuak ezagutzera ematea

⇒ **Promozio kanpaina**

Aro berriaren promozio kanpainarako kontuan hartu beharrekoak:

- **Zer komunikatu?** Mezu edo marka berria (Donostia, euskararen hiriburua) kaleratzeko kanpaina indartsua.
- **Noiz hasi?** 4.4.2.2.2. EBPN eta Plan Orokorraren uztartzearen festa-ekitaldiarekin batera. Egun horretatik aurrera.
- **Non?** Donostiako komunikabide gehientsuenetan, autobus euskarrietan,...
- **Denbora:** Aurrekontuaren arabera, baina ahalegin garrantzitsua egin beharko litzateke kanpaina eraginkorra izan dadin. Lehenengo hilabetea behintzat bizitasun eta indar handikoa beharko luke. “Bonbardaketa komunikatiboa” behar dugu. Donostiarra jabetu behar da kanpainaz.

⇒ **Jarduera eta zerbitzuak ezagutzera eman**

Horrekin Euskararen Udal Patronatuaren jarduerak eta zerbitzuak ezagutzera eman behar dira urte hasiera horretan. Informazio hori jasotzen duen eskuorria argitaratu eta banatu behar da leku publiko guztietan eta baita etxez etxe ere. Eskuorri edo katalogo horren ezaugarriez Komunikazio moduen azterketa eta hobekuntzarako proposamenak atalean jorratuko ditut.

4.4.2.3. Komunikazio moduen azterketa eta hobekuntzarako proposamenak

4.4.2.3.1 Komunikazio arduraduna

Orain arte Patronatuak ez du izan benetako komunikazio arduradunik edo gabineterik. Azken urte hauetan normalizatzaile batek egin izan ditu prentsa bulego lanak, baina ezin izan dio nahikoa denborarik eskaini.

Egia da Donostiako Udalak baduela bere prentsa bulegoa, baina bertako langileak lanez gainezka daude eta egunerokotasunak erakutsi du patronatu bakoitzak bere komunikazio arduraduna behar duela, eta halaxe du esaterako Donostia Kulturak

Komunikazio bulego bat edo arduradun bat ez da kapritxo bat, behar beharrezko baliabidea baizik. **Tomas Alvarez/Mercedes Caballero: “Vendedores de Imagen. Los retos de los nuevos gabinetes de comunicación”** liburuan jaso dute kazetari gehienek eman duten erantzuna prentsa gabinete bat zer den galdetu zaienean. “Hedabideen eta erakunde publiko zein enpresen arteko bitartekariak dira”.

Bitartekaririk ez badago, informazioa helaraztea zailagoa izango da. Iritzi berekoa da **Txema Ramirez kazetari eta irakaslea**.

“Prentsa bulegoak beharrezkoak dira egungo sistema informatiboan eta hala uste dute medioetan dabilzan kazetari gehientsuenek eta baita kazetaritza enpresek ere”. Azken finean, bere esanetan “Egonkorrak, instituzionalak, eta eskurra-errazak diren albiste-iturriek lehentasuna nabaria dute medio guztietan. Baldintza hauek betetzen ez dituzten iturriak sistematikoki zokoratuak geratzen dira”.

Mariano Ferrer kazetariak ez ditu komunikazio gabineteak gustuko, baina hauek duten boterea eta eragina ikarragarria dela onartzen du. “Profesioaren minbizia bilakatzen ari da.”... “Dinamika honen arabera gobernuak, poliziak, elkarteek, alderdi politikoek, ugazabek markatzen dute kazetarien agenda, eta azkenean albistetzat ematen da erakunde hauek guztiek komunikatzen duten dena, halako moldez non argitaratzeko irizpidea ez baita honen interes edo kalitatea, baizik eta modu eroso eta egokiz eskaintzen zaien ala ez”.

Ildo beretik doa *Primitivo Carbajo* kazetari galziarraren hausnarketa, “egun hedabideek kontraboterearen izaera galdu dute eta horren aurrean boterearen agindupeko kazetaritza sortzen eta hedatzen ari da”.

Gaur egungo sistema informatiboan komunikazio arduraduna izateak lehentasuna du eta horren aldeko apustua egin beharko luke euskararen patronatuak.

Komunikazio arduradunaren egitekoak kanpo komunikazioan:

- Informazioa landu eta interes informatiboa sorrarazi
- Prentsaurrekoak eta prentsa oharra prestatu
- Udaleko prentsa gabinetarekin harreman estua izan
- Kazetariarekin zuzeneko harremana izan
- Komunikazio sailaren eraginkortasunaz arduratu (Komunikazio azterketak eta auditoritzak eskatu, prentsa laburpenak jaso, komunikazio moduak aztertu...)
- Publizitatea kudeatzea (Jarduera guztien publizitatea zentralizatu eta aurrekontua kudeatu)
- Euskararen Udal Patronatuaren argitalpenak bideratu (aldizkariak, eskuorriak...)
- Papertegi, inprimaki eta bertako materialaren irudia eta diseinua zaindu
- Web orriaren edukia zaindu (zerbitzuak, agenda, jarduerak, lehiaketak , albisteak...)

4.4.2.3.2 Komunikaziorako ohiko bidea. Prentsa harremanak

Udal erakundeak beren mezuak helarazteko erabiltzen dituzten ohiko bideak dira: prentsa-oharra, prentsaurrekoa, prentsa dossiera eta abar. Euskararen Udal Patronatuak ia ez du prentsa oharrik bidaltzen eta gehien erabiltzen duen bidea prentsaurrekoa da. Ez ditu bide horiek behar adina erabiltzen eta lan honen “komunikazio ekintzak” atalean proposamen bat egiten da hau zuzentzeko. Gainera kontuan hartu behar da Donostiako Udaletxean egunero-egunero 8-10 hedabide desberdinetako kazetariak bertan izaten direla udalak eskaintzen duen informazioaren zain. Hori hobeto aprobetxatzen jakin beharko luke Euskararen Udal Patronatuak.

Eragina lortzeko helburuarekin kontuan hartu beharrekoak:

- Prentsa oharak neurritz bidali behar dira. Sarriegi egin ezker, eraginkortasuna galtzen dute (Euskararen Udal Patronatuaren kasuan ez dago oraingoz arriskurik).
- Komunikabideen zerrenda eguneratua: Komunikabideen eta kazetarien izenak eta harremanetan jartzeko moduak. Prentsan, egunkari bakoitzeko ezaugarriak, sailak ezagutzea garrantzitsua da eman nahi den albisteak non koka daitezkeen jakiteko. Irrati eta telebistan, aldiz, prentsa oharra informatiboetara bidaltzen da gehienetan. Hala ere, hedabide hauetako programazioa ezagutzea garrantzitsua da informatiboetan jorratzen ez den gai mota bat beste programa batean lekua izan baitezake. Programa egile horiengana iristea ere oso garrantzitsua izan daiteke.

4.4.2.3.3 Publizitatea

Euskararen Udal Patronatuak komunikabideetan egin ohi duen publizitateak ondorengo ezaugarriak ditu:

A) Euskarazko medioetan egindako publizitatea da.

Azken hiru urteetan egindako publizitatea euskarazko hedabideetan egin da ia %100ean: Irutxulo, Gaztetxulo, Argia(Sareko Argia), Berria, Zabalik, Aldaketa, Bart, Ostiela, Aizu, Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea.

Salbuespenak izan dira: Radio San Sebastian, Herri Irratia eta Diario Vasco. Hauetan egindako iragarkiak, hala ere, salbuespenak dira.

B) Iragarkien edukia hiru eratakoa izan ohi da:

B.1. Donostiako euskarazko ekimenen berri emateko publizitatea.

Patronatuak urteko iragarkietan gastatzen duen aurrekontuaren %75a Donostian euskaraz dauden ekimenen agenda iragartzeko erabiltzen da.

euskararen donostia
patronatua

Donostiako Udalak
Ayuntamiento de San Sebastián

Antzerkia

- **OTEHITZARI** biraka
Kukai eta Tanttaka taldeak
Urtarrilaren 27tik 30era,
20:00etan
Antzoki Zaharrean
Oteizaren mundu sinbolikoa
ikuskizun batean.

Literatur Solasaldia

- Cammembert helburu,
Jon Alonso
Gidatzaile: Harkaitz Cano
Urtarrilaren 31n, 19:30ean
San Jeronimo kaleko
ekitaldi aretoan

Ikastaroak

- **Komunikatu zaitez (II)**
Otsaila: 3,8,10,15,17,22
10:30etatik 12:30etara
Larrotxene kultur etxean
www.edonostia.net
- **Sortu zure webgunea (I)**
Otsaila: 4-7,13-14,18-21
eta 25-26
19:30etatik 21:30etara
Larrotxene kultur etxean
www.edonostia.net
- **Linux ikastaroa**
Sarrera, aplikazioak eta
oinarriko administrazioa
Otsailaren 1etik 4ra
09:30etatik 13:30etara
Iraupena: 20 ordu
Izen ematea: Telef: 943 000999
Lekua: Miramon
Enpresa Digitala
Prezioa: 50 euro
www.enpresadigitala.net

euskaraz.net

B.2. Euskaraz.net web gunea ezagutzera emateko publizitatea.

Gainerako %20 Euskararen Udal Patronatuaren web gunea ezagutzera emateko erabiltzen da.



B.3. Gainerako %5 kanpaina zehatzetarako gastatu izan da: Opera Prima saria, Matrikulazio kanpaina, ...

Donostia Opera Prima eta Erein-Euskadiko Kutxa

2005eko deialdian parte hartzeko oinarriak

Narratiba sariak

1. Lehiaketa honetan euskaraz idatzitako lanak aurkeztu daitezke: argitarrak, errealitate fikzioak, lan behar diren, eta beste ezak. Lanak lehiaketan aurkeztu gabeak. Baldintza hauek epaimahakero unera arte egongo dira indarrean.
2. Lanak Dn A4 formatuko orrietan aurkeztu behar dira (2000 karaktere orriko) eta gutxienez 100 orri bakoiko luzera izango duen lau kopia bidali behar dira.
3. Lanak, Erein (EREIN-EUSKADIKO KUTXA Narratiba Saria), Tolosa (ETORBIDEA 107 - 20018 Donostia) he bidatera bidali behar dira, 2004-12-30 baino lehenago.
4. Lanak izenburuaren bidez zehazki identifikatu behar dira. Ez duela, baina, egilearen izen abizenak, hebidak, telefonoak, fax edota e-maila daramatzan orri bat sartuko da eta gutunazaren harpidetaren obraren titulua jarriko du. Obraren idazleak 2005 urte barruan 35 urte edo gutxiago izanez gero, edota, edozein delarik bere adina, narratiba liburunik argitaratu eman gabea izanez gero, gutunazal gainein "DONOSTIA, OPERA PRIMA" idatzirik bidaltzeko dugu.
5. EREIN-EUSKADIKO KUTXA Narratiba Saria epaimaharen iritzian sursurutzatko eleberririk onerentzat izango da bati.
6. Batek izendatutako garaiz akituazko den epaimaharen haren epai erabazgarria izango da. Lehiaketa honetan parte hartzen duenak beretik gabe arau hauek onartzen dituela adierazten du. Aurreko gibeiko gribatzen iriz gero, epaimahak ebaztuko du. Aurreko gibeiko gribatzen iriz gero, epaimahak ebaztuko du.
7. EREIN-EUSKADIKO KUTXA Narratiba Saria 12.000 €-tan da.
8. EREIN-EUSKADIKO KUTXA Narratiba Saria gainein, "DONOSTIA, OPERA PRIMA" Narratiba Saria izango da 2006 urte barruan 35 urte edo gutxiago izanez gero, gutunazal gainein argitaratu eman gabea gabea aurkeztu behar duen idazleak idatzitako narratiba lan bikoiztenaren izen. Sari hau 4.500 €-tan da izango da.
9. B. Sariak bikoiztenaren izango dira.
10. Epaimahak ebaztuko izango du sursurutzatko eleberririk onerentzat.
11. Lan irabazleak sursurutzatko, plegatuak irabazle eta sariak bakoizko 2005eko martxoaren bigarren hamabostaldian izango dira. Urte bakoizko apirilaren 23 (Urtearen Nafarretako Eguna) sursurutzatko eleberririk onerentzat.
12. EREIN-EUSKADIKO KUTXA eta "DONOSTIA, OPERA PRIMA" sariak eta hauen sursurutzatko eleberririk onerentzatko eleberririk onerentzatko eleberririk onerentzat izango dira. EREIN argitaratutako eleberririk onerentzatko eleberririk onerentzat izango dira.
13. Sariak eman gabe gabea, epaimaharen iritzian sursurutzatko eleberririk onerentzatko eleberririk onerentzat izango dira. Aurreko gibeiko gribatzen iriz gero, epaimaharen iritzian argitaratutako eleberririk onerentzatko eleberririk onerentzat izango dira.
14. Sariak eman gabe gabea, epaimaharen iritzian sursurutzatko eleberririk onerentzatko eleberririk onerentzat izango dira. Aurreko gibeiko gribatzen iriz gero, epaimaharen iritzian argitaratutako eleberririk onerentzatko eleberririk onerentzat izango dira.

Euskararen Udal Patronatua
Konstuzio plaza, 2 - 20003 Donostia
Tel.: 943463751 - www.euskaraz.net

Erein argitaratzailea
Tolosa etorbidea, 107 - 20018 Donostia
Tel.: 943216300

erein
argitaratzailea

CAJA CANARIAS
EUSKADIKO KUTXA

donostia
opera prima

Iragarki horiek Euskara Patronatuan bertan prestatzen dira gastuak handiegiak izan ez daitezen. Dena den, lan honetan irudi korporatiboa berria sortzeko hausnarketaren beharra aipatu dut, eta gauza bera egin beharko litzateke iragarkiekin: enpresa aditu batek diseinu eredu batzuk prestatu beharko lituzke.

C) Publizitatea laguntza gisa.

Euskararen Udal Patronatuaren egitekoa da euskarazko hedabideak sustatzea eta publizitatearen ia %100a hedabide horietan egiten da bi arrazoiengatik: batetik euskarazko hedabideak kontsumitzen dutenak euskarazko jardueretara joateko publiko potentzial garrantzitsua delako, eta bestetik, baldintza ekonomiko zailetan bizi diren euskarazko hedabideak laguntzeko.

→ Proposamenak etorkizunari begira:

- Lehenetsunak finkatu:
 - ⇒ Estrategia komunikatibo orokorrean komunikabideetan egiten den ohiko publizitateari eman nahi zaion garrantzia zehaztu eta publizitate horren bitartez zer komunikatu nahi dugun eta zein ekintza indartu nahi dugun erabaki.
- Euskarazkoak ez diren komunikabideak ere kontuan hartu
 - ⇒ Sentsibilizazio kanpainak euskarazkoak ez diren komunikabideetan egitea funtsezkoa da. Euskarazko komunikabideetan publizitate asko egin behar da, baina euskarazkoak ez direnak ezin dira ahaztu, hauen eragina ere kontuan hartu behar da.
- Komunikazio edota publizitate enpresen zerbitzuak kontratatu
 - ⇒ Kanpaina indartsuak eta neurri handikoak martxan jartzeko
 - ⇒ Patronatuaren irudia, marka diseinatzeko eta abar
- Baliabide ekonomikoak jarri

⇒ Euskararen Udal Patronatuak 40.000 € inguru erabiltzen ditu urtean ohiko publizitatearen esparruan. Aurrekontu horrekin ezer gutxi egin daiteke.

- Euskararen Udal Patronatuaren argitalpenetan publizitatea ezarri

⇒ Euskararen Udal Patronatuak Auzoka eta Mugi aldizkariak kaleratzen ditu. Haur eta gazteentzat diren euskarri horietan haur eta gazteentzako iragarki berezituak jar daitezke.

4.4.2.3.4 Marketing zuzena

Mezu igorlea eta hartzailearen artean komunikazio zuzena ezartzea da helburua. Gutuna, katalogoa edota telefonoa (telemarketing) dira erabilienak. Euskararen Udal Patronatuak mailing edo gutunak maiz samar bidali ohi ditu, eta komunikazio mota honen erabilpen zuzena egiten duela esan daiteke.

Katalogoari dagokionez, gutxi dira egindakoak eta batez ere Euskara Patronatuaren jarduerak ezagutzera emateko esku orria edota katalogoa kaleratzea beharrezkoa ikusten da. Katalogo hori arina, irakurteraza eta erakargarria izatea komeni da baina era berean informazio ona eta osoa ematen duena, hots, patronatuaren aurkezpen orria izango dena.

➤ Ezaugarriak:

- ◆ **Patronatuaren katalogoa:** egiten duguna gara: Donostiarrek Euskara Patronatuak egiten duena jakin eta ulertzen duten heinean baloratuko dute.
- ◆ **Erakargarria eta gardena:** Xehetasun guztiak zaindu behar dira: euskarriaren kalitatea, argazki erakargarriak, letra irakurteraza, atentzioa deitzen duten titularrak,... erakargarria bai baina gardena: mezu zuzen eta ulergarriak, esaldi motzak, hitz teknikoak alboratuz eta propaganda merkean erori gabe.
- ◆ **Patronatuaren marka ez du ahaztuko:** Mezu kontraesankorrak baztertu egin behar dira, komunikatzen den guztia bat etorriko da Patronatuak

zabaldu nahi duen mezuarekin: Donostia, euskararen hiriburua. Marka hori gutun, eskuorri, iragarki eta gainerako euskarri guztietan azaldu behar baitu, eta katalogoan zeresanik ez!

Katalogoa etxe eta leku publiko guztietara iritsiko da. Ahalegin ekonomiko handia eskatu arren, garrantzitsua da Donostia bere osotasunean hartzea. Katalogo hori euskara zinegotziaren ordezkariaren edota alkatearen gutun atsegina batekin bidaliko da.

4.4.2.3.5 On line komunikazioa. Euskaraz.net

Euskaraz.net da Euskararen Udal Patronatuaren web orria. Bertan aurki daitezke patronatuaren jarduerari eta zerbitzuei buruzko informazio zabala eta eguneratua. Ondo funtzionatzeko duen zerbitzua da, patronatuak ahalegina egiten du web orri dinamiko, praktikoa, erakargarria eta zerbitzu onekoa izaten.

Hauek dira bertan aurki daitezkeen zerbitzu interesgarrienak:

- **Agenda:** Donostian egunero dagoen euskarazko eskaintzaren berri ematen da
- **Donostia Gaur albiste buletina:** Eguneko prentsak Donostiari buruz jasotakoak bertan irakur daitezke laburbilduta. Web orrian bertan irakur daiteke eta harpidetuz gero, ordenagailuan jasotzen da egunero.
- **Ereduzko Prosa gaur:** Aplikazio informatiko honetan gaur egungo euskarazko ereduzko prosaren corpusa bildu da –azken urteotako 150 liburu, oraingo- eta programa informatiko ahaltsu baten bidez bilaketak eta kontsultak egin daitezke corpus horretan.
- **Hiztegiak:** Bildurik daude Internet sarean zehar aurki daitezkeen hiztegi, entziklopedia, eta hizkuntz baliabide sorta. Laguntza paregabea aurkituko dute horietan guztietan euskara ikasten edo hobetzen ari direnak eta baita kontsulta iturri ederra halakoren beharra duten guztiek.
- **Euskal Literatura:**
Donostiako Euskal Idazleen datu basea dago, idazle bakoitzaren fitxa eta bibliografiaz osatua.

Donostiako historia txikia, donostiarren eta Donostiako euskararen kontu jakingarriez osatutako Gorostian Gorosti informazio gunean aurki daiteke


Donostiako euskal idazleen testuak eta herri literatura

- **Toponimia:** Donostiako kale eta leku izenak, planoak, mapa, leku izenei buruzko txostena.
- **Zerbitzuak:** Dirulaguntzen gainera informazioa (euskara ikasteko, errotulazioa euskaratzeko), itzulpen zerbitzua, euskarazko jardueren gida, euskarazko zerbitzuen gida, eta abar.
- **Argitalpenak:** Euskararen Udal Patronatuak argitaratutakoak (Mugi, Bertako saila, Don Kijote Mantxako...)
- **Hezkuntza ataleko programak:** Oporretan euskaraz ekimena, eskola antzerkirako laguntza..
- **Euskara ikasten atala:** Dirulaguntzak, euskaltegiak...
- **Kultura:** Antzerki saria, Koldo Mitxelena Literatur lehiaketa, Donostiako kantak...

Web orriaren erabilera datuak

Usage Statistics for euskaraz.net

Summary Period: Last 12 Months
Generated 29-sep-2005 00:00 CEST



Summary by Month										
Month	Daily Avg				Monthly Totals					
	Hits	Files	Pages	Visits	Sites	KBytes	Visits	Pages	Files	Hits
Sep 2005	19319	15398	5239	1906	21441	5780779	55299	151942	446566	560256
Aug 2005	15757	13172	4484	1670	27957	5616136	51785	139017	408349	488485
Jul 2005	15206	12602	5262	1619	19365	5204616	50189	163131	390667	471412
Jun 2005	18395	14626	4688	1336	18921	5688254	40093	140668	438799	551858
May 2005	25763	19724	6343	1549	17168	7744394	48047	196646	611446	798678
Apr 2005	22415	17367	5279	1766	15591	6351238	52991	158375	521024	672466
Mar 2005	18237	14128	4380	1710	16572	5008632	53036	135804	437992	565349
Feb 2005	20104	15347	5181	1744	17862	5605262	48852	145084	429730	562925
Jan 2005	19280	14865	5080	1787	24070	6010407	55405	157483	460817	597710
Dec 2004	17142	13220	4762	1688	24033	5219848	52348	147632	409828	531423
Nov 2004	17420	13365	4224	1141	21348	4686618	34244	126722	400957	522600
Oct 2004	15935	12353	4052	1046	19919	4687598	32426	125617	382973	494012
Totals						67603782	574715	1788121	5339148	6817174

Generated by [Webalizer Version 2.01](#)

euskaraz.net

The webalizer sistemaren bitartez neurtzen da euskaraz.net web orrira sartzen den jendearen kopurua. Informazioa: [/www.mrunix.net/webalizer/](http://www.mrunix.net/webalizer/)

OHARRA: 2005eko iraileko datua behin behinekoa da, hileko azken 2 egunak kontuan hartu gabe daude

⇒ **Ondorioa:** Bilakaera ona da: 2005eko datuak 2004koak baino askoz hobeak izaten ari dira

⇒ Emaizak **hobetzeko proposamenak:**

- Erabiltzaileen azterketa egin: zein orrialde dira bisitatuena, noiz eta abar
- Euskaraz.net donostiarren artean ezaguna den jakiteko azterketa eskatu. Datu zehatzak bildu
- Euskaraz.net beraren eta dituen zerbitzu eta jarduera garrantzitsuenen promozioa egin: agenda, donostia gaur boletina, hiztegiak...
- Katalogoak eta eskuorriak kaleratu
- Publizitate berezitua egin
- Komunikabideetan zerbitzuen eskaintzaren berri eman
- Informazioa zabaltzeko erabiltzaile potentzialen artean: euskaltegiak, unibertsitatea, ikastetxeak, kultur etxeak eta abar

⇒ **On Line komunikazioa**

Euskararen Udal Patronatuak komunikatzeko ohiko bideak erabiltzeaz gain, sarearen bitartez komunikatzeko bideak gehiago landu behar ditu.

- ✓ Bere jardueren berri eman sareko albistegietan: Sustatu.com, erabili.com eta abar
- ✓ Intranet sarean bitartez komunikazio harreman zuzena sortu: (Euskaltegiekin, eskolekin, kultur elkarteekin, eta abar) informazio trukaketa izateko, feed-backa areagotuz eta komunikazio fluxua erraztuz
- ✓ Harreman zuzena eduki Gipuzkoako euskara zerbitzuekin, Donostialdekoekin bereziki. Azken hauekin Donostian dagoen euskarazko ekimenen berri eman daiteke Donostialdean, bertako euskaldunak hartzaile potentzial garrantzitsuak dira eta.

4.4.2.3.6 Euskaigintzarekin eta elkarteekin harremanak. Harreman publikoak eta sustapena

- **Elkarteekin harremanak:** Udal ordezkari gehienek beldurra diote ekimen honi baina ezinbestekoa da: ez dago hiririk, ez dago ekimenik, partaidetzarik gabe. Horregatik garrantzitsua da oso lan honetan aipatu sektoreetako harreman sareak ondo antolatzea eta komunikazio fluxua ziurtatzea, feed-backa eragitea.
- **Euskaigintza:** Aholku Batzordeko kide dira euskaigintzako ordezkariak. Orain arte baino harreman estuagoa izatea interesgarria izan daiteke. Aholku Batzordearen funtzionamendu berrian ematen dira xehetasunak, baina garrantzitsua da oso sektore hau kontuan hartzea eta bere parte hartzea eragitea: bilerak eginez, hausnarketarako bideak zabalduz, proposamenak eta ekarpenak eskatuz, eta abar. Euskaigintzaren ikuspegia eta iritzia oso kontuan hartzekoa izango da.
- **Harreman Publikoak:** Erakunde batek bere irudia eta sona hobetu asmoz hainbat teknika eta tresna erabili ditu.
 - *Argitalpenak:* Literaturarekin loturikoak, hiztegiak, gazteentzako jokoak kaleratu izan ditu. (Alor hori nahiko ondo bete du orain arte)
 - *Mezenasgo eta laguntza lanak, esponsorizazioa:* Euskararen Udal Patronatuaren egiteko bat da eta ekitaldi zein babesle lan dezente egin ohi du: Euskal Kantu Txapelketa, Bertsolari txapelketa, Eurosla, Galeusca, Ereduzko prosa eta abar. Mezenasgo horiek hobeto komunikatzen ahalegindu beharko litzateke, sarritan nahiko oharkabean geratzen dira eta.
 - *Hitzaldiak, jardunaldiak, azoka profesionalak:* **Alor honetan Euskararen Udal Patronatuak gabezia handiak ditu.** Donostiak ez du euskararen inguruko hausnarketa-ikerketa alorrean lidergo sendorik, patronatuak ez du ekimen handirik alor honetan eragiteko eta ondorioz, ez da ez aitzindari, ez aitzinatzaile. Donostiak, euskararen hiriburua izateko, lan handia egin beharko du alor honetan datorren bost urtekoari begira.
- **Sustapena:** Promozio teknika hau ere hobetu daiteke. Euskararen Udal Patronatuak bere produktuak ezagutzera emateko, bere izena edo marka zabaltzeko bi bide erabili du orain arte:

- *Merchandaisinga*: Haur eta gazteei zuzenduta batez ere. Patronatuaren zenbait ekintzatan parte hartzen dutenei (Oporretan euskaraz, Koldo Mitxelena literatur lehiaketa...) Euskararen Donostia marka izeneko produktuak oparitzen zaizkie: motxilak, buruko biserak, pinak, pegatinak, lumak, eskuko telefonoa eta giltzak eramateko zinta edo zintzilikarioa, eta abar.
- *Karpa nazioarteko liburuaren egunean*: Bere produktuak (on line eta argitalpenak) ezagutzera emateko karpa jartzen du Gipuzkoa plazan.

⇒ **Proposamena:**

Euskararen Udal Patronatuak gehitu egin beharko lituzke horrelako ekimenak. Kalera maizago atera beharko litzateke bere burua ezagutzera ematera.

- Abenduak 3 (Euskararen Eguna): Astebete iraungo duen egitaraua antolatu aitzakia hori erabilita.
- Stand informatiboa kultur etxeetan, eskoletan eta unibertsitatean: Ikasleentzat interesgarria izan daitezkeen zerbitzuen eskaintza egin aipatu lekuetan stand praktiko, eroso eta erakargarria jarritz. Eskoletan, irakasle, ikasle eta gurasoentzat interesgarriak diren jardueren eta zerbitzuen informazioa eman.
- Beste zenbait...

4.5. Komunikazio planerako baliabideak

Komunikazio Plana aurrera eraman ahal izateko baliabide ekonomikoak ezinbestekoak dira. Lan honetan aipatu neurri eta ekintza guztiak batera indarrean jartzea ezinezkoa dirudi, horrek izugarrizko gastua sortuko luke eta.

Komunikazio plana abian jartzea erabakiko balitz, bertan azaldutako egitekoen artean lehentasunezkoak zein diren aukeratu eta horiek martxan jartzeko aurrekontua prestatzea litzateke hurrengo urratsa.

Hala ere, bigarren bost urtekoari begira komunikazio arduradun bat izendatzea eta plana aurrera eramateko nahikoa diru bideratzea proposatzen da lan honetan, nahitaez hartu beharreko erabakia dela iruditzen zait Euskararen Udal Patronatuaren helburuak erdiesteko.

5. BIBLIOGRAFIA

5. BIBLIOGRAFIA

ALVAREZ TOMAS/CABALLERO MERCEDES.1997. Vendedores de Imagen. Los retos de los nuevos gabinetes de comunicación. Paidós argitaratzailea. Bartzelona

RAMIREZ TXEMA.1995.Gabinetes de comunicación. Funciones, disfunciones e incidencia. Bosch argitaratzailea. Bartzelona

RAMIREZ TXEMA. 1994. Prentsa bulegoak: ezkutuko errealitate baten ageriko punta.In:Jakín 81 Martxoa-apirila.74,78 orr.

FERRER MARIANO.1994.Komunikabideak erakundeen gatibu.In: Jakín 81, Martxoa-Apirila. 22. orr.

STANTON NICKY.1989. Las técnicas de comunicación en la empresa. Ediciones Deusto SA. Bilbao.

CARBAJO PRIMITIVO.1993.Gabinetes de prensa. O éxito da propaganda na precariedade do periodismo. In:A nostra terra de pensamento e cultura.14-15, otsaila

PUIG TONI. 2003. La comunicación municipal cómplice con los ciudadanos.

Paidós Iberica argitaratzailea. Bartzelona

OTAMENDI EDURNE.2005. Hiriburuen lekua EBPN-n: Donostia. In: Bat soziolinguistika aldizkaria 54. 67-74 orr.

CARRASCOSA JOSE LUIS.(1992). ComunicACCION. Una comunicación eficaz para el éxito en los negocios. 46-48 orr.

CASAS RAFAEL.(1990). La comunicación interna: un posible modelo a seguir. In: Seminario APD-Andersen Consulting, Madrid

SIADeco SOZIO –EKONOMI IKERKETA ELKARTEA. Komunikazioari buruzko gida erakundeetan. Gipuzkoako Foru Aldundia

HPS. Donostia. Udalaren egungo egoeraren diagnostikoa.

EBPN. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra

Oscar Rebollo.2002. Bases político metodológicas para la participación.

<http://habitat.aq.upm.es/boletin/n24/aoreb.html>

Partaidetzarako Udal Plana 2003-2007

http://www.donostia.org/info/ciudadano/ss_participacion.nsf